PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN BALDINTZA AGIRIA, HONDAKINAK PREBENITZEKO PLANAREN NEURRIAK GARATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKOA, HONDAKINAK PREBENITZEARI ETA BERRERABILTZEARI LOTURIK ETA SENTSIBILIZAZIO ESTRATEGIAK ETA KANPAINAK EGITEARI DAGOKIONEZ 2024AN, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN LURRALDE EREMUAN

AURKIBIDEA

I. TITULUA.- ALDERDI OROKORRAK 2
1. KONTRATUAREN XEDEA 2
2. LURRALDE EREMUA 2
3. ELIKAGAI GUTXIAGO ALFERRIK GALTZEA, EKINTZA PLANAREN HIRUGARREN FASEA 2
4. UDAL BULEGO ETA EKIPAMENDUETAN ERABILERA BAKARREKO ONTZIAK MURRIZTU DITZATEN SUSTATZEA 3
5. PUBLIZITATEA ARAUTZEA: ORRI ZORTZIRENAK, ALDIZKARIAK, ETA ABAR. 4
6. ARROPA BERRERABIL DADIN SUSTATZEA 5
7. EKITALDI PUBLIKOAK GIROTZEA 6
8. ETXEKO HONDAKINAK BIRZIKLATZEKO KANPAINA, HERRITARREI ZUZENDURIK 7
II. TITULUA. LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA LANEN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA 11
9. **GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK** 11
10. **DOKUMENTUAK AURKEZTEA** 11

ERANSKINAK:

1. ERANSKINA: ELIKAGAIAK ALFERRIK GALTZEARI BURUZKO DIAGNOSIA, 2022

2. ERANSKINA: ELIKAGAIAK ALFERRIK EZ GALTZEKO LEHEN EKINTZA PLANA, 2023

3. ERANSKINA: ELIKAGAIAK ALFERRIK EZ GALTZEKO BIGARREN EKINTZA PLANA, 2023

4. ERANSKINA: ONTZIAK MURRIZTEKO KANPAINAREN MEMORIA, 2023

5. ERANSKINA: EKITALDIAK GIROTZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA, 2023

6. ERANSKINA: ETXE HONDAKINEN BILKETARI BURUZKO UROLA KOSTAKO DATUAK (2018-2023)

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN BALDINTZA AGIRIA, HONDAKINAK PREBENITZEKO PLANEKO NEURRIEN GARAPENA KONTRATATZEKO, HONDAKINAK PREBENITZEARI ETA BERRERABILTZEARI ETA SENTSIBILIZAZIO ESTRATEGIAK ETA KANPAINAK EGITEARI LOTURIK 2024AN, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAREN LURRALDE EREMUAN

I. TITULUA.- ALDERDI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza agiri honetan oinarriturik egiten den kontratuaren xedea izango da hondakinak prebenitzeko planeko neurriak garatzeko zerbitzua eskaintzea, Urola Kostako Udal Elkartearen lurralde eremuan hondakinak prebenitzeko eta berrerabiltzeko eta sentsibilizazio estrategiak eta kanpainak egiteko. Eginkizun horretan, kontuan hartuko da preskripzio teknikoen baldintza agiri honetan eta administrazio klausula partikularren baldintza agirian jasotakoa, eta betetzekoak izango dira Udal Elkarteko zerbitzu teknikoaren jarraibideak, baita kontratuaren adjudikaziodun suertatzen den eskaintzan jasotakoa ere.

2. LURRALDE EREMUA

Kontratu honen xede diren zerbitzuen lurralde eremua Urola Kostako Udal Elkarteko udalerri guztiak izango dira.

II. TITULUA. DESKRIBAPENA ETA LANAK EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

3. ELIKAGAI GUTXIAGO ALFERRIK GALTZEA, EKINTZA PLANAREN HIRUGARREN FASEA

3.1. Xedea

Hondakin balira bezala kudeatzen diren elikagaien kantitatea murriztea. Horretarako, soberakinak aprobetxatzea, soberakinak sor daitezen saihestea eta herritarren artean kontzientzia piztea sustatuko da, elikagaiak alferrik ez galtzeko.

3.2. Justifikazioa

Gaur egun, bota egiten da ekoitzitako elikagaien ehuneko handi bat, nahiz eta kontsumitzeko egokiak izan. Elikagai soberakin horiek ekoizpen kate osoan gertatzen dira, baita elikagaien garraioan eta kontsumoan ere.

Helburu nagusia izango da zenbait ekintza gauzatzea elikagai soberakin horiek hondakin bihur ez daitezen, eta, bide horretan, kontsumitzeko moduak bilatuko dira, elikagaiok egoera txarrean egon baino lehen. Eginahal horretarako, oinarri gisa hartuko dira elikagaiak alferrik galtzeari buruz eginiko diagnosia (**1. eranskina**), lehenbiziko ekintza plana (**2. eranskina**) eta bigarren ekintza plana (**3. eranskina**.

Ekintza honen hartzaileak izango dira elikagai soberakin ugari sortzen dituzten tokiak (hala nola elikaduraren sektoreko enpresak, supermerkatu handi eta ertainak, eskola jantokiak, eta abar), baina baita jatetxeak eta etxeak ere.

3.3. Hartzaileak

- Udal Elkarteko bost udalerrietako herritarrak.

- Elikagai hondakinak sortzen dituzten merkataritza, hezkuntza eta gizarte jarduerak.

3.4. Jarduketaren deskribapena

Hona hemen susta litezkeen jardueretako batzuk:

- Herritarrei zuzenduriko ekintzak.
- Ikastetxeetan eginiko ekintzak.
- Komunikazio kanpaina (Udal Elkartearen webgunea, sare sozialak, tokiko prentsa, eta abar).

Enpresa lizitatzaileei dagokie proposatutako helburua betetzeko ekintza eraginkorrenak proposatzea. Xehetasun osoz definituko dute jarduera proiektua, baita baliabideak eta langileak ere.

3.5. Beharrezko baliabideak

Diagnosia eta lehenengo eta bigarren ekintza planak aztertu ondoren sortzen diren ekintzen arabera definituko dira. Gutxienez, proiektua hedatzeko elementuak eta informazio oharrak izan beharko ditu, besteak beste.

3.6. Denbora

Gauzatzeko epea 2 hilabetekoa izango da (2024ko irailetik 2024ko urrira).

3.7. Adierazleak

- Herritarrei zuzenduriko ekintza kopurua.
- Ekintzetan parte hartu duen ikastetxe kopurua.
- Sortutako hedapen elementuen kopurua.

4. UDAL BULEGO ETA EKIPAMENDUETAN ERABILERA BAKARREKO ONTZIAK MURRIZTU DITZATEN SUSTATZEA

4.1. Xedea

Ontziratutako ura iturriko urarekin ordezka dadin sustatzea, eta botilako uraren kontsumoari lotutako plastikozko botila hondakinak murriztea, bai eta botilako uraren fabrikazioaren, bilketaren eta azken tratamenduaren inpaktuak murriztea ere, 2023. urtean egindako kanpainan oinarrituta (**4. eranskina**).

4.2. Justifikazioa

Udalerri batzuetan, iturriko uraren ezaugarri organoleptikoak ez dira herritar gehienen gustukoak, eta, ondorioz, gerta liteke handiagoa izatea ur ontziratuaren kontsumoa.

Ur botilak eta txanbilak sortzeak eragina du hondakinak biltzeko zerbitzuan. Ontziok bolumen nabarmena dute, eta azkar betetzen dituzte edukiontziak. Ondorioz, tona bakoitza biltzeko kostuak handiagoak dira beste hondakin frakzio batzuenak baino.

4.3. Hartzaileak

Herritarrak eta udaleko eta udal elkarteko langileak.

4.4. Jarduketaren deskribapena

Ekintzak botilako ura erostearen ordezteko mekanismoak sustatzea aurreikusten du, eta, hala, sortutako ontzi kopurua murriztea ahalbidetuko duten sistemen alde egitea. Zehazki, udal eraikinetan iturriko ura kontsumitu dadin sustatzea du helburu.

Enpresa lizitatzaileei dagokie proposatutako helburua betetzeko ekintza eraginkorrenak proposatzea. Xehetasun osoz definituko dute jarduera proiektua, baita baliabideak eta langileak ere.

4.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzailearen proposamenetik eratortzen diren ekintzen araberakoa izango da, baldintza agiri honetan zehaztutakoa betez.

4.6. Denbora

Gauzatzeko epea 2 hilabetekoa izango da (2024ko irailetik 2024ko urrira).

4.7. Adierazleak

- Egindako ekintza kopurua.
- Sarean zenbat litro ur kontsumitu den zenbatestea.
- Aurreztutako ontzien kantitatea eta pisua kalkulatzea.

5. PUBLIZITATEA ARAUTZEA: ORRI ZORTZIRENAK, ALDIZKARIAK, ETA ABAR.

5.1. Xedea

Publizitateak eta doako prentsa banatzeak sorturiko hondakinak murriztea.

5.2. Justifikazioa

Publizitate dinamikotik eratorritako hondakinak fluxu kuantitatibo garrantzitsua dira —bai postontzietan banatutakoak, bai bide publikoan banatutakoak—. Zenbait azterlanen arabera, pertsona bakoitzeko urtean 20 kg hondakin sortzen dira doako prentsarekin eta publizitatearekin. Publizitate horren zati handi bat nahi gabekoa da, eta zaborretan amaitzen du zuzenean banatzen den egun berean.

5.3. Hartzaileak

Herritarrak eta merkataritza establezimenduak.

5.4. Jarduketaren deskribapena

Jarduera hau garatzeko, ekintza hauek planteatzen dira:

- Komunikazio kanpaina bat egitea. Kanpaina horrek oinarri gisa hartuko luke “Publizitatea? Ez, eskerrik asko” tankerako mezu bat duten itsasgarriak ekoiztea eta banatzea, etxebizitzetako eta establezimenduetako postontzietan jartzeko.
- Udalaren webgunearen eta ohiko beste bide batzuen bidez emango dira onetsiriko neurri berrien inguruko albisteak.

5.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzailearen proposamenetik eratortzen diren ekintzen araberakoa izango da, baldintza agiri honetan zehaztutakoa betez.

5.6. Denbora

Egikaritze epea 2 hilabetekoa izango da (2024ko azaroa – 2024ko abendua).

5.7. Adierazleak

- Banatutako itsasgarri kopurua.

6. ARROPA BERRERABIL DADIN SUSTATZEA

6.1. Xedea

Publizitateak eta doako prentsa banatzeak sorturiko hondakinak murriztea.

6.2. Justifikazioa

Urtaro aldaketak aprobetxatu ohi dira, eskuarki, erabiltzeari utzitako arropa botatzeko edo erabiliko ez dugula pentsatzen dugun arropa baztertzeko. Horrenbestez, garai horietan bereziki sortzen dira ehun eta oinetako hondakinak, hautaketa horren ondorioz.

Pertsona bakoitzak urtean 7 eta 10 kg arropa edo ehun hondakin sortzen ditu.

Botatako arroparen eta oinetakoen parte handi bat berrerabiltzeko moduan egoten da egokitu ondotik (garbitu, josi, eta abar). Horri esker, murriztu egiten da ehun hondakinen kantitatea, eta aurreztu egiten da halakoak fabrikatzeko erabilitako uraren eta energiaren kontsumo baliokidea.

6.3. Hartzaileak

Herritarrak eta merkataritza jarduerak.

6.4. Jarduketaren deskribapena

Zenbait neurri proposatzen dira:

- Arropen erabilera arduratsuari buruz kontzientzia pizteko kanpaina bereziak eta ehun hondakinen bilketa urtaro aldaketetan: komunikazio kanpaina bat, arropa gaika biltzea eta berrerabiltzea sustatzeko, eta eskuragarri dauden bilketa puntuen berri ematea.
- Dendak arropa biltzeko gune gisa sustatzea: bilketa puntuak ugaritzeak eta haien hurbiltasunak lotura zuzena du benetan bildutako hondakin kantitatearekin.
- Arropa etxez etxe biltzeko proba pilotu bat egitea. Hondakinak etxez etxe biltzeko arrazoia da hondakinen ekoizleak (kasu honetan, herritarrak) jatorrian bereizten dituela frakzioak, baina, edukiontzira eraman beharrean, zuzenean biltzen dituztela hondakinak sortzen diren puntuan bertan. Sistema horrek erraztu egiten du gertuan eta banan-banan biltzea, eta hobetu egiten du hondakinaren kalitatea.
- Proba pilotua baloratzea eta behin betiko ezarriko den aztertzea, eta, ondo irudituz gero, zabaltzea.
- Biniloak: gutxienez 6 binilo unitate inprimatu eta jarriko dira, gehienez 200 x 200 cm-koak, bilketa zerbitzuko kamioietan jartzeko.

6.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzailearen proposamenetik eratorritako ekintzen araberakoa izango da, baldintza agiri honetan zehaztutakoa betez. Gutxienez, ekimena herritarren artean zabaltzeko komunikazio baliabideak jaso beharko ditu.

6.6. Denbora

Egikaritze epea 4 hilabetekoa izango da (2024ko irailetik 2024ko abendura).

6.7. Adierazleak

- Bildutako ehun produktuen kantitatea (jatorria bereizita: bide publikoko edukiontziak, etxez etxeko bilketa, establezimenduetan jasotakoa).
- Berrerabilitako ehun hondakinen kantitatea kalkulatzea.
- Etxez etxe eginiko zerbitzuen kopurua.
- Hautemandako gorabehera kopurua eta mota.

7. EKITALDI PUBLIKOAK GIROTZEA

7.1. Xedea

Jaietan, azoketan, azoka txikietan eta ekitaldi publikoetan egiten diren ingurumen jardunbide egokiak zabaltzea eta normalizatzea, ekitaldi jasangarriak egiteko 1. fasean idatzitako jardunbide egokien eskuliburuan oinarrituta (**5. eranskina**).

7.2. Justifikazioa

Udal Elkarteko udalerrietan egiten diren jai eta ekitaldi askotan edariak eta janaria zerbitzatzeko ontziak, edalontziak, mahai tresnak edo platerak erabiltzen dira, eta horien bizitza baliagarria ekitaldira bakarrik mugatzen da. Ekitaldia amaitu ondoren, hondakin bihurtzen dira pieza horiek.

Bestalde, hondakinak birziklatzea eta espazioak garbi edukitzea indartu beharreko alderdiak dira ekitaldioi dagokienez.

7.3. Hartzaileak

- Udalak.
- Askotariko formatuetan jarduerak antolatzen dituzten erakundeak (publikoak zein pribatuak).

7.4. Jarduketaren deskribapena

Ingurumen jardunbide egokiak zabaltzeko eta normalizatzeko, hauxe proposatzen da:

- Jai eta herri ekitaldiak edo bestelako ekitaldi publikoak (inpaktuagatik, publikoagatik eta abarrengatik garrantzitsutzat jotzen direnak) antolatzen parte hartzen duten eragileak antolatzea eta koordinatzea, hondakinak prebenitzeko helburuak eta jarduerak zehazteko.
- Ekitaldien ingurumen arduradunen talde bat definitzea, eta aldez aurretik eta ekitaldi horiek egin bitartean informazio eta antolaketa espazioak definitzea, adostutako jarduerak betetzen direla bermatzeko.

7.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzailearen proposamenetik eratortzen diren ekintzen arabera zehaztuko dira, baldintza agiri honetan jasotakoa betez. Proposamen horrek, gutxienez, jardunbide egokien eskuliburua zabaltzea eta ekitaldietako erakundeekin koordinatzea jasoko du.

7.6. Denbora

Egikaritze epea 4 hilabetekoa izango da (2024ko irailetik 2024ko abendura).

7.7. Adierazleak

- Girotutako ekitaldien kopurua.
- Eskuliburua udal prozeduretan edo ordenantzetan txertatu duten udalak.
- Lotutako hondakin-prebentzioa.

8. ETXEKO HONDAKINAK BIRZIKLATZEKO KANPAINA, HERRITARREI ZUZENDURIK

8.1. Xedea

Helburua da herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko kanpaina bat gauzatzea, etxeko hondakinak jatorrian bereiztea zabaltzeko eta indartzeko, guztia ere Europar Batasunak birziklatzearen alorrean ezarritako prestaketa mailetara iristeko.

Zerbitzuaren barruan sartzen dira:

- Entrega daitezkeen hezkuntza eta dibulgazio materialak (bitarteko digitalak barne) prestatu, ekoitzi, eskuratu, hornitu, ekarri eta banatzea, jarduerak egiteko beharrezkoak diren heinean.
- Onlineko komunikazio estrategia zabaldu bat abian jartzea, aurreko kanpainetako informazioa Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean, sare sozialetan eta arreta kanaletan eskuragarri dagoenarekin lotzeko eta bateratzeko.
- 9.5 atalean deskribatutako informazio eta sentsibilizazio ekintzak inplementatzea, barnean harturik beharrezko materialak banatzea eta/edo ekoiztea, eskuratzea eta hornitzea.
- Kanpainaren jarraipena eta ebaluazioa, bai eta aurreikusitako sentsibilizazio helburuak lortzeko neurri zuzentzaileak ere.
- Preskripzio teknikoen baldintza agiri honetan deskribatzen diren ekintza guztiak inplementatzeko beharrezko baliabide logistiko guztiak, barnean harturik aurreko kanpainetako edo kanpaina honetako soberakinak biltegiratzea, lekuz aldatzea, banatzea eta garraiatzea —kontratuaren hasieran, bitartean eta amaieran—, baldintza agirian adierazten den moduan eta Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek zehazten dutenari jarraikiz.

Sentsibilizazio kanpainak helburu hauek lortu beharko ditu herritar guztientzat:

Komunikazio helburu orokorrak:

- Urola Kostako Udal Elkarteak hondakinen inguruan eskaintzen dituen politiken eta zerbitzuen kudeaketaren inguruko xehetasunak ematea herritarrei, bai eta egiten diren ekimen, kanpaina eta jardueren berri ematea ere.
- Zerbitzuak berak eta herritarren bizi kalitateari egiten dioten ekarpena ikusaraztea eta balioestea, bai eta herritarren lankidetzaren beharra nabarmentzea ere. Arreta berezia jartzea garbiguneen eta birziklatze etxolen zerbitzuetan.
- Berrerabiltzeko eta birziklatzeko ohiturak areagotzea. Atxikita daude 2018-2023 aldiko bilketa datuak (**6. eranskina**).
- Sare sozialetan Udal Elkartearen eta kanpainaren komunikazio kanaletarako trafikoa sortzea, eta jarraitzaileen komunitatea handitzea eta fidelizatzea.

Helburu bereziak:

- Hondakinak kudeatzeari lotutako lehentasunak ezagutaraztea, ingurumen legedian eta indarrean dagoen araudian jasotako helburuak betetzeko, eta eskualdeko ingurumena hobetzen laguntzea, herritarren artean hondakinen sorrera murriztea eta jatorrian bereiztea sustatuz.

- Eskualdeko hondakinak kudeatzeko sistema hobeto ezagutzea, edukiontziak jartzeko, biltzeko, garraiatzeko eta tratatzeko faseetan, herritarrak motibatzeko eta inplikatzeko eta, hala, behar bezala erabil ditzaten. Hau da, gogorarazi egin behar da zer hondakin frakzio botatzen den etxeko edo kaleko edukiontzi bakoitzean (organikoak, ontzi arinak, errefusa, papera eta kartoia, beira, arropa eta oinetako erabiliak, landare olioa, pilak...), edo garbiguneetan edo birziklatzeko etxoletan botatzen diren hondakinak, baita bereizketa horren azken helburua eta zalantzak argitzeko bideak ere.
- Eskualdean bildutako hondakinen kantitatea eta kalitatea hobetzea, helburu gisa harturik berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizazioa. Hala, kalitate handiagoko produktu birziklatuak lortuko dira.
- Herritarren eskura jarritako elementuei buruzko informazioa ematea (edukiontziak, garbiguneak, birziklatzeko etxolak...).
- Ontzi arinen edukiontzian bildutako hondakinen kantitatea eta kalitatea hobetzea. Helburu horri lotutako ekintza Ecoembesek gainbegiratu eta onartu beharko du.
- Beirazko ontzien edukiontzian bildutako hondakinen kantitatea eta kalitatea hobetzea. Helburu horri lotutako ekintza Ecovidriok gainbegiratu eta onartu beharko du.
- Zalantza zehatzak webgunearen eta posta elektronikoaren bidez argitzeko bide zuzena ematea.
- Hondakin bilketaren emaitzak itzultzea, eta, horretarako, herritarrei bereizketaren hobekuntzan duten inplikazioa eta ahalegina eskertzea, eta bat egitera edo behar bezala egiten jarraitzera animatzea.
- Etxeko, merkataritzako eta industriako hondakinen bereizketan herritarren partaidetza aktiboa eta arduratsua sustatzea.
- Hondakinak kudeatzeko arloan herritarren iradokizunak eta ekarpenak jasotzea.

8.2. Justifikazioa

Funtsezkotzat jotzen da ingurumenari buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpaina bat egitea, hurbiltasun ekintzen bidez eta komunikazio teknologia berrien laguntzarekin. Kanpaina horri esker, alde batetik, Urola Kostan sortutako hondakinak berrerabiltzearen eta birziklatzearen emaitzak hobetzen jarraitu ahal izango da, eta hobeto ezagutu ahalko dira gaikako bilketa zerbitzuak, garbiguneak, birziklatze etxolak eta, oro har, Udal Elkarteak garatzen duen edozein ekimen.

Enpresa adjudikaziodunak garatu beharreko jardueretarako behar diren argudioak eta materialak landu beharko ditu, zeinak herritarrei helarazteko kanpainan erabili beharko baitira, baita webguneko eta sare sozialetako edukietan ere.

Adjudikaziodunak egokien jotzen duen proiektua proposatu ahal izango du bere eskaintzan, baldintza agiri honetan ezarritakoaren arabera balorazioa egiteko. Adjudikaziodunak landu beharreko argudioak eta behin betiko edukiak Udal Elkarteko Zerbitzu Teknikoek onartu beharko dituzte aldez aurretik.

8.3. Hartzaileak

Herritarrak, oro har.

8.4. Jarduketaren deskribapena

Herritarrak izango dira, oro har, kanpaina honen hartzaileak. Sare sozialen bidez emango da informazioa, eta askotariko formatuetan diseinatuko dira informazio eta dibulgazio ekintzak; era berean, webgunerako edukiak prestatuko dira eta posta elektronikoz jasotako kontsultei erantzungo zaie.
Hauek dira biztanleria horrentzat aurreikusitako ekintzak:

a) Kanpainaren eguneratze, mantentze eta zabaltze lanak egitea: webgunea, sare sozialak eta kontsulta mezuak kudeatzea eta komunikazio estrategia zabaltzea.

Gutxienez, lan hauek egin behar dira:

- Mantentze, eguneratze eta kudeaketa lanak egitea Udal Elkarteko Ingurumen Zerbitzuaren webgunean, sare sozialetan eta posta elektronikoan.
- Kanpainari lotutako sare sozialetako kanalak kudeatzea eta dinamizatzea (Twitter, Instagram, Facebook).
- Birziklatzearekin eta hondakinekin lotutako eduki digitala sortzea (Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren jomugak, EBko ekonomia zirkularreko paketea edo ingurumenarekin lotutako beste batzuk...).
- Komunikazio estrategia bat abian jartzea, aurreko kanpainetako informazioa Udal Elkartearen webgunearekin, sare sozialekin eta arreta kanalekin lotzeko.

b) Informazio eta dibulgazio materialak

Gutxi gorabehera, ekintza berriak egiteko, beharrezkotzat jotzen da material hauek ekoiztea, ekintzek dituzten beharren arabera. Horiek guztiek kanpaina honetarako beharrezko diseinua, leloa eta edukiak jasoko dituzte:

- Eduki digitala.
- Biniloak: gutxienez 6 binilo unitate inprimatu eta jarriko dira, gehienez 200 x 200 cm-koak, bilketa zerbitzuko kamioietan jartzeko.

Aurreko kanpainetan erabilitako materialen ereduak Urola Kostako Udal Elkartearen Zerbitzu Teknikoek emango dituzte, eta, beharrezkoa bada, kanpaina honetara egokitu eta eguneratuko dira.

c) Parte hartzeko inkesta

Parte hartzeko inkesta bat egingo da gutxienez. Horren helburua izango da zehaztea ekintzaren esperientziarekiko gogobetetze maila, landutako gaiari buruzko ezagutzak, izan daitezkeen gorabeherak, hobetu beharreko arloak eta iradokizunak.

Ekintza horren barruan sartzen da inkesta egitea: edukia eta diseinua, e-mailak bidaltzea, inkestak inprimatzea eta emaitzak neurtzea eta aztertzea.

Inkesta paperean, online, posta elektronikoz edo telefonoz zabaldu ahal izango zaie parte hartu nahi dutela adierazi duten eta beren datuak eman dituzten herritarrei, baita eskura dauden datu baseetan ageri direnei ere. Kanpainako ekintzaren bat jasotzen duten pertsonek edo kolektiboek ere parte hartu ahal izango dute, eta webgunearen bidez, telefonoz eta sare sozialetatik emango zaie erantzuteko aukera.

Gutxienez 2 jasoaldi egingo dira kontratuaren hasieran eta amaieran, eta datu horiek txosten analitiko batean ustiatuko dira.

8.5. Beharrezko baliabideak

Enpresa lizitatzailearen proposamenetik eratortzen diren ekintzen araberakoa izango da, baldintza agiri honetan zehaztutakoa betez.

8.6. Denbora

Egikaritze epea 4 hilabetekoa izango da (2024ko irailetik 2024ko abendura).

8.7. Adierazleak

Enpresa adjudikaziodunak diseinatuko du kanpaina osoan zehar egingo den etengabeko ebaluazio eta jarraipen sistema.

Ebaluazioa kanpainaren zenbait unetan egingo da: ekintzen arabera, aldez aurreko ebaluazio bat egin ahal izango da (aldez aurreko test bat) xede taldeen egoerari eta aldez aurreko ezagutzari buruz; ebaluazioa egiten den bitartean (behar izanez gero, ekintzak egokitzeko edo hobetzeko, eta, horrela, planteatutako helburuak betetzen direla ziurtatzeko); eta amaieran, emaitzak ebaluatzeko. Egindako inkesta guztietan lortutako emaitzak aztertuko dira.

Lortutako emaitzei zorroztasuna emango dieten teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiliko dira, eta, eginkizun horretarako, egokitzat jotzen bilketa tresnak eta txantiloiak erabiliko dira datuak eskuratzeko, eta, hala, kanpaina ebaluatzeko.

Xede horrekin, adierazle batzuk proposatuko dira jarduera bakoitzerako, xede publikoaren arabera, baina ebaluazio hori beste adierazle batzuekin ere osatuko da, kanpainaren eraginkortasuna edo inpaktua ezagutu ahal izateko zenbait alderdiri dagokienez:

- Biztanleriaren motibazio, inplikazio eta partaidetza maila.
- Urola Kostako Udal Elkartearen bilketa sistemari buruzko kanpainaren onarpen maila.
- Hondakinen kudeaketari edo espazioaren zaintzari buruz herritarrek duten portaeran, jarreran edo ezagutzan izaniko aldaketak.
- Kudeaketa emaitzak ebaluatzea (Udal Elkarteko Ingurumen Zerbitzuak emandako datuekin), kanpainako ekintzek proposatutako helburuak zenbateraino lortzen dituzten adierazteko.
- Dibulgazio materialak ebaluatzea (eskuragarritasuna, onarpen maila eta dibulgazio materialen erabilgarritasuna).
- Kanpainaren ebaluazio digitala.

II. TITULUA. LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA LANEN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA

9. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko langileak, baliabide materialak eta teknologikoak izango ditu kontratuak irauten duen bitartean, bai eta deskribatutako kanpainako lanen izaera eta beharretara egokitutako antolaketa ere, behar bezala betetzeko baldintza agiri honetako eskakizunak eta bere eginbeharrak.

9.1. Langileak

Adjudikaziodunen eskaintzan sartutako lanak egiteko behar diren langile guztiak esleipendunak berak kontratatuko ditu. Ez da izango inolako lan loturarik kontratua egikaritzeko langileen eta Urola Kostako Udal Elkartearen artean.

Beraz, Udal Elkarteak ez du izango inolako erantzukizunik adjudikaziodunaren eta haren langileen arteko lan harremanen gainean.

Adjudikaziodunak koordinazio eta jarraipen bilerak egingo ditu aldian-aldian Urola Kostako Udal Elkartearen arduradunekin. Adjudikaziodunak lokalizatzeko moduan egon beharko du egunero posta elektronikoz edo telefonoz.

9.2. Baliabide materialak

Adjudikaziodunak behar adina baliabide eta azpiegitura izango ditu lanak egiteko (bulegoak, sistema informatiko finkoak eta mugikorrak, jantziak, eta abar).

Eskaintzan zehazturik agertuko dira kontratu hau gauzatzeko eskura jartzen dituen bitartekoak, baita haien ezaugarri nagusien deskribapena ere (kokapena, azalera, banaketa eta ezaugarri nagusiak).

Era berean, adjudikaziodunak beharrezko garraio elementu guztiak eduki beharko ditu, zerbitzuaren beharren arabera.

Enpresa adjudikaziodunak ordainduko ditu beharrezko makineriaren guztizko kostuak (ibilgailuen alokairua, erregaia eta beste ustiapen gastu batzuk).

10. DOKUMENTUAK AURKEZTEA

10.1. Jarduera bakoitzeko memoria indibidualizatuak

Enpresa esleipendunak banakako MEMORIA bat egingo du (word formatuan eta pdf formatuan) **kontratu honen xede diren lan eta/edo jarduera bakoitzerako**, ezarritako ekintzen eraginkortasuna baliozkotzeko ondorioekin: lortutako helburuak, kualitatiboak zein kuantitatiboak, eta erabilitako adierazleak.

Memoria hori jarduera edo jarduketa zehatza amaitutakoan aurkeztuko da, gehienez 10 egun balioduneko epean, jarduera bakoitzean erabilitako dibulgazio-material guztiekin batera (pdf editagarrian eta jpg formatuan edo antzeko beste formatu batean).

10.2. Azken laburpen exekutiboa

Kontratua 2024ko abenduan amaitu ondoren, gehienez ere hilabeteko epean, eta gehienez 2025eko urtarrilaren 31rako, enpresa/pertsona kontratistak **LABURPEN EXEKUTIBOA** (word eta pdf formatuetan)

eta bisuala (power-point formatuan) egingo ditu euskaraz eta gaztelaniaz, ondoren zabaltzeko, eta jarduera guztien emaitzen eta lortutako lorpenen berri emango du.

Dokumentazio hori entregatzeko epeak kontratua gauzatzeko epe partzialak dira.

TXOSTENA

2022ko martxoaren 19a

Elikagaien xahuketaren diagnosia Urola Kosta eskualdean



Elikagaien xahuketaren diagnosia Urola Kosta eskualdean
Txosten hau Urola Kostako Udal Elkarteak egindako enkargua da.

Egileak
Míriam Galindo (ENT)
Edurne Simón (IZADI 21)

info@ent.cat
www.ent.cat

ENT Environment and Management enpresak ISO 9001:2015 eta ISO 14001:2015 arauen araberako kudeaketa-sistemen ziurtagiriak ditu. Informazio gehiago: HEMEN

ENT environment & management
Hurrengoaren marka erregistratu bat da:
Serveis de Suport a la Gestió, S.L.
Josep Llanza, 1-7, 2n 3a
08800 Vilanova i la Geltrú

@ENTmediambient
ENTmediambient
ENT Environment & Management
ENT environment & management

AURKIBIDEA

TAULAK 3

1. SARRERA 4
2. ARAU-ESPARRUA 5
3. DIAGNOSIA 7
    3.1. MATERIA ORGANIKOAREN SORRERA-FLUXUEN ANALISIA 7
    3.2. LANDA-LANA 10
    3.3. LANDA-LANAREN ONDORIOAK 11
    3.4. ELIKAGAIEN XAHUKETAREN KUANTIFIKAZIOA 12
4. EKINTZA-PLANA 14
    4.1. EKINTZEN PROPOSAMENA 14
    4.2. KRONOGRAMA 24
    4.3. ONDORIOAK 25
5. ERREFERENTZIAK 26
6. ERANSKINA 27

TAULAK

Taula 1. Hondakin-sorrera globalaren eta hondakin organikoenen bilakaera 7

Taula 2. Egungo merkataritza-jardueren zerrenda 7

Taula 3. Egungo merkataritza-jardueren zerrenda 10

Taula 4. Elikagaien xahuketa elikakateko fase bakoitzean Urola Kostan 13

1. SARRERA

FAOren arabera (2014), elikagaien xahuketa hasiera batean gizakiak kontsumitzeko ziren elikagai seguru eta nutritiboak ukatu edo beste modu batean erabiltzea (eta ez elikadurarako) da elikadurako hornikuntza-kateetan zehar, lehen mailako ekoizpenetik azken kontsumitzailera arte. Elikagaien galeratik bereizten da (elikagaiak murriztea kopuruan eta kalitatean), hori eragiten dituzten arrazoiak desberdinak direlako.

FAOren datuen arabera, urtean ekoitzitako elikagaien herena galdu edo xahutzen da giza kontsumoan. Europa mailan, zenbatesten da urtean 89 milioi tona elikagai galdu eta xahutzen direla. Euskadin, urteko elikagaien xahuketa 350.000 tonakoa da, hau da, 160 kg pertsonako urtean.

Urola Kostako Udal Elkartearen hondakinen prebentzio-planak prebentzioaren arloko ibilbide-orria finkatzen du, eta hainbat ekintza zehazten ditu udal-hondakinen sorrera murrizteko hura osatzen duten udalerrietan. Prebentzio-plan horretan, elikagaien xahuketa murriztea da landu beharreko arloetako bat. Arlo horretan garatu beharreko ekintza espezifikoak zehaztu ahal izateko, aldez aurretik Udal Elkartearen egungo egoera ezagutu behar da elikagaien xahuketari dagokionez, eta hori da egin den diagnosiaren helburua.

2. ARAU-ESPARRUA

Europakoa

2015ean, NBEk Garapen Jasangarrirako Helburuak argitaratu zituen, eta 12.3 helburuak erdira murriztu nahi du biztanleko elikagaien xahuketa txikizkako salmentaren eta kontsumitzailearen mailan. Halaber, elikagaien galera murriztu nahi du ekoizpen- eta hornikuntza-kateetan zehar.

Hondakinei buruzko 851/2018 Zuzentarauak helburu gisa finkatzen du elikagaien galerak murriztea ekoizpen- eta hornikuntza-katean zehar, bildu osteko galerak barne, eta bi murrizketa-helburu kuantitatibo finkatzen ditu, % 30 2025ean eta % 50 2030ean.

Europako Itun Berdea 2019an onetsi zen, eta EBren konpromiso bat jasotzen du: erdira murriztea pertsonako elikagaien xahuketa txikizkako salmentan 2030ean. Kontsumitzaileen mailan, helburuak Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plan berrian (2020), “Baserritik Mahaira” estrategian (2020) eta Biodibertsitateari buruzko Estrategian (2020) aurreikusitako politika eta tresnen bidez zehaztuko dira.

Estatukoa

Estatu-mailan, “Elikagai gehiago, xahuketa gutxiago” estrategia dago abian; Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren ekimena da, eta haren helburua da kontsumo-kateko eragile guztiei laguntzea, izan banaka edo erakunde baten barruan, iritziak, ezagutzak eta esperientziak ematen eta lankidetzan aritzen.

2021eko urrian aurkeztu zen Espainian elikagaien xahuketari aurre egiteko legearen aurreproiektua, eta haren bidez jardunbide egokien eredu bat finkatu nahi da, elikagaien xahuketa ekiditeko elikakate osoko ekintzen bidez, jatorritik (landatzeko prozesua) etxe eta jatetxeetako kontsumo-ohituretara.

Autonomikoa

Erkidego-mailan, Euskadik 2018aren hasieran zehaztu zuen Xahuketaren aurkako Euskadiko Estrategia, eta hauek dira horren helburuak:

- Elikagaien xahuketa ekidin eta murrizteko jarduketa zehatzak sustatu eta babestea ekoizpen-, hornikuntza- eta kontsumo-kate osoan.
- Elikagaien soberakinak berrerabiltzea elikadurako segurtasun-bermeekin.
- Elikagaien soberakinei balioa ematea animalien elikaduran erabiltzeko.
- NBEren 12.3 Garapen Jasangarrirako Helburuari erantzutea: elikagaien xahuketa murriztea.

Estrategia horretatik datoz Euskadiko elikagaien xahuketaren aurkako Jarduketa Plana eta Elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko plataformaren sorrera; azken horren xedea da Euskadiko administrazioei aholkularitza eta laguntza ematea Jarduketa Planean adierazitako helburuak bete ahal izateko beharrezko politikak finkatzeko.

Horrekin batera, Euskadik ere baditu helburuen artean elikagaien xahuketa jasotzen duten hainbat plan eta programa. Horietako batzuk da Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa, elikadura seguru, osasuntsu, singular eta jasangarri baten alde lan egiten duena, Ingurumenaren IV. Esparru Programa

2020, elikadura zirkularra jasotzen duena lehentasunezko arlo gisa, eta Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana.

Tokikoa

Eskualde-mailan, Udal Elkarteak hondakinen prebentzio-plan bat du, eta 2021 eta 2030 arteko aldian garatu beharreko hainbat ekintza finkatzen ditu, sortutako udal-hondakinak murrizteko helburuarekin. Planean markatutako helburuen artean, lehentasunezko gai gisa gehitzen da elikagaien xahuketa, eta elikadura-soberakinak aprobetxatzeko lankidetza-akordioen ezarpena sustatzen da.

3. DIAGNOSIA

Egindako diagnosia 3 fasetan egituratu da; lehen fasean materia organikoaren sorreran eskuragarri dauden datuak aztertu dira; bigarren fasean sektore jakinetako elikagaien xahuketaren datu errealak lortzeko landa-lana egin da; eta, hirugarren fasean, Udal Elkarteko elikagaien xahuketa kuantifikatu da, aurreko bi faseen emaitzetan oinarrituta kalkulatuta.

3.1. MATERIA ORGANIKOAREN SORRERA-FLUXUEN ANALISIA

Materia organikoaren sorrera-fluxuen analisia bi mailatan egin da. Alde batetik, Udal Elkarteak eskuragarri zituen sorrera-datuak aztertu dira, baita elikagaien kontsumo-kateko fase bakoitzeko jarduerei buruzko datuak ere. Eta, bestetik, elikagaiei xahuketari buruz argitaratutako bibliografia aztertu da, erkidego, estatu eta Europa mailan, bai xahuketaren kuantifikazioari dagokionez balio-kateko mailetan eta bai kuantifikazio-metodologiei dagokienez.

Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten 5 udalerrietan ekoitzitako hondakin organikoen sorrera-datuetan oinarrituta, 2020an guztia 4.265,40 tona hondakin organiko sortu ziren. Hondakinen % 78,9 bide publikoko edukiontzietan bildu ziren, eta horiek etxebizitzek eta merkataritza-jarduera batzuek erabiltzen dituzte. Gainerako % 21,1 denden bilketa-zerbitzu espezifikoko hondakinak dira.

Taula honek azken 8 urteetako hondakinen sorrera-datuak jasotzen ditu, bai sorrera globalari eta bai hondakin organikoen sorrera espezifikoari dagokienez. Xehetasunez jasotzen dira balio absolutua eta biztanleko balio erlatiboa.

1. taula. Hondakin-sorrera globalaren eta hondakin organikoenen bilakaera

		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Organikoa	Guztira (t)	1.806,02	1.874,60	1.875,34	1.849,04	1.825,76	3.940,78	4.583,04	4.265,40
	Kg/biz.	42,36	43,51	43,19	42,34	41,63	89,33	103,41	96,68
Globala	Guztira (t)	19.713,40	20.012,20	21.503,46	21.957,27	22.285,84	22.417,64	22.591,78	21.651,70
	Kg/biz.	462,39	464,50	495,19	502,78	508,21	508,18	509,77	496,86

Iturria: geuk egina, Urola Kostako Udal Elkarteak emandako datuetatik abiatuta.

Udal Elkartearen datuen arabera (2020ko poltsa tipoaren karakterizazioa), hondakin organikoek sortzen diren udal-hondakin guztien % 40,02 ordezkatzen dute. Hondakin organikoen urte bereko karakterizazioa ere badago, eta, haren arabera, % 93,85 hondakin organikoak dira, baina ez da zehazten zer dagokion elikagaien xahuketari.

Udal Elkartea osatzen duten udalerrietako merkataritza-jarduerei dagokienez, guztira 333 jarduera daude, eta haien tipologia zehazten da2 taulan. Ikus daitekeen moduan, jarduera ohikoenak tabernak (113), jatetxeak (53) eta supermerkatuak dira (19).

2. taula. Egungo merkataritza-jardueren zerrenda

Jarduera-tipologia	Jarduera-kop.
Hizkuntza-akademia	1

Jarduera-tipologia	Jarduera-kop.
Bidaia-agentzia	5
Landa-turismoa	1
Aterpetxea	1
Lantaldearen biltegia	2
Aholkularitza fiskala	1
Tributu-aholkularitza	1
Udaletxea	6
Bankua	1
Taberna	113
Taberna/jatetxea	9
Taberna/denda	1
Bazarra	12
Kafetegia	28
Kafetegia/okindegia	2
Harategia	11
Kultur etxea	3
Kultura-zentroa	1
Eguneko zentroa	4
Estetika-zentroa	2
Osteopatia-zentroa	1
Osasun-zentroa	3
Sarraila-denda	1
Garagardotegia	2
Ziberkafea	1
Klub nautikoa	1
Aseguru-konpainia	1
Kooperatiba	1
Correos	2
Diskoteka	1
Egunkarien editorea	1
Elektrikaria	2
Ertzaintza	1
Eskola	24
Estankoa	3
Elikadura-ongarrien fabrika	1
Kontserba-fabrika	1
Farmazia	9
Burdindegia	2
Loradenda	4
Fruta-denda	13
Fundazioa	1
Gasolindegia	2
Gaztelekua	1
Gaztetxea	1
Hanburgesategia	1
Izozki-denda/kafetegia	5
Belar-denda	4
Ostatua	1
Hotela	12
Inprimategia	2
Higiezinen agentzia	3
Instalazio elektrikoak	2
Barne-diseinua	1
Jostailu-denda	4
Liburu-denda	2
Telefonotegia	3
Logopeda	1

Jarduera-tipologia	Jarduera-kop.
Merkatua	1
Mertzeria	5
Museoa	1
Nutrizionista	1
Administrazio-bulegoa	1
Turismo-bulegoa	3
Bulegoak	1
Optika	4
Okindegia	14
Paper-denda	5
Parafarmazia	1
Gozotegia	5
Ile-apaindegia	4
Pentsioa	2
Lurrin-denda	2
Arrandegia	10
Pintura-denda	2
Pizzeria	7
Udaltzaingoa	2
Kiroldegia	2
Sorospen-postua	1
Kioskoa	1
Adinekoen egoitza	3
Jatetxea	54
Jolas-aretoa	1
Catering-zerbitzua	1
Sagardotegia	4
Elkarte gastronomikoa	4
Supermerkatua	19
Taberna	1
Tailer mekanikoa	2
Beilatokia	1
Alfonbra-denda	1
Elikadura-denda	19
Artikulu ortopedikoen denda	1
Haurtxoentzako artikuluen denda	1
Edertasun-denda	1
Bizikleta-denda	4
Gozoki-denda	6
Koltxoi-denda	1
Produktu izoztuen denda	1
Gortina-denda	1
Apainketa-denda	3
Kirol-denda	5
Etxetresna elektrikoen denda	5
Fruta eta barazkien denda	1
Informatika-denda	5
Urdaiazpiko-denda	1
Lentzeria-denda	4
Loteria-denda	2
Mugikorren denda	4
Erreformen eta barne-apainketen denda	1
Opari-denda	2
Arropa-denda, etxeko arropa	37
Surf-denda	5
Te-denda	1
Leiho-denda	1

Jarduera-tipologia	Jarduera-kop.
Delicatessen-denda	7
Albaitaria	1
Ardotegia	4
Zapata-denda	12
Zapata-denda/poltsa-denda	1
Orokorra guztira	630

Iturria: geuk egina, Urola Kostako Udal Elkarteak emandako datuetatik abiatuta.

Industria-mailan, eskualdean guztira lehen mailako ekoizpenean eta elikagaien eraldaketan lan egiten duten 37 enpresa daude. Taula honetan jardueraren araberako zerrenda jasotzen da.

3. taula. Egungo merkataritza-jardueren zerrenda

Jarduera	Kopurua
Fruta eta barazkien handizkako salmenta	3
Edarien handizkako salmenta	2
Arrainen, itsaskien eta beste elikagai batzuen handizkako salmenta	3
Haragia prozesatu eta kontserbatzea	1
Haragi- eta hegazti-produktuen prestaketa	1
Arrain-kontserben fabrikazioa	6
Fruta eta barazkiak prozesatu eta kontserbatzea	1
Olio eta koipeen fabrikazioa	1
Gazten fabrikazioa	1
Ogiaren eta ogi- eta gozogintza-produktuen fabrikazioa	2
Kakaoaren, txokolatearen eta gozogintza-produktuen fabrikazioa	1
Ardoen prestaketa	13
Sagardoaren eta frutarekin irakindako beste edari batzuen prestaketa	1
Haragi eta haragi-produktuen handizkako salmenta	1
Guztira	37

Iturria: geuk egina, Urola Kostako Udal Elkarteak emandako datuetatik abiatuta.

3.2. LANDA-LANA

Eskualdeko jarduera ekonomikoetan gertatzen den xahuketa errealari buruzko informazioa edukitzeko xedearekin, aurreko fasean lortutako datuak osatzeko eta eskualdeko egungo elikagaien xahuketa kuantifikatzen laguntzeko, landa-lana egin da.

Landa-lana parte-hartze saioetan eta/edo eskualdeko gako-eragileekiko aurrez aurreko elkarrizketetan oinarritu da; horrez gain, herritar eta enpresentzako galdetegi bat ere egin da, parte-hartze saioetan edo elkarrizketetan parte hartu ez badute. Udal Elkarteak erabaki zuen saioak/elkarrizketak (ikastetxeak izan ezik) Zumaia udalerriko jarduerekin egitea.

Udal Elkarteko talde teknikoarekin batera aurrez aurreko saio eta/edo elkarrizketak egiteko interesgarritzat jotzen ziren eragileen zerrenda egin zen. Guztira zazpi saio planteatu ziren Zumaia udalerrian hondakin organikoak sortzen dituen eragile bakoitzeko, eta saio gehigarri bat Udal Elkartearen egoitzan, sortzaile handitzat jotzen diren enpresekin. Sektore hauek aukeratu ziren:

- Tabernak

- Jatetxeak

- Ikastetxeak

- Fruta-dendak

- Supermerkatuak

- Hotelak

- Elkarte gastronomikoak

- Beste enpresa batzuk (prestatutako elikagaiak, lantegiak, etab.).

Eragile horiek 3 sektoretan banatu ziren: ikastetxeak, ostalaritzako establezimenduak eta elikadura-dendak.

Hau izan da erabili den metodologia Urola Kosta eskualdean elikagaien xahuketari buruzko azterketa kualitatiboa egiteko:

- Aurrez aurreko bilerak egitea eskualdeko hainbat sektorerekin.
    - Ikastetxeak, 2021eko azaroaren 3a. Deitutako ikastetxeak aurten Udal Elkarteak sustatzen duen konpostaje-programan parte hartzen dutenak dira.
    - Udal-ordezkariak, 2021eko azaroaren 11. Zumaiako Udaleko kultura- eta turismo-zinegotziek hartu zuten parte.
    - Ostalaritzako establezimenduen ordezkariak, 2021eko azaroaren 11.
    - Elikadura-establezimenduen ordezkariak, 2021eko azaroaren 11.

- Online galdetegiak diseinatzea (4 galdetegi egin ziren sektorearen arabera: bakoitzak euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa ditu).
- Bisitak egitea enpresa interesgarrietara (oinarri gisa online galdetegietan jasotako galderak erabili ziren). 2021eko abenduaren eta 2022ko urtarrilaren artean egin ziren.
- Bisita pertsonalizatuak ostalaritzako establezimenduetara eta elikadura-dendetara: parte hartu zuten Urola Kostako Udal Elkarteko ingurumen-hezitzaileek.

3.3. LANDA-LANAREN ONDORIOAK

Egindako landa-lanaren emaitzen arabera, egunero elikagaiak xahutzen dira ikastetxeetako jangeletan. Gainera, ikastetxeak plataforma bikaina dira kontzientziatzeko; izan ere, ikasleek etxeetan transmititzen dituzte jasotako mezuak, eta herritarren ehuneko handi batera iristen dira. Bi faktore horiek kontuan hartuta, ikastetxeetan elikagaien xahuketa murrizteko eta hari buruz kontzientziatzeko ekintzak ezarri eta azpimarratu behar dira. Ikastetxeen % 85,7 interesatuta daude garatuko diren balizko ekimenetan parte hartzen.

Ostalaritza-sektoreari dagokionez, nahiz eta % 76k adierazi duten ez dagoela ia elikagairik soberan, xahuketa egon badago, elikagaien xahuketaren arloko azterlanek erakusten duten moduan. 5 establezimenduk hartu dute parte, eta % 80k adierazi dute prest daudela parte hartzeko euren establezimenduetan xahututako elikagaien kopurua murrizteko ekimenetan; beraz, sektoreak badu interesa.

Elikadura-denden eskutik lortutako emaitzen arabera, elikagaiak xahutzen dira ekimenak aurrera eraman arren, esate baterako, laster iraungiko diren produktuen sustapenak. Kasuen % 21ean, egunero xahutzen den kopurua 20 kilotik gorakoa da.

Industria-sektoreari dagokionez, bi enpresak hartu dute parte, eta emaitza elikadura-denden sektorearen analisian erabili da.

Egindako landa-lanaren emaitzak dokumentu honen eranskinean jaso dira.

3.4. ELIKAGAIEN XAHUKETAREN KUANTIFIKAZIOA

Europako Batzordeak metodologia komun bat eta gutxieneko kalitate-baldintzak finkatu zituen estatu kideek elikagaien xahuketa neurtzeko. Metodologia horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentaraua osatzen du, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa eta zuzentarau jakin batzuk baliogabetzen dituena. Metodologia horren arabera, kuantifikazioa bereizita egingo da elikakateko fase hauetan:

- lehen mailako ekoizpena
- eraldaketa eta ekoizpena
- txikizkako salmenta eta elikagaiak banatzeko beste modu batzuk
- jatetxeak eta otordu-zerbitzuak
- etxeak

Horrekin batera, fase bakoitzean elikagaien xahuketa kuantifikatzeko hainbat metodologia finkatzen ditu, eta neurketa exhaustiboaren metodologia eta beste metodologia ez exhaustibo batzuk bereizten ditu.

Proiektu honek ez ditu beharreko denbora eta baliabideak izan Europar Batasunak estatu kideei proposatzen dizkien neurketa exhaustiboko metodologiak aplikatzeko. Eskualde-mailan ere ez dago elikagaien xahuketari buruzko datu espezifikorik, ez baita inoiz kuantifikatu Urola Kostako Udal Elkartearen zerbitzuaren bilketa-mailan.

Landa-lanaren harira, xahututako kopuruen zenbatespen kualitatiboa lortu da aztertutako sektoreetan, baina ez da lortu xahuketaren balio kuantitatiborik.

Ondorioz, 4 taulan jasotzen den kuantifikazioa guztira xahututako elikagaiei eta elikakateko fase bakoitzari dagokion ehunekoari buruz argitaratutako erreferentzietan oinarritu da. Erreferentzia horiek HAZI Fundazioak, Aztik, Elikadura Klusterrak eta Ihobek egindako azterlanetik hartu dira, ELIKAREN koordinazioarekin, Xahuketaren aurkako Euskadiko Estrategia diseinatu eta ezartzeko prozesuan zehar. Azterlan horren arabera, urtean 350.000 tona elikagai xahutzen dira Euskadin (gutxi gorabehera 160 kg biztanle eta urteko)[1]. Xahuketaren jatorriak lotura du % 53an etxebizitzetako kontsumoarekin; % 19 industria eraldatzailean gertatzen da, % 12 jatetxeen sektorean, % 11 lehen mailako sektorean eta gainerako % 5 txikizkako sektorean.

Elikagaien xahuketaren balio hori (350.000 tona, 160 kg biztanle eta urteko) Urola Kosta eskualdearen mailara eramanez gero, xahuketa 7.059 tonakoa izango litzateke urtean, aintzat hartuta biztanleria 44.121 pertsonakoa dela (2020). Taula honetan jasotzen da xahuketa elikakateko fase bakoitzean.

[1] Elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko jarduketa-plana. Elika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa.

4. taula. Elikagaien xahuketa elikakateko fase bakoitzean Urola Kostan

Kateko fasea	Xahuketaren %	Tonak urtean [2]
Etxebizitzak	% 53	3741
Industria eraldatzailea	% 19	1341
Jatetxeak	% 12	847
Txikizkako sektorea	% 5	353
Lehen sektorea	% 11	777
GUZTIRA		7.059

Iturria: geuk egina, Urola Kostako Udal Elkarteak eta Elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko jarduketa-planak emandako datuetatik abiatuta.

[2] Kalkuluaren xehetasunak: 7.059 tona * % 53 = 3.741 tona.

4. EKINTZA-PLANA

4.1. EKINTZEN PROPOSAMENA

Egindako diagnosiaren emaitzan oinarrituta, ezarri beharreko hainbat ekintza zehaztu dira, elikagaien xahuketa murrizteko xedearekin Udal Elkartea osatzen duten bost udalerrietan.

1. Ikastetxeetan eta jangela kolektiboa duten ekipamenduetan elikadura-soberakinak biltzeko zirkuitua	
Deskripzioa Jangela kolektiboa duten ekipamenduetan, nahiz eta errazioak ahalik eta gehien doitzen saiatzen diren, prestatutako menuetan beti egiten dira errazioak soberan, eta hondakin gisa kudeatzen dituzte. Zerbitzatu ez diren elikagai guztiak berriro aprobetxa daitezke, eta horrela horiek xahutzea ekiditen da. Horretarako, bildu eta dohaintzan emateko zirkuitu bat definitu behar da. Jarraian, zirkuitu hori finkatzeko gauzatu behar diren ekintzak zerrendatzen dira: - Interesa eta elikagaiak bildu eta banatzeko gaitasuna duen irabazi-asmorik gabeko enpresa batekin harremanetan jarri. Aukera bat izango litzateke Gipuzkoako Elikagaien Bankua; izan ere, elikagaiak biltzeko kanpainak egiten ditu probintzian. - Bilketa Urola Kostako Udal Elkartearen bilketa-zerbitzuak berak egitearen egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu, edo lankidetza-hitzarmen bat sinatu bilketa-zerbitzuaz arduratuko litzakeen erakunde batekin. - Ikastetxeekin edo jangela kolektiboa duten beste ekipamendu batzuekin harremanetan jarri elikagaien xahuketaren arazoa, elikadura-soberakinen aprobetxamenduaren onurak eta zirkuituaren proiektua azaltzeko, jakiteko parte hartzeko interesa duten. - Interesa duten ikastetxe eta ekipamenduetan bisita bat egingo da, eta zehatz-mehatz azalduko zaie zirkuituaren funtzionamendua. Bisita horretan, gainera, elikagaiak gordetzeko erabili behar dituzten ontziak emango zaizkie, eta bertan beharrezko datuak adierazi behar dituzte, besteak beste elikagai mota eta prestaketa- eta izozte-data. - Parte hartuko duten establezimenduek zirkuituan sartzeko dokumentu bat sinatu beharko dute; bertan, sistemaren funtzionamendua zehaztuko da, eta ikastetxearen betebeharrak jasoko dira. Horrez gain, ez dute izango entrega egin ondoren dohaintzan emandako elikagaien gaineko erantzukizunik. Zirkuitua abian jarri ondoren, garrantzitsua da bilketa egiten duen enpresak Urola Kostako Udal Elkarteari beharrezko datuak ematea proiektuaren jarraipena egiteko zehaztutako adierazleak erregistratzeko. Zirkuituaren analisi- eta definizio-prozesua 6. ekintzan sartuko diren merkataritza-establezimenduetako bilketa-zirkuituarekiko modu paraleloan gauzatuko da. Nahiz eta zirkuitu bereiziak izan eta elikagaien tipologia eta bilketa-maiztasuna desberdinak izan, baliteke alderdi batzuk berdinak izatea, esate baterako bilketa-zerbitzuaz arduratuko den erakundea. Horregatik, komenigarritzat jotzen da hori elkarrekin egitea, sinergiak aprobetxatzeko eta erabilitako baliabideen efizientzia maximizatzeko helburuarekin.	
Helburua	Elikagaien xahuketa murriztea jangela sozialetan, soberako menuak aprobetxatuz.
Ezarpenaren arduraduna	Urola Kostako Udal Elkartea edo irabazi-asmorik gabeko erakunde batekin koordinatuta, elikagaiak bildu eta banatzeko.
Ekintzaren hartzaileak	Ikastetxeak, adinekoen egoitzak eta jangela kolektiboa duten beste ekipamendu batzuk.

Denboralizazioa 2023	Gutxi gorabeherako inbertsioa 1.622 €[3]	Ustiaketa-kostua 1.154,29 €[4]	Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia 780 kg urteko[5]
Jarraipen-adierazleak eta emaitzak	Parte hartu duten ikastetxe eta ekipamenduen kopurua Emandako bilketa-zerbitzuen kopurua Bildu eta aprobetxatutako menuen kopurua Elikagai horien onurak jaso dituzten pertsonen kopurua Murriztutako hondakin organikoen pisuaren zenbatespena		

[3] Inbertsio horrek barne hartzen du 0,5 litroko 3.440 ontzi konpostagarriren eta 1 litroko 1.720 ontziren kostua ikastetxe eta eskoletarako (1.154,29 €), baita ikastetxe eta eskoletako bisitak ere (468 €). Ez da sartzen bilketa-logistikatik eratorritako balizko kostua.

[4] Barne hartzen du ontzi konpostagarri berrien erosketa.

[5] Kalkulatu da parte hartzen dutela 6 eskolak (batez bestean 150 erabiltzaile) eta 2 eguneko zentrok (batez bestean 50 erabiltzaile). Aurrezpena kalkulatzeko oinarria 6 kg-koa da erabiltzaile eta urteko (Calculadora de prevenció dels residus, Agència de Residus de Catalunya).

<table>
<tr><td colspan="4">2. Elikadura-soberakinak biltzeko zirkuitua merkataritza-establezimenduetan</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskripzioa
Ekintza hori modu paraleloan planteatu da 1. ekintzarekiko (Ikastetxeetan eta jangela kolektiboa duten ekipamenduetan elikadura-soberakinak biltzeko zirkuitua), bi proiektuen arteko balizko sinergiak aprobetxatzeko helburuarekin.
Nahiz eta txikizkako sektorea den elikagaien xahuketari ekarpen txikienak egiten dizkion elikakateko fasea, arazo hori jorratu eta landu behar da elikakateko puntuetan, esku hartzen duten eragile guztien inplikazioarekin.
Merkataritza-establezimenduei dagokienez, planteatzen da elikadura-soberakinak biltzeko zirkuitu bat finkatzea, denda eta supermerkatuetan botatzen dituzten elikagai guztiak aprobetxatu ahal izateko, kontsumitzeko lehentasunezko data igaro delako, laster iraungiko direlako edo itxura fisiko txarra dutelako, besteak beste. Elikagai horiek, nahiz eta kontsumitzeko moduan dauden, hondakin gisa kudeatzen dira.
Zirkuituak harremanetan jarriko ditu merkataritza-establezimenduak eta elikagaiak bildu eta banatzen dituen erakundea, eta, horri esker, elikagaien xahuketa murriztu ahalko da sektorean.
Jarraian, zirkuitu hori finkatu ahal izateko egingo diren jarduketak deskribatzen dira:
- 5 udalerrietako merkataritza-jarduerak aztertzea, jardueragatik hondakin organikoen ekoizle handitzat jotzen direnak identifikatzeko xedearekin.
- Ebaluatzea bilketa Urola Kostako Udal Elkartearen bilketa-zerbitzuak berak egingo duen, edo izaera sozialeko erakunderen batek. Bigarren kasu horretan, harremanetan jarri beharko da irabazi-asmorik gabeko tokiko erakunde batekin, eta lankidetza-hitzarmen bat sinatu beharko da harekin, elikagaiak biltzeaz eta jangela sozialei edo familia zaurgarriei emateaz ardura dadin. Hitzarmenean erakundearen eta Udal Elkartearen funtzioak zehaztu beharko dira.
- Proiektuan parte hartzeko interesgarritzat jotzen diren establezimenduak hautatzea. Hautatutako establezimenduetan bisita bat egingo du informatzaile batek. Bisitaren helburua da proiektua, elikagaien xahuketarekin lotutako ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-eragina eta soberakinen aprobetxamendutik eratorritako onurak azaltzea, eta, azkenik, jakitea parte hartzeko interesa duten. Parte hartzeko interesa badute, galdetegi txiki bat egin beharko da, jakiteko zein diren soberan dauden elikagai motak, kopuruak eta maiztasuna.
- Parte hartzea erabaki duten establezimenduen parte-hartzea baloratuko da, bisitan jasotako datuetan oinarrituta. Establezimendu horien eta Urola Kostako Udal Elkartearen artean lankidetza-hitzarmen bat finkatuko da, eta bertan alde bakoitzaren betebeharrak zehaztuko dira. Bigarren bisita bat egingo da establezimendu horietara, xehetasunez azaltzeko zirkuituaren funtzionamendua, hitzarmena sinatzeko eta proiektuan parte hartzeko identifikazio-elementu bat emateko.
Hauek izango dira egin beharko diren beste lan batzuk:
- Bilketa-zirkuituan parte hartuko duten establezimenduak identifikatzeko logo bat diseinatu. Logo hori bat etorriko da elikagaien xahuketari buruzko herritarrentzako komunikazio-kanpainak zehaztutako irudiarekin (6. ekintza).
- Proiektuaren jarraipena egiteko adierazle batzuk definitu, erregistroaren bidez zirkuituaren funtzionamendua eta bilakaera ebaluatu ahal izateko eta aprobetxatutako elikagaien datuak izateko. Establezimenduei eta bilketaz arduratuko den erakundeari jakinaraziko zaizkie adierazle horiek, eta azalduko zaie nola kalkulatu behar diren homogeneotasuna bermatzeko parte-hartzaileen artean.
- Jakinarazpen-ekintzaren bat egin, zirkuitua, establezimendu emaileak eta datuak ezagutzera emateko, behin horiek edukitzean. Jakinarazpen horretarako Urola Kostako Udal Elkartearen eta 5 udalen sare sozialak eta/edo webguneak erabil daitezke.</td></tr>
<tr><td>Helburua</td><td colspan="3">Merkataritza-establezimenduetan bota eta hondakin gisa kudeatzen dituzten elikagaien kopurua murriztea, eta horiek aprobetxatzea erakunde sozialei dohaintzan emanez.</td></tr>
<tr><td>Ezarpenaren arduraduna</td><td colspan="3">Urola Kostako Udal Elkartea edo irabazi-asmorik gabeko erakunde sozial batekin lankidetzan</td></tr>
<tr><td>Ekintzaren hartzaileak</td><td colspan="3">Merkataritza-establezimenduak</td></tr>
<tr><td>Denboralizazioa
2022</td><td>Gutxi gorabeherako inbertsioa
1.375 €[6]</td><td>Ustiaketa-kostua
-[7]</td><td>Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia
4,5 t urteko[8]</td></tr>
</table>

[6] Aurrekontuak barne hartzen ditu 50 establezimendutarako bisitak (2 bisita dendako) eta dendentzako ikurren diseinua eta edizioa (50 unitate). Ez da sartzen bilketa-logistikatik eratorritako balizko kostua.

[7] Urteko ustiaketa-kostua bilketa-logistikaren kostua izango litzateke Urola Kostako Udal Elkartea arduratzen bada horretaz, izan zuzenean edo zeharka.

[8] Aurreikusten da 15 dendak hartuko dutela parte, eta aurrezpen-potentziala 300 kg-koa izango da urte eta dendako, gutxi gorabehera (Calculadora de prevenció dels residus, Agència de Residus de Catalunya).

Jarraipen-adierazleak eta emaitzak	Parte hartuko duten establezimenduen kopurua. Bildutako elikagaien kopurua (tipologiaren arabera). Berriro aprobetxatutako elikagai-kopurua. Berreskuratutako elikagaien onuradun-kopurua.

<table>
<tr><td colspan="4">3. Ikastetxeei prestakuntza-ekintzak eskaintzea</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskripzioa
Ikastetxeek rol garrantzitsua dute gizartean; izan ere, ikastetxeko ikasleek euren etxeetara eramaten dituzte jasotako mezuak eta ikasitako balioak. Horregatik, espazio bikaina da elikagaien xahuketari buruz kontzientziatzeko.
Ekintza horren bidez ikastetxeei tresnak eman nahi zaizkie, ikasgeletan eta eskolako jangeletan lantzeko elikagaien xahuketaren arazoa, ikasleak kontzientziatzeko eta mezua hezkuntza-komunitateko gainerako eragileen artean hedatzeko (irakasleak, familia-elkarteak, ikastetxeko langileak eta familiak).
Udal Elkarteak, bitarteko propioen bidez edo enpresa espezializatu bat azpikontratatuta, ikastetxeei hainbat prestakuntza-ekintza eskaintzen dizkie. Hauek izan daitezke ekintza horietako batzuk:
- Hainbat hezkuntza-mailatara egokitutako hitzaldiak, azaltzeko zer den elikagaien xahuketa, zer ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arazo eragiten dituen, zeintzuk diren elikadura-soberakinak aprobetxatzeak dituen onuak eta elikagaien xahuketa murrizteko adibide batzuk.
- Ikasgeletan elikagaien xahuketa lantzeko unitate didaktiko espezifikoa. Urtero hezkuntza-maila baterako unitate bat egin liteke, goi-mailako ziklotik hasita, adibidez, eta, ondoren, erdi-mailako zikloa eta azkenik Haur Hezkuntza.
- Eskolako jangeletan elikagaien xahuketa kuantifikatzeko tailerrak. Kasu honetan, Udal Elkarteak xahuketa kuantifikatzeko beharrezko langileak eta materiala emango ditu. Lortutako datuak ikasgeletan landu ahalko dira, lana maila bakoitzera egokituta. Tailer horiek hitzaldiak osatuko dituzte, edo bestela aurretiazko azalpen bat beharko da ulertzeko zer den elikagaien xahuketa eta nola kuantifikatzen den.</td></tr>
<tr><td>Helburua</td><td colspan="3">Elikagaien xahuketa murriztea ikasleen kontzientziazioaren bidez, ikastetxearen arloan bertan egindako prestakuntza-ekintzekin.</td></tr>
<tr><td>Ezarpenaren arduraduna</td><td colspan="3">Urola Kostako Udal Elkartea</td></tr>
<tr><td>Ekintzaren hartzaileak</td><td colspan="3">Ikastetxeak</td></tr>
<tr><td>Denboralizazioa
2023</td><td>Gutxi gorabeherako inbertsioa
3.600 €[9]</td><td>Ustiaketa-kostua
3.600 €</td><td>Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia
Kualitatiboa[10]</td></tr>
<tr><td>Jarraipen-adierazleak eta emaitzak</td><td colspan="3">Eskainitako ekintza-kopurua
Eskaera-kopurua
Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua ekintzako
Ekintzetan parte hartu duen ikasle-kopurua
Egindako ekintza-kopurua</td></tr>
</table>

[9] Kalkulatu da urtean jarduera didaktiko bat egingo dela (600 €), baita 5 kuantifikazio-tailer (350 € tailerreko) eta 5 hitzaldi (250 € hitzaldiko) ere.

[10] Ekintza horrek ez dauka elikagaiak berreskuratzeko potentzial zehatzik, ikasleei eta hezkuntza-komunitateari elikagaien xahuketari eta pertsonek arazoari aurre egiteko duten erantzukizunari buruzko informazioa eta kontzientziazioa eman nahi baitie.

<table>
<tr><td colspan="4">4. Herritarrentzako aprobetxamendu-sukaldaritza tailerrak</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskripzioa
3.4 Elikagaien xahuketaren kuantifikazioa atalean adierazi den moduan, etxebizitzak dira elikakatean elikagaien xahuketa handiena eragiten dutenak; beraz, ezinbestekoa da herritarrak kontzientziatzeko ekintzak gauzatzea.
Ekintza honetan planteatzen da aprobetxamendu-sukaldaritza tailerrak egitea, egindako beste errezeta batzuen soberakinak aprobetxatu ahal izateko errezetak prestatzen irakasteko. Gainera, tailer horietan etxebizitzetan xahuketa murrizteko gomendioak emango dira, adibidez erosketak planifikatzeko estrategiak edo elikagaiak kontserbatzeko aholkuak, gehiago iraun dezaten egoera onean. Aurreikusten da urtero tailer bat egitea eta udalerria txandakatzea. Tailerrak egiteko kontuan hartuko da tokiko sukaldari ezagun batek emateko aukera.
Tailerrak behar bezala hedatu behar dira komunikazio-kanalen bidez, bai Urola Kostako Udal Elkartearenak eta bai udalenak, ahalik eta pertsona gehienek har dezaten parte.</td></tr>
<tr><td>Helburua</td><td colspan="3">Herritarrak kontzientziatzea eta euren etxeetan elikagaien xahuketa murrizteko ezagutza eta tresnak ematea.</td></tr>
<tr><td>Ezarpenaren arduraduna</td><td colspan="3">Urola Kostako Udal Elkartea
Udalen lankidetza</td></tr>
<tr><td>Ekintzaren hartzaileak</td><td colspan="3">Herritarrak oro har</td></tr>
<tr><td>Denboralizazioa
2022</td><td>Gutxi gorabeherako inbertsioa
600 €</td><td>Ustiaketa-kostua
600 €</td><td>Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia
Kualitatiboa[11]</td></tr>
<tr><td>Jarraipen-adierazleak eta emaitzak</td><td colspan="3">Urtean egindako tailer-kopurua
Tailerreko parte-hartzaileen kopurua
Dendek emandako elikagaien kopurua</td></tr>
</table>

[11] Ekintza hau kontzientziazioan oinarritzen da nagusiki; izan ere, oso zaila da tailerrak parte-hartzaileen eguneroko dinamiketan izango duen eragina kuantifikatzea. Beraz, eragin zehatza parte-hartzaileek elikagaien xahuketa murrizteko jardunbide egokiak txertatzearen mende egongo da.

<table>
<tr><td colspan="4">5. Elikagaien xahuketari buruzko jardunaldi bat lehen sektorearentzat eta industria eraldatzailearentzat</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskripzioa
Euskadin egindako elikagaien xahuketari buruzko azterlanaren datuen arabera, lehen sektorea eragiten du % 11, eta industria eraldatzaileak % 19. Urola Kosta eskualdean guztira 37 manufaktura-enpresa daude, eta ohikoenak dira arrain-kontserbak fabrikatzen dituztenak (6 enpresa) eta ardoak prestatzen dituztenak (11 enpresa).
Bi sektore horiek ekintza-plan honetan sartzeko eta horietan xahutzen dituzten elikagaiak murrizteko helburua azpimarratzeko, planteatu da elikagaien xahuketari buruzko jardunaldi espezifiko bat antolatzea bi sektore horietako enpresentzat. Jardunaldian azalduko da zer jotzen den xahuketatzat, eta hura murriztea lortu duten sektoreko ekimenen adibideak aurkeztuko dira.
Parte-hartzea kontrolatzeko, izena emateko inprimaki bat egingo da, eta enpresaren izena eta jarduera jasoko dira bertan, jakiteko zein motatako jarduerak egongo diren.
Jardunaldia hiru bloketan egituratuko da:
- Elikagaien xahuketaren kontzeptua, hau da, zer jotzen den elikagaien xahuketatzat lehen sektorean eta industria eraldatzailean, eta elikagaien xahuketari buruzko datu errealen aurkezpena.
- Bi sektoreetako bateko enpresek landutako kasu errealen aurkezpena, baldin eta xahututako elikagaien kopurua murriztea lortu badute.
- Taldeko jarduera, parte-hartzaileek eskualdeko enpresetan elikagaien xahuketa murrizteko ezar daitezkeen aukerei buruz eztabaidatzeko. Taldeko lanaren eta mahai gainean jartzearen bidez, saioa amaitzean balizko sinergiak edo enpresek partekatutako proiektuak identifika litezke, elikagaien xahuketa murrizteko helburuarekin.</td></tr>
<tr><td>Helburua</td><td colspan="3">Elikagaien xahuketaren arazoa ezagutzera ematea lehen sektorean eta manufaktura-enpresetan, eta hura murrizteko ekimenak sustatzea.</td></tr>
<tr><td>Ezarpenaren arduraduna</td><td colspan="3">Urola Kostako Udal Elkartea</td></tr>
<tr><td>Ekintzaren hartzaileak</td><td colspan="3">Lehen sektoreko enpresak
Manufaktura-enpresak</td></tr>
<tr><td>Denboralizazioa
2025</td><td>Gutxi gorabeherako inbertsioa
1.200 €[12]</td><td>Ustiaketa-kostuak
-</td><td>Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia
Kualitatiboa[13]</td></tr>
<tr><td>Jarraipen-adierazleak eta emaitzak</td><td colspan="3">Jardunaldian parte hartuko duten enpresen kopurua.
Parte-hartzetik ateratako proposamenen kopurua.</td></tr>
</table>

[12] Barne hartzen ditu komunikazio-, publizitate- eta hedapen-ekintzetarako materialen diseinua eta hizlarien dietak, beharrezkoa izanez gero.

[13] Ekintza horrek ez dauka elikagaiak berreskuratzeko potentzial zehatzik, sektoreari elikagaien xahuketari eta enpresek arazoari aurre egiteko duten erantzukizunari buruzko informazioa eta kontzientziazioa eman nahi baitie.

6. Elikagaien xahuketari buruzko herritarrentzako komunikazio-kanpaina

Deskripzioa

Nahiz eta azken urteetan ezagunagoa bihurtu den elikagaien xahuketarekin lotutako arazoa eta herritarrek geroz eta hobeto ezagutzen duten gaia, oraindik badaude ezagutzen ez duten asko. Horrez gain, etxeak direnez Euskadin elikagaien xahuketa handiena eragiten duten espazioak, beharrezkoa da komunikazio-ekintzak egitea, arazoa ezagutzera emateko eta, batez ere, herritarrak kontzientziatzeko.

Ekintza honetan planteatzen da oro har 5 udalerrietako herritarrentzako komunikazio-kanpaina bat egitea, elikagaien xahuketak dakarren arazoa jorratzeko. Hauek dira kanpainan planteatzen diren edukiak:

- Zer da eta zer jotzen da elikagaien xahuketatzat?
- Egungo elikagaien xahuketari buruzko datuak.
- Kontsumitzeko moduan dauden elikagaien bolumen handi hori kudeatzeak dakarren ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-eragina.
- Etxeetan elikagaien xahuketa murrizteko estrategia eta gomendioak. Jorratu beharreko gai espezifiko bat fruta eta barazkien itxura fisikoa izango da erosteko irizpide gisa; izan ere, horren ondorioz fruta eta barazkiak baztertzen dituzten dendetan, eta estandar jakin batzuk betetzen ez dituztenak merkaturatzeko ere baztertzen dituzte.
- Elikadura-soberakinen aprobetxamendutik eratorritako ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-onurak.

Lehen urratsa da kanpainaren plana finkatzea, gauzatuko diren jarduketak zehatz-mehatz definitzeko, baita jarduketa bakoitzaren xede-talde zehatza eta beharrezko bitartekoak ere. Kanpainaren barruan aurrera eraman daitezken jarduketak askotarikoak dira, baina kanpainaren plana aldez aurretik zehazten bada, aurreikusten da haren barruan jarduketa hauek egitea:

- Kanpainaren irudia eta leloa diseinatzea. Irudi horrek kanpaina identifikatuko du egingo diren jarduketetan.
- Sare sozialetan kanpainaren mezuak eta argitalpenak hedatzea. Horretarako, Udal Elkartearen eta udalen sare sozialak erabiltzeaz gain, tokiko *influencer* batekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko aukera baloratuko da, kanpainaren ordezkaria izan dadin sare sozialetan eta jarraitzaileen artean hedatu dezan.
- Lankidetza tokiko pertsonaia ezagunekin (kirolariak, aktoreak, sukaldariak, etab.), kanpainako hainbat jarduketetan parte har dezaten eta kanpainaren irudi pertsonalizatua ordezkatu dezaten.
- Urola Kostako Udal Elkartearen webgunearen barruan espazio espezifiko bat sortzea, elikagaien xahuketari buruzko informazioa eta hura murrizteko gomendioak emateko.
- Aldi baterako *banner* bat sortzea Urola Kostako Udal Elkartearen webgunean, kanpainaren irudiarekin.
- Kanpainaren iragarkia egitea, tokiko irrati batean edo gehiagotan igortzeko.
- Kartelak ipintzea kanpainako mezuekin Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten udalerrietako markesinetan edo OPPI direlakoetan.

Aurretik zerrendatutako jarduketa horiek aldatu edo jarduketa berriekin hedatu daitezke kanpainaren plana garatu eta zehaztean.

Kontzientziazio-kanpaina bat egitean, garrantzitsua da jakitea nolako eragina izan duen. Horretarako, kanpainaren aurretik eta hura amaitu eta hilabete batzuen buruan baloratu beharreko adierazle batzuk zehaztu behar dira. Urola Kostako Udal Elkarteak ebaluazio hori egiteko aukera eta haren bideragarritasuna aztertuko ditu.

Helburua	Elikagaien xahuketaren arazoa ezagutzera ematea herritarren artean, eta hura murrizteko ekimenak sustatzea.		
Ezarpenaren arduraduna	Urola Kostako Udal Elkartea		
Ekintzaren hartzaileak	Herritarrak oro har		
Denboralizazioa 2022	Gutxi gorabeherako inbertsioa 12.000 €[14]	Ustiaketa-kostuak -	Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia Kualitatiboa[15]
Jarraipen-adierazleak eta emaitzak	Egindako ekintza-kopurua Jarduera sare sozialetan Bisitak webgunearen espazio espezifikora		

[14] Barne hartzen ditu kanpainaren irudia eta leloa diseinatzea, materialen kostua eta lotutako publizitatea.

[15] Ekintza horrek ez dauka elikagaiak berreskuratzeko potentzial zehatzik, herritarrei elikagaien xahuketari eta arazoari aurre egiteko duten erantzukizunari buruzko informazioa eta kontzientziazioa eman nahi baitie.

<table>
<tr><td colspan="4">7. Ostalaritzako establezimenduei zuzendutako kontzientziazio-kanpaina</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskripzioa
Euskadiko elikagaien xahuketari buruzko azterlanaren datuen arabera, jatetxeetan xahutzen da elikagaien % 12. Elikakatearen parte gisa, ostalaritzako establezimenduek ere bere gain hartu behar dute elikagaian xahuketaren aurkako borrokaren gaineko erantzukizuna; beraz, ekintza honetan sektoreari zuzendutako kontzientziazio-kanpaina espezifiko bat egitea planteatzen da.
Printzipioz, hauek izango dira kanpainaren bidez hedatuko diren mezuak:
- Elikagaien xahuketaren arazoari buruz kontzientziatzea, azalduz zer den elikagaien xahuketa, duen ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-eragina eta elikadura-soberakinak aprobetxatzetik eratorritako onurak.
- Hondakin gisa kudeatzen diren elikadura-soberakinak murriztu ahal izateko praktiken berri ematea. Adibidez, sustatzea bezeroak soberan dagoen janaria eramatea, plater-neurri desberdinak eskaintzea, menu erdiaren aukera sartzea, ogia zerbitzatzea soilik bezeroak eskatzen duenean, etab.
- Gomendioak ematea sukaldeko soberakinak murrizteko, adibidez, erosketa planifikatuz, aprobetxamendu-errezetak eginez edo elikagaiak kontserbatzeko gomendioak emanez.
- Elikadura-soberakinak merkaturatzeko aukera ematen duten ekimenak ezagutzera ematea, hondakin bihurtzea ekiditeko (adibidez, Too Good To Go aplikatuz).
Hauek dira kanpainan egingo diren jarduketak:
- Kanpainaren irudia diseinatzea. Kanpaina honek herritarrentzako kanpaina osatuko du; beraz, irudiak bat egingo du beste kanpaina horretan zehaztutako diseinu-ildoekin.
- Elikagaien xahuketari buruzko prestakuntza-saioa ostalaritza-sektorean. Saioan parte hartzeko deia egingo zaie eskualdeko 5 udalerrietako ostalaritzako establezimenduei, baita sektoreko gremio eta elkarteei ere.
- Sektoreko elikagaien xahuketari buruzko informazio-dokumentu bat egitea: establezimenduetan baztertzen diren elikagaiak murrizteko gomendioak jasoko ditu.
- Informatzaile baten bisita prestakuntza-saioan parte hartu ez duten ostalaritzako establezimenduetara. Bisita horretan kanpainaren mezuak hedatuko dira, eta egindako informazio-dokumentua emango da.</td></tr>
<tr><td>Helburua</td><td colspan="3">Ostalaritzako establezimenduak kontzientziatzea elikagaien xahuketaren arazoari buruz, eta hura murriztu ahal izateko praktikak egiteko gomendio eta tresnak ematea.</td></tr>
<tr><td>Ezarpenaren arduraduna</td><td colspan="3">Urola Kostako Udal Elkartea</td></tr>
<tr><td>Ekintzaren hartzaileak</td><td colspan="3">Ostalaritza-sektoreko establezimenduak (jatetxeak, tabernak, kafetegiak, etab.)</td></tr>
<tr><td>Denboralizazioa 2022</td><td>Gutxi gorabeherako inbertsioa
5.550 €[16]</td><td>Ustiaketa-kostuak
-</td><td>Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia
Kualitatiboa[17]</td></tr>
<tr><td>Jarraipen-adierazleak eta emaitzak</td><td colspan="3">Prestakuntza-saiora joandakoen kopurua.
Bisitatu eta informatutako establezimenduen kopurua.
Berriro aprobetxatutako elikagai-kopuruaren zenbatespena.</td></tr>
</table>

[16] Barne hartzen ditu kanpainaren irudia eta leloa diseinatzea, jatetxeetako langileentzako prestakuntza-saio bat, informazio-dokumentuak egitea eta informatzaile baten bisita (aurreikusten da 200 establezimendu bisitatuko direla).

[17] Ekintza horrek ez dauka elikagaiak berreskuratzeko potentzial zehatzik, sektoreari elikagaien xahuketari eta ostalaritzak arazoari aurre egiteko duen erantzukizunari buruzko informazioa eta kontzientziazioa eman nahi baitie.

<table>
<tr><td colspan="4">8. Merkataritza-establezimenduei zuzendutako komunikazio-kanpaina</td></tr>
<tr><td colspan="4">Deskripzioa
Kanpaina honen bidez merkataritza-establezimenduei elikagaien xahuketaren arazoaren berri eman nahi zaie, baita dituen ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-eraginen berri ere. Horrekin batera, kontzientziazioa eman nahi zaie baztertu eta hondakin gisa kudeatzen diren elikagaien kopurua murrizteko neurriak aplika ditzaten.
Elikagai horiek, funtsean, laster iraungiko diren produktuak dira; beste batzuetan, dagoeneko igaro da kontsumitzeko lehentasunezko data, edo, nahiz eta kontsumitzeko moduan dauden, egoera dela eta ez dira merkaturatzen.
Kanpainaren bidez merkataritza-establezimenduei hainbat mezu bidaliko zaizkie, eta horretarako Urola Kostako Udal Elkartearen eta udalen esku dauden hedabideak erabiliko dira. Printzipioz, jarduketa hauek egingo dira:
- Informazio-dokumentu bat egitea, elikagaien xahuketaren azalpena eta datuak jasoko dituena, baita hura murrizteko establezimenduetan aplika daitezkeen praktiken adibideak ere.
- Informazio-dokumentua hedatzea merkataritza-elkarte eta -gremioen artean, bazkide eta gremioko kideen artean banatzeko.
- Prestakuntza-saio bat egitea eta eskualdeko 5 udalerrietan elikagaiak merkaturatzen dituzten establezimenduak gonbidatzea. Saio horretan, elikagaien xahuketaren arazoa azaltzeaz gain, dinamika parte-hartzaile bat egingo da xahuketa murrizteko ezar daitezkeen ekintzak identifikatzeko, bai saioan atera daitezkeen ideia berriak eta bai parte-hartzaileek dagoeneko euren establezimenduetan aplikatzen dituzten praktikak. Saioaren amaieran egindako ekarpenak eta atera ez diren beste batzuk partekatuko dira.
- Ebaluatzea eskualdeko zein establezimendutan (prestakuntza-saioan parte hartu ez dutenak) gerta daitekeen elikagaian xahuketa handiena, eta informatzaileak bisita egitea. Bisitan kanpaina azalduko da, aplikatzen ari diren praktikei buruzko informazioa eskatuko da eta elikagaien xahuketa murrizteko aplika daitezkeen praktika berriak iradokiko dira. 5. ekintzan, soberakinak biltzeko zirkuitua zehazteko dagoeneko aurreikusten da merkataritza-establezimendu jakinak bisitatzea; beraz, hori koordina daiteke bisita bakar bat egiteko bi helburuekin.</td></tr>
<tr><td>Helburua</td><td colspan="3">Elikagaiak saltzen dituzten merkataritza-establezimenduak kontzientziatzea eta sustatzea botatzen diren elikagaiak murriztu ahal izateko praktikak aplika ditzaten.</td></tr>
<tr><td>Ezarpenaren arduraduna</td><td colspan="3">Urola Kostako Udal Elkartea</td></tr>
<tr><td>Ekintzaren hartzaileak</td><td colspan="3">Elikagaiak merkaturatzen dituzten merkataritza-establezimenduak</td></tr>
<tr><td>Denboralizazioa 2023</td><td>Gutxi gorabeherako inbertsioa
2.500€[18]</td><td>Ustiaketa-kostuak
-</td><td>Berreskuratutako elikagaien kopuru zenbatetsia
Kualitatiboa[19]</td></tr>
<tr><td>Jarraipen-adierazleak eta emaitzak</td><td colspan="3">Saiora joandakoen kopurua.
Informatutako elkarte eta/edo gremioen kopurua.
Bisitatutako establezimenduen kopurua.</td></tr>
</table>

[18] Barne hartzen ditu kanpainaren irudia eta leloa diseinatzea, dendetako langileentzako prestakuntza-saio bat, informazio-dokumentua bat egitea eta informatzaile baten bisita (aurreikusten da 25 establezimendu bisitatuko direla).

[19] Ekintza horrek ez dauka elikagaiak berreskuratzeko potentzial zehatzik, sektoreari elikagaien xahuketari eta enpresek arazoari aurre egiteko duten erantzukizunari buruzko informazioa eta kontzientziazioa eman nahi baitie.

4.2. KRONOGRAMA

Ekintza	2022	2023	2024	2025	Kostu ekonomikoa	Aprobetxatutako elikagai-kopurua
1. Ikastetxeetan eta jangela kolektiboa duten ekipamenduetan elikadura-soberakinak biltzeko zirkuitua		1.622,29 €	1.154,29 €	1.154,29 €	3.930,87 €	0,78
2. Elikadura-soberakinak biltzeko zirkuitua merkataritza-establezimenduetan	1.375 €				1.375,00 €	4,5
3. Ikastetxeei prestakuntza-ekintzak eskaintzea		3.600 €	3.600 €	3.600 €	10.800,00 €	Kualitatiboa
4. Herritarrentzako aprobetxamendu-sukaldaritza tailerrak	600 €	600 €	600 €	600 €	3.600,00 €	1,79
5. Elikagaien xahuketari buruzko jardunaldi bat lehen sektorearentzat eta industria eraldatzailearentzat				1.200 €	1.200,00 €	Kualitatiboa
6. Elikagaien xahuketari buruzko herritarrentzako komunikazio-kanpaina	12.000 €				12.000,00 €	Kualitatiboa
7. Ostalaritzako establezimenduei zuzendutako kontzientziazio-kanpaina	5.550 €				5.550,00 €	Kualitatiboa
8. Merkataritza-establezimenduei zuzendutako komunikazio-kanpaina		2.500 €			2.500,00 €	Kualitatiboa
GUZTIRA	19.525,00 €	8.322,29 €	5.354,29 €	6.554,29 €	40.955,87 €	7,08

4.3. ONDORIOAK

Landa-lanean lortutako emaitzetan eta Euskadin elikagaien xahuketari buruz argitaratutako erreferentzietan oinarrituta, guztira 8 ekintza planteatu dira 2022-2025 aldian garatzeko. Ekintza horiek barne hartzen dituzte elikakateko hainbat sektore, eta horietan, neurri txiki edo handiagoan, elikagaiak xahutzen dira.

8 ekintzetatik soilik hirutan kuantifikatu ahal izan da planteatzen diren jarduketen bidez urtero berreskuratzea aurreikusten den elikagaien kopuru zenbatetsia. 3 ekintza horiei esker guztira 7,08 tona elikagai berreskuratu ahal izango dira urtean. Gainerako 5 ekintzetan, nahiz eta ezin den helburua kuantifikatu kontzientziazio-ekintzak izateagatik, zeharkako eragina izango dute ekintzen ezarpenaren amaierako emaitzan.

8 ekintzak ezartzeko inbertsioaren kostu zenbatetsia 28.447 eurokoa da.

Planteatutako ekintza batzuk puntualak izango dira, baina beste batzuk aktibo egongo dira ezarri ondoren. Kasu batzuetan, halaber, jarduketaren bat urtero errepikatuko da. Azken bi kasuetan urteko ustiaketa-kostua kuantifikatu da.

5. ERREFERENTZIAK

- Elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko jarduketa-plana. Elika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa.
- Euskadin elikadura-soberakinak dohaintza emateko orientazio-gida. Elika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa.
- Urola Kostako hondakinen prebentzio-plana 2021-2030.
- Calculadora de prevención de residuos. Agència de Residus de Catalunya.

6. ERANSKINA

Jarraian, lortutako emaitzak laburbiltzen dira, interes-sektoreen arabera:

UROLA KOSTAKO IKASTETXEAK


Urola Kostako talde teknikoak ikastetxeen harremanetarako datuak eman zituen, eta hasieran eskualdean jangela duten ikastetxeen datu-basea osatu zen. Ondoren, ikastetxeentzako saioan parte hartzeko deialdia ireki zen, eta data azaroaren 3an finkatu zen, 09:00etan, Urola Kostako Udal Elkartearen bulegoetan. Deialdia bidali ondoren, telefono eta/edo posta elektroniko bidez harremanetan jarri ziren ikastetxe guztiekin, azaroaren 3ko saioan parte hartzera gonbidatzeko, eta saioaren helburua azaldu zieten. Azkenik, 6 ikastetxetako ordezkariek hartu zuten parte.

Horrekin batera, galdetegi bat egin zen, eta ikastetxeekiko dinamikan zehar erabili zen. Aurrez aurreko bileran parte hartu ez zuten ikastetxeei ere bidali zitzaien. Galdetegi horren edukia dokumentu honen eranskinean kontsulta daiteke.


Guztira eskualdeko 8 ikastetxek hartu dute parte (12 daude eskualdean), eta seik aurrez aurreko saioan hartu zuten parte. Bertan, Urola Kostako Udal Elkarteak agindutako azterlanaren helburua azaldu zen, eta dinamika bat egin zen ikastetxeei zuzendutako galdetegian jasotako informazioa biltzeko. Ondoren, galdetegia, online eta Word formatuan, eskualdeko ikastetxe guztiei bidali zitzaien. Hauek dira parte hartu zuten 8 ikastetxeen emaitzak:

1- Ikastetxean baduzue sukaldea?


Ikastetxe gehienek (% 57,1) ez dute sukalderik. Horren ordez, Eusko Jaurlaritzak kontratatutako catering-zerbitzua dute, eta janari beroa banatzen dute ikasleen artean. Soilik ikastetxeen % 28,6k dute menuak prestatzeko sukaldea. Janari propioa prestatzen duten ikastetxeei dagokienez, soilik irizpide ekonomiko eta nutrizionalak hartzen dituzte kontuan. Beste erdiek kontuan hartzen dituzte ingurumen-irizpideak ere (nekazaritza ekologikoa, tokiko ekoizpena, denboraldikoa...).



2- Normalean, soberan gelditzen dira prestatutako elikagaiak/platerak?



Nahiz eta badakiten ikastetxeko jangelan bazkaltzen duten ikasleen kopurua, % 71,4k onartzen dute janaria soberan gelditzen dela; izan ere, oso zaila da menuak doitzea ezer ez dadin gelditu soberan.



3- *Zer egiten dute soberan gelditzen den janariarekin?*

% 75ek biohondakin gisa kudeatzen dituzte, eta gaikako bilketarako edukiontzi marroian botatzen dituzte. % 25ek biohondakin horiek kudeatzen dituzte ikastetxean bertan duten konpostaje-puntuan.

1. irudia: eskolako konpostajea Zarautzeko La Salle ikastetxean.




2. irudia: biohondakinak biltzeko edukiontzia Zarautzeko La Salle ikastetxean.




4- Zenbat elikagai (prestatutakoak) gelditzen dira soberan egunean (gutxi gorabehera)?

Kontsultatutako 3 ikastetxek (% 42,9) 5-10 kilo janari botatzen dituzte egunean, beste bik (% 28,6) 5 kg baino gutxiago egunean, batek 20-30 kilo egunean eta, azkenik, beste batek 30 kg baino gehiago egunean. Adierazi dutenez, normalean lehen platereko janaria gelditzen da soberan, eta, bigarren plateraren kasuan, gehiago gelditzen da soberan arraina dagoen egunetan.




5- *Zenbat elikagai gelditzen dira soberan eginean gutxi gorabehera (prestatutako elikagai freskoak edo prestatu gabe gelditzen direnak, menuetan zerbitzatzeko baziren)?*

Kontsultatutako 5 ikastetxetan 5 kg elikagai fresko baino gutxiago gelditzen dira soberan egunean, batean 5-10 kg egunean eta, azkenik, beste batean 10 eta 20 kg artean egunean. Diotenez, kopuru horiek menuaren araberakoak dira, baina nagusiki ikasleen artean banatzeko gordetzen diren fruta freskoak dira.



6- *Kontuan hartuta botatzen diren elikagaiak (ikastetxean konpostatzen da edo gaikako bilketarako edukiontzietara eramaten da) xahututako elikagaitzat jotzen direla, egunean zein elikagai botatzen dira erretilu indibidualetatik eta sukaldetik?*

3 ikastetxek (% 42,9) 10-12 kilo elikagai botatzen dituzte sukaldetik eta zerbitzatutako erretiluetatik. 2 ikastetxek (% 28,6) 5 kilo baino gutxiago botatzen dituzte egunean. Beste ikastetxe batek 5-10 kilo botatzen ditu egunean, eta zazpigarrenak 30 kilo baino gehiago egunean.



7- Zein dira gehien xahutzen diren elikagaiak?

Ikastetxe gehienen arabera, gehien botatzen diren elikagaiak barazkiak (lapikokoak, ortuariak, pureak, entsaladak) eta arrainak dira. Hala ere, ikastetxe batek adierazi du ez dutela elikagairik xahutzen.

8- Zenbat ikaslek bazkaltzen dute ikastetxeko jangelan, batez bestean eta egunean?

Inkestan parte hartu duten ikastetxeetako jangeletan, guztira, 1.672 ikasle inguruk bazkaltzen dute egunean. Ikastetxe bakoitzeko kopurua tamainaren araberakoa da:

- Bi ikastetxetan 100 ikasle baino gutxiago (14 eta 60)
- Hiru ikastetxetan 150 eta 300 ikasle artean (160, 218 eta 300)
- Bi ikastetxetan 400 ikasle baino gehiago (420 eta 500)

9- Zein da ikastetxearen aurrekontua jangela-zerbitzuari dagokionez (erosten diren elikagaiekin eta prestatzen diren menuekin lotutako aurrekontua, jangelako langileak, garbiketa, altzariak, gailu elektrikoak eta antzeko gastuak kenduta)?


Ikastetxeen erdiek baino gehiagok (% 57,1) ez dute jangelaren aurrekontuaren berri, kudeaketa ikastetxetik kanpokoa baita. Eskolako menua 5-9 eurokoa da ikasleko.

10- Elikagaien xahuketari edo murrizketari buruzko hezkuntza-ekimen edo -programetan parte hartu duzue edo ari zarete?

Ikastetxeen % 85,7k ez dute parte hartzen ekimenetan. Soilik ikastetxe batek (Oikia) hartzen du parte programa batean (“Zisare”, eskolako konpostajearekin lotuta). Ikastetxeetako baten arabera, behin baino gehiagotan proposatu diote ekimenen batean parte hartzea, baina arrakastarik gabe.

11- Parte hartu nahiko zenuke elikagaien xahuketa murrizteko eskualdeko ekimenetan?

Ikastetxeen % 85,7k parte hartuko lukete ekimenen batean, beste ikastetxe edo erakunde batzuekin batera. Soilik ikastetxe batek adierazi du ez lukeela parte hartuko, baliabide-faltagatik eta beste proiektu batzuekin lotutako lan-kargagatik.



12- Urola Kostako Udal Elkartea eskualde-mailako diagnostiko bat ari da lantzen, elikagaien xahuketaren egoera ezagutzeko. Gustatuko litzaizuke diagnostikoaren emaitzen eta etorkizunean abian jar daitezken jardueren berri izatea?

Ikastetxeen % 100ek diagnostikoaren emaitzen eta abian jar daitezkeen ekimenen berri izan nahi dute.

OSTALARITZA-SEKTOREKO ESTABLEZIMENDUAK


Alde batetik, aurrez aurreko elkarrizketa bat antolatu zen 2021eko azaroaren 11n, Zumaian, baina soilik sektoreko 2 establezimenduk hartu zuten parte. Ondoren, online galdetegia bidali zitzaien udalerriko establezimendu interesgarri guztiei, eta 5 erantzun jaso ziren. Halaber, 2021eko abenduan zehar eta 2022ko urtarrilaren hasieran, Urola Kostako Udal Elkarteko ingurumen-hezitzaileak aurrez aurreko 18 elkarrizketa egin zituen Zumaiako ostalaritzako establezimenduetara egindako bisitetan. Jarraian adierazten dira aipatutako parte-hartze mekanismoei esker lortutako emaitzak:


1- Zure establezimenduak sukaldea du?

Inkestan parte hartu duten ostalarien % 100ek sukaldea dute establezimenduan. Azterlanean parte hartu duten establezimenduetatik soilik hiruk hartzen dituzte kontuan irizpide ekonomiko eta nutrizionalak euren produktuak prestatzeko. Gainerakoek adierazi dute garrantzia ematen dietela produktuaren kalitateari, hurbiltasunari eta hornitzailearekiko konfiantzari; horietako batzuek produktu ekologikoak erosten dituzte, eta produktuaren kostua jasotzen dute azkenik.

2- Normalean, soberan gelditzen dira prestatutako elikagaiak/platerak?

Establezimendu guztietan janaria gelditzen da soberan egunero, baina kopurua aldatu egiten da batetik bestera.





3- Zer egiten duzue soberan gelditzen den janariarekin? (Erantzun bat baino gehiago aukera daiteke)

Establezimenduek honela kudeatzen dute soberan gelditzen den janaria:

- Soberan gelditu diren elikagai eta platerak establezimenduko langileen artean banatzen dira.

- Establezimenduko langileek jateko aprobetxatzen dute.
- Izoztu egiten da edo beste gauza batzuk prestatzeko aprobetxatzen da.
- Bezeroen artean banatzen dute.
- Biohondakinak gaika biltzeko edukiontzi marroian botatzen dute.
- Lehen sektorean lan egiten duten eta animaliak dituzten pertsonen artean banatzen da (animaliei emateko).

  Ez dute dohaintzan ematen eta ez diete catering-enpresei itzultzen.

4- Zenbat pintxo gelditzen dira soberan egunean zehar (gutxi gorabehera)?

Bi establezimenduk ez dute ez barra eta ez pintxorik. Gainerakoei dagokienez, egunaren arabera gelditzen zaie soberan. Adierazi behar da erantzunak askotarikoak izan direla.

5- Zenbat elikagai gelditzen dira soberan astean gutxi gorabehera (prestatutako elikagai freskoak edo prestatu gabe gelditzen direnak, menu edo pintxoetan zerbitzatzeko)?

Establezimendu gehienetan (21) kopuru hori 5 kilotik beherakoa da. Baten batek adierazi du eskaria astekoa dela, eta beraz oso gutxi galtzen duela. Soberan gelditzen diren elikagaiak ahalik eta gehien aprobetxatzen dira, bai bakoitzaren kontsumorako eta bai plater berriak prestatzeko.

6- Zein dira gehien xahutzen diren elikagaiak?

Ogia da gehien xahutzen den elikagaia, eta, ondoren, tarte handiarekin, arraina eta fruta- eta barazki-pieza batzuk (nagusiki letxuga).


Prestatutako janariari dagokionez, pintxoak, moztutako patatak, xerrak eta mamiak dira gehien xahutzen diren elikagaiak.

7- Elikagaien xahuketari edo murrizketari buruzko ekimenetan parte hartu duzue edo ari zarete?

Oro har, ez dute parte hartzen mota horretako ekimenetan, nahiz eta adierazi duten ezagutzen dituztela *Too good to go* motako ekimenak (hala ere, ez daude ondo informatuta) eta establezimenduren bat atxiki dela udalerri-mailan.

8- Parte hartu nahiko zenukete elikagaien xahuketa murrizteko eskualdeko ekimenetan?

Galderari erantzun zioten 18 establezimenduetatik hamarrek parte hartzeko interesa adierazi zuten, eta 6 establezimenduk erantzun zuten ez dutela parte hartu nahi mota horretako ekimenetan. Bestalde, 2 establezimenduk adierazi zuten ez luketela parte hartuko, ez dutelako elikagairik xahutzen.



9- *Urola Kostako Udal Elkartea eskualde-mailako diagnostiko bat ari da lantzen, elikagaien xahuketaren egoera ezagutzeko. Gustatuko litzaizueke diagnostikoaren emaitzen eta etorkizunean abian jar daitezken jardueren berri izatea?*

Ia establezimendu guztiek (1 izan ezik) diagnostikoaren emaitzen eta abian jar daitezkeen ekimenen berri izan nahi dute. Hau da, elikagaien xahuketaren prebentzioarekin lotutako balizko ekimen edo proiektuei buruzko informazioa jaso nahi dute.

ELIKADURA-DENDAK ETA INDUSTRIA-SEKTOREA

Alde batetik, aurrez aurreko elkarrizketa bat antolatu zen 2021eko azaroaren 11n, Zumaian, baina soilik sektoreko 2 establezimenduk hartu zuten parte (elikadura-denda batek eta supermerkatu batek). Ondoren, online galdetegia bidali zitzaien udalerriko establezimendu interesgarri guztiei, eta 6 erantzun jaso ziren (erantzun horietako 2 Zarautzeko establezimenduenak izan ziren: lantegi bat eta haragi-produktuen eta prestatutako elikagai/plateren enpresa bat). Halaber, 2021eko abenduan zehar eta 2022ko urtarrilaren hasieran, Urola Kostako Udal Elkarteko ingurumen-hezitzaileak aurrez aurreko elkarrizketak egin zituen Zumaiako elikadura-dendetara egindako bisitetan (7 elkarrizketa). Jarraian adierazten dira aipatutako parte-hartze mekanismoei esker lortutako emaitzak:


1- Zer egiten duzue iraungitzeko zorian dauden produktuekin?

Establezimenduek hainbat neurri hartzen dituzte produktu motaren arabera:

- Beherapen edo eskaintzak (2x1).
- Hornitzaile batzuek iraungitako produktuak eramaten dituzte (okindegiak, ogi-opilak...).
- Iraungitako haragia eta arraina erosketa-zentralera itzultzen da.
- Langileen edo konfiantzako bezeroen artean banatzen da.
- Hondakin gisa botatzen da.
- Berehala kontsumitzeko beste errezeta batzuetan aprobetxatzen da.
- Dohaintzan ematen da (elikagaien bankua, Caritas, etab.)
- *Too good to go* ekimena.
- Kasuren batean, animalientzako janari gisa erabiltzen da (baserriak dituzten bezeroak).

2- Egunean zenbat elikagai eta elikadura-produktu botatzen dituzue?

Xahututako elikagaien kopuruari buruzko erantzunak askotarikoak izan dira parte hartu duten elikadura-denden artean; hala ere, denda handiek denda txikiek baino produktu gehiago xahutzen dituzte.



3- Zein dira gehien xahutzen diren elikagaiak?

Xahutzen diren elikagai gehienak fruta eta barazkiak dira (batez ere fruta) parte hartu duten ia elikadura-denda guztietan. Opilak, ogia, enpanadak eta arraina ere aipatu dira, baina neurri txikiagoan.

4- Neurririk hartzen dute elikagai eta produkturik ez xahutzeko?

Denda guztiek hartzen dute neurriren bat xahuketa ekiditeko, nagusiki 1. puntuan aipatutakoak. Gainera, eguneroko eskarira egokitzearen garrantzia azpimarratu dute, botatako soberakinak

murrizteko. Denda batek adierazi du prezio murriztuko poltsak prestatzen dituela iraungitzeko zorian dauden produktuekin, bezeroek erraz hauteman ditzaten.


5- *Parte hartu duzu edo ari zara elikagaien xahuketa ekidin edo murrizteko ekimenetan?*

- Fruta itsusiaren kanpaina.
- *Too good to go.*
- Iraungitze-eskaintzak.
- Eskariak egokitzea.
- Ohitura onak (adibidez, eskariak zehatz-mehatz egitea, ez xahutzeko: kasu batzuetan, esperientzia handiko negozioak dira).

Denda askok (elkarrizketatutako seik) ezetz erantzun dute.

6- *Interesgarria irudituko litzaizuke eskualde-mailan elikagaien xahuketa murrizteko ekimenetan parte hartzea?*

Elikadura-denda gehienek parte hartuko lukete elikagaien xahuketa murrizteko ekimen batean, eta 4 establezimenduk adierazi dute ez dutela interesik. Parte hartu duten 3 dendak soilik informazioa jaso nahi dute (horietako batek erantzun du arduradunak erabakiko duela parte hartuko duten ala ez eskualde-mailan abian jar litezkeen ekimenetan):



7- *Urola Kostako Udal Elkartea diagnostiko bat egiten ari da Urola Kosta eskualdeko elikagaien xahuketaren egoerari buruz. Gustatuko litzaizuke informazioa jasotzea diagnostikoaren emaitzei eta etorkizunean abian jar litezkeen jarduketei buruz?*

Ia elikadura-denden % 100ek jasoko lituzkete diagnostikoaren emaitzak eta etorkizunean garatu beharreko jarduketei buruzko informazioa. Soilik establezimendu batek erantzun du ezetz.

BESTE MOTA BATZUETAKO ESTABLEZIMENDUAK

Hauek dira: hotel bat (sukaldearekin, baina gaur egun ia ez da erabiltzen), landetxe bat, adinekoen egoitza bat eta haurtzaindegi bat (sukalderik gabe).

Adinekoen egoitzaren kasuan izan ezik (debekatuta dago soberako janaria etxera eramatea edo hurrengo egunerako uztea), gainerako establezimenduetan honako hau egiten dute:

- Soberakinak hondakin gisa kudeatu (biohondakinak gaika biltzeko edukiontzian botatzen dituzte).
- Establezimenduko langileen artean banatzen da

- Bezeroen artean banatzen da
- Zati bat izozten da, etorkizunean erabiltzeko, eta beste zati bat plater berriak prestatzeko aprobetxatzen da
- Etxeko animaliei ematen zaie (landetxea)

Kasu guztietan (adinekoen egoitzan izan ezik, ez baitakite zenbat janari gelditzen den soberan), astean 5 kilo baino gutxiago gelditzen dira soberan.

Soberan gelditzen diren elikagaiei dagokienez, adierazi behar da haurtzaindegian batez ere sagarrak gelditzen direla soberan, eta, hotelean, opilak.

4 establezimenduek erantzun dute ez dutela inoiz parte hartu xahuketa prebenitzeko ekimenetan (soilik eskariak egiteko eta erosketak programatzeko erabiltzen dituzten jardunbide egokietan, ohituragatik), baina horri buruzko informazioa jaso nahi dute, eta prest egongo lirateke etorkizunean arlo horretako proiektutan parte hartzeko.

| ENT environment & management
(Serveis de Suport a la Gestió S.L.)
B-62795372
Josep Llanza, 1-7, 2n 3a
08800 Vilanova i la Geltrú
+34 93 893 51 04
info@ent.cat | www.ent.cat

@ENTmediambient
ENTmediambient
ENT Environment & Management
ENT environment & management

ENT Environment and Management enpresak ISO 9001:2015 eta ISO 14001:2015 arauen araberako kudeaketa-sistemen ziurtagiriak ditu. Informazio gehiago: HEMEN



INFORME

29 de marzo 2022

Diagnosis de despilfarro alimentario en la comarca de Urola Kosta



Diagnosis de despilfarro alimentario en la comarca de Urola Kosta
Este informe es un encargo efectuado por la Mancomunidad Urola Kosta.

Autores
Míriam Galindo (ENT)
Edurne Simón (IZADI 21)

info@ent.cat
www.ent.cat

ENT Environment and Management dispone de los certificados de los sistemas de gestión de acuerdo con las normas ISO 9001:2015 i ISO 14001:2015. Más información: **AQUÍ**

ENT environment & management
Es una marca registrada de:
Serveis de Suport a la Gestió, S.L.
Josep Llanza, 1-7, 2n 3a
08800 Vilanova i la Geltrú

@ENTmediambient
ENTmediambient
ENT Environment & Management
ENT environment & management

ÍNDICE

TABLAS 3
1. INTRODUCCIÓN 4
2. MARCO NORMATIVO 5
3. DIAGNOSIS 7
3.1. ANÁLISIS DE LOS FLUJOS DE GENERACIÓN DE MATERIA ORGÁNICA 7
3.2. TRABAJO DE CAMPO 10
3.3. CONCLUSIONES DEL TRABAJO DE CAMPO 12
3.4. CUANTIFICACIÓN DEL DESPERDICIO ALIMENTARIO 12
4. PLAN DE ACCIÓN 14
4.1. PROPUESTA DE ACCIONES 14
4.2. CRONOGRAMA 25
4.3. CONCLUSIONES 26
5. REFERENCIAS 27
6. ANEXO 28

TABLAS

Tabla 1. Evolución de la generación de residuos global y de la fracción orgánica 7
Tabla 2. Relación de actividades comerciales existentes 8
Tabla 3. Relación de actividades comerciales existentes 10
Tabla 4. Desperdicio alimentario por fase de la cadena alimentaria en Urola Kosta 13

1. INTRODUCCIÓN

El desperdicio alimentario, según lo define la FAO (2014), se refiere a aquellos alimentos seguros y nutritivos inicialmente destinados a consumo humano que son rechazados o utilizados de manera alternativa (no alimentaria) a lo largo de las cadenas de suministro alimentario, desde la producción primaria hasta el consumidor/a final. Se diferencian de las pérdidas de alimentos (reducción de los alimentos en cantidad y calidad) porque los motivos que los generan son distintos.

Según datos de la FAO, anualmente un tercio de los alimentos producidos se pierde o se desperdicia para el consumo humano. A nivel de Europa se estima que cada año un total de 89 millones de toneladas de alimentos pasan a ser pérdidas y desperdicio. En el caso de Euskadi, el desperdicio alimentario anual se ha cuantificado en 350.000 toneladas, lo que representa 160kg por persona y año.

La Mancomunidad de Urola Kosta dispone de un **Plan de prevención de residuos** que establece la hoja de ruta en el ámbito de la prevención, definiendo diferentes acciones para reducir la generación de residuos municipales que se produce en los municipios que la conforman. En este plan de prevención se ha marcado la reducción del desperdicio alimentario como una de los ámbitos a trabajar. Para poder definir las acciones específicas a desarrollar en este ámbito, es necesario antes conocer cual es la situación actual de la Mancomunidad en relación al desperdicio de alimentos, y este es el objetivo de la diagnosis que se ha llevado a cabo.

2. MARCO NORMATIVO

Europeo

El año 2015 la ONU publicó sus **Objetivos de Desarrollo Sostenible** entre los cuales se incluía el objetivo 12.3 que pretende reducir a la mitad el desperdicio de alimentos por habitante correspondiente a los niveles de la venta al por menor y el consumidor y reducir la pérdida de alimentos a lo largo de las cadenas de producción y suministro.

La **Directiva 851/2018** sobre residuos incorpora como objetivo reducir las pérdidas de alimentos a lo largo de la cadena de producción y suministro, incluidas las pérdidas posteriores a la recolección, y define unos objetivos cuantitativos de reducción del 30% en 2025 y del 50% en 2030.

El **Pacto Verde Europeo** aprobado en diciembre de 2019, incorpora el compromiso de la UE de reducir a la mitad el desperdicio de alimentos per cápita en la venta al por menor en 2030. A nivel de los consumidores/as, los objetivos se concretarán a través de las políticas e instrumentos contemplados en el nuevo Plan de Acción para la Economía Circular (2020), la Estrategia «De la Granja a la Mesa» (2020) y la Estrategia sobre Biodiversidad (2020).

Estatal

A nivel estatal, existe la estrategia **"Más alimento, menos desperdicio"**, iniciativa del Ministerio de Agricultura y Pesca, Alimentación y Medio Ambiente cuyo objetivo es animar y facilitar a todos los actores de la cadena de consumo, ya sea de manera forma individual o como parte de un organismo, a colaborar y aportar opiniones, conocimientos y experiencias.

En octubre de 2021 se presentó el **Anteproyecto de Ley para combatir el desperdicio de alimentos** en España a través de la cual se quiere establecer un modelo de buenas prácticas para evitar el desperdicio de alimentos con actuaciones en toda la cadena alimentaria, desde el origen en el propio proceso de cosecha, hasta los hábitos de consumo en los hogares y en la restauración.

Autonómico

En el plano autonómico, Euskadi definió a principios de 2018 la **Estrategia Vasca contra el Despilfarro de Alimentos**, cuyos objetivos son:

- Impulsar y apoyar actuaciones concretas para prevenir y reducir los alimentos que se despilfarran a lo largo de la cadena de producción, suministro y consumo.
- Facilitar la reutilización de los excedentes alimentarios con garantías de seguridad alimentaria.
- Revalorizar los excedentes alimentarios para su uso en alimentación animal.
- Dar respuesta al Objetivo de Desarrollo Sostenible de la ONU (objetivo 12.3) de reducción del desperdicio de alimentos.

De esta estrategia se desprende el **Plan de Actuaciones** frente al despilfarro de alimentos en Euskadi, y la creación de la **Plataforma de Euskadi contra el despilfarro de alimentos** cuya misión es prestar asesoramiento y apoyo a las administraciones vascas para la adopción de las políticas necesarias para dar cumplimiento a los objetivos marcados en el Plan de Actuaciones.

Paralelamente, el País Vasco cuenta con diversos planes y programas que también incorporan el desperdicio de alimentos entre sus objetivos. Se trata del **Plan estratégico de la Gastronomía y Alimentación** que trabaja por una alimentación segura, saludable, singular y sostenible, el **IV Programa Marco Ambiental 2020** que recoge la alimentación circular como un área prioritaria, y el **Plan de Prevención y Gestión de Residuos de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2030.**

Local


Algunas de las acciones planteadas serán puntuales en el tiempo, pero otras está previsto que se mantengan activas una vez implantadas o en algún caso se prevé una repetición anual de alguna actuación. En estos dos últimos casos se ha cuantificado el coste anual de explotación.

5. REFERENCIAS

- Plan de actuaciones frente al despilfarro de alimentos en Euskadi. Elika Fundación Vasca para la seguridad agroalimentaria.
- Guía orientativa para la donación de excedentes alimentarios en Euskadi. Elika Fundación Vasca para la seguridad agroalimentaria.
- Plan de prevención de residuos de Urola Kosta 2021-2030.
- Calculadora de prevención de residuos. Agència de Residus de Catalunya.

6. ANEXO

A continuación, se resumen los resultados obtenidos, por sectores de interés:

CENTROS ESCOLARES DE UROLA KOSTA


El equipo técnico de Urola Kosta proporcionó los datos de contacto de los centros escolares, y en primera instancia se completó la base de datos de los centros educativos de la comarca que disponen de comedor, y se lanzó la convocatoria para la participación en la sesión participativa para centros escolares convocada para el día 3 de noviembre a las 9:00 en las oficinas de la Mancomunidad de Urola Kosta. Una vez enviada la convocatoria, se contactó vía teléfono y/o correo electrónico con todos los centros para invitarlos a participar en la sesión del 3 de noviembre y se les explicó el objetivo de la sesión. Finalmente asistieron representantes de 6 centros escolares.

Paralelamente, se elaboró un cuestionario que fue utilizado durante la dinámica con los centros escolares, y que se envió a aquellos centros que no asistieron a la reunión presencial. El contenido de este cuestionario puede consultarse en el anexo del presente documento.

En global han participado 8 centros escolares de la comarca de los 12 centros que hay en total, de los cuales 6 de ellos participaron en la sesión presencial en la que se explicó el objetivo del estudio encargado por Urola Kostako Udal Elkartea y se realizó una dinámica para recabar la información incluida en el cuestionario dirigido a centros escolares. Posteriormente, se envió el cuestionario tanto online como en formato "Word" a todos los centros escolares de la comarca. Estos son los resultados resultantes de los 8 centros participantes:


1- ¿Disponéis de cocina en el centro escolar?

La mayoría de los centros escolares (el 57,1%) no dispone de cocina. En su lugar, disponen del servicio de *cáterin* contratado por el Gobierno Vasco y distribuyen esta comida caliente al alumnado. Tan sólo el 28,6% de los centros encuestados dispone de cocina en la que elaboran los menús. En lo referente a los centros que elaboran su propia comida, éstos tienen en cuenta sólo criterios económicos y nutricionales. La otra mitad tiene en cuenta también criterios ambientales (agricultura ecológica, producción local, de temporada...).



2- Normalmente, ¿sobra comida preparada/platos preparados?

El 71,4% admite que, aunque conozcan el número de escolares que se quedan a comer en el comedor del centro, sobra comida, ya que resulta muy complicado ajustar los menús para que no sobre nada.



3- ¿Qué hacen con la comida que normalmente sobra?

El 75% lo gestiona como biorresiduos depositándolos en el contenedor marrón de recogida selectiva. El 25% gestiona estos biorresiduos en el punto de compostaje que tienen en el propio centro.

Gestión de la comida sobrante




Imagen 1: compostaje escolar en el centro escolar La Salle de Zarautz




Imagen 2: contenedor para la recogida de biorresiduos en el centro escolar La Salle de Zarautz



4- ¿Cuántas comidas (alimentos cocinados) sobran al día (aproximadamente)?

3 de los centros consultados (el 42,9%) desechan 5-10 kilos de comida diaria, 2 de los centros (el 28,6%) menos de 5 kilos diarios, un centro desecha 20-30 kilos diarios y un último afirma que desechan más de 30 kilos de comida al día. Comentan que normalmente suele sobrar parte del primer plato y, del segundo, suele sobrar más los días en los que toca pescado.


Cantidad de comida sobrante



5- ¿Cuántos alimentos sobran al día aproximadamente (alimentos frescos cocinados o que quedan sin cocinar, que eran para servir en los menús)?


En 5 de los centros consultados sobran menos de 5 kilos de alimentos frescos diarios, en uno entre 5 y 10 kilos diarios y en otro último, entre 10 y 20 kilos diarios. Afirman que dichas cantidades dependen del menú de cada día, pero que principalmente son frutas frescas que se guardan para repartirlas, posteriormente, entre los escolares.

Cantidad de alimento sobrante



6- Teniendo en cuenta que la cantidad de comida/alimento que se tira (se composta en el centro o se lleva a los contenedores de recogida selectiva) sería considerado como un alimento desperdiciado, ¿qué comida se tira al día de las bandejas individuales y de la cocina?

3 de los centros escolares (el 42,9%) desechan 10-20 kilos de comida/alimentos de la cocina y las bandejas servidas. 2 de los centros (28,6%) desechan menos de 5 kilos diarios. Otro de los centros desecha entre 5-10 kilos diarios y un séptimo desecha más de 30 kilos diarios.



7- ¿Qué alimentos son los que principalmente se desperdician?

La mayoría de los centros coincide en que las verduras (potajes, hortalizas, purés, ensaladas) y pescados son los alimentos que más se desechan. No obstante, uno de los centros afirma que no desperdician ningún alimento.

8- ¿Cuántos escolares comen, de media y por día, en el comedor del centro?

En los comedores de los centros escolares que han participado en la encuesta, en total, comen a diario alrededor de 1.672 escolares. La cantidad de cada centro varía en función de su tamaño:

- En dos centros < de 100 escolares (14 y 60)
- En tres centros entre 150 y 300 escolares (160, 218 y 300)
- En dos centros > de 400 (420 y 500)

9- ¿Cuál es el presupuesto del centro en relación con el servicio de comedor (se trataría del presupuesto relacionado con los alimentos que se adquieren y con los menús que se elaboran, excluyendo los gastos como el personal de comedor, la limpieza, el mobiliario, los aparatos eléctricos, etc.)?


Más de la mitad de los centros (57,1%) desconoce el presupuesto del comedor ya que su gestión es ajena al centro. El menú escolar varía entre 5-9€/escolar.

10- ¿Habéis participado o estáis participando en iniciativas o programas educativos dirigidos al desperdicio o reducción de alimentos?

El 85,7% de los centros no participan en ninguna iniciativa. Tan sólo un centro (Oikia) participa en un programa relacionado ("Zisare", ligado al compostaje en el centro escolar). Uno de los centros afirma que le han propuesto, en repetidas ocasiones, participar en alguna iniciativa relacionada, pero sin éxito.

11- ¿Querrías participar en iniciativas comarcales orientadas a reducir el desperdicio alimentario?

El 85,7% de los centros escolares participaría en algún tipo de iniciativa junto con otros centros escolares o instituciones. Tan sólo un centro afirma no estar dispuesto a participar, pero por falta de recursos y carga de trabajo ligada a otros proyectos.



12- Urola Kostako Udal Elkartea está trabajando en un diagnóstico a nivel comarcal para poder conocer cómo es la situación respecto al desperdicio de alimentos. ¿Te gustaría conocer los resultados del diagnóstico y las actividades que se puedan poner en marcha en el futuro?

El 100% de los centros escolares querría conocer los resultados del diagnóstico y las iniciativas que se puedan poner en marcha.

ESTABLECIMIENTOS DEL SECTOR HOSTELERO


Por un lado, se organizó una entrevista presencial el 11 de noviembre de 2021 en Zumaia, pero únicamente acudieron 2 establecimientos del sector. Posteriormente, se envió el cuestionario online a todos los establecimientos de interés ubicados en el municipio y se recibieron 5 respuestas. Asimismo, durante los meses de diciembre de 2021 y principios de enero de 2022, la educadora ambiental de Urola Kostako Udal Elkartea realizó 18 entrevistas presenciales en las visitas realizadas a distintos establecimientos de hostelería de Zumaia. Seguidamente se reflejan los resultados obtenidos gracias a los distintos mecanismos de participación mencionados:


1- ¿Tiene cocina en su establecimiento?

El 100% de los hosteleros que han participado en la encuesta tiene cocina en su establecimiento. De los establecimientos que han participado en el estudio sólo 3 de ellos tienen en cuenta sólo criterios económicos y nutricionales para elaborar sus productos. El resto afirma que le da importancia a la calidad del producto, a la cercanía y a la confianza con el proveedor, parte de ellos compra productos ecológicos, e incluye el coste del producto en último lugar.

2- Normalmente, ¿os sobra comida preparada/platos preparados?

A todos los establecimientos les sobra comida cada día, aunque la cantidad varía de uno a otro.





3- ¿Qué hacéis con la comida que normalmente sobra? (Se puede elegir más de una respuesta)

Los establecimientos gestionan la comida que les sobra de la siguiente manera:

- La comida y los platos sobrantes se reparten entre el personal del establecimiento.
- Lo aprovechan para la comida del personal en el establecimiento.
- Se congela o se aprovecha para preparar otras elaboraciones.
- Lo reparten entre sus clientes.
- Lo depositan en el contenedor marrón para la recogida selectiva de biorresiduos.
- Se reparte entre personas que trabajan en el primer sector y tienen ganado (para alimento del ganado).

  Ninguno lo dona ni lo devuelve a empresas de catering.

4- ¿Cuántos pintxos sobran a lo largo del día (aproximadamente)?

Dos de los establecimientos no disponen de barra ni pintxos. Al resto, le sobran dependiendo del día. Cabe señalar que las respuestas han sido muy dispares.

5- ¿Cuántos alimentos sobran a la semana aproximadamente (alimentos frescos cocinados o que quedan sin cocinar, destinados a servir en los menús o pinchos)?

En la gran mayoría de los establecimientos (21) esta cantidad es inferior a 5 kilos. Alguno afirma que como el pedido es semanal, la pérdida es mínima. Los alimentos o comida que sobra se aprovechan al máximo, bien para autoconsumo o bien para preparar nuevas elaboraciones/platos.

6- ¿Qué alimentos son los que se desperdician principalmente?

El pan es el principal alimento que se desperdicia, y le siguen de lejos, el pescado y algunas piezas de frutas y de verduras (lechuga principalmente).

En cuanto a comida ya preparada, los pintxos, las patatas cortadas, los filetes y las cuajadas son los principales productos que se desperdician.


7- ¿Habéis participado o estáis participando en iniciativas dirigidas al desperdicio o reducción de alimentos?

En general no participan en ninguna iniciativa de este tipo, aunque afirman que conocen iniciativas tipo "*Too good to go*" (aunque no están bien informados al respecto) y que hay algún establecimiento adherido a nivel de municipio.

8- ¿Queréis participar en iniciativas comarcales dirigidas a reducir el desperdicio de alimentos?

De los 18 establecimientos que respondieron a la pregunta, 10 de ellos mostró interés en participar, mientras que 6 establecimientos respondieron que no quieren participar en este tipo de iniciativas. Por otro lado, 2 establecimientos comentaron que no participarían porque no generan desperdicio alimentario.

¿Participarías en alguna iniciativa?



9- ¿Urola Kostako Udal Elkartea está trabajando en un diagnóstico a nivel comarcal para poder conocer cómo es la situación respecto al desperdicio de alimentos. ¿Os gustaría conocer los resultados del diagnóstico y las actividades que se puedan poner en marcha en el futuro?

Prácticamente todos los establecimientos (todos menos 1) querría conocer los resultados del diagnóstico y las iniciativas que se puedan poner en marcha. Es decir, quieren recibir información sobre posibles iniciativas o proyectos ligados a la prevención del desperdicio alimentario.

COMERCIOS DE ALIMENTACIÓN Y SECTOR INDUSTRIAL

Por un lado, se organizó una entrevista presencial el 11 de noviembre de 2021 en Zumaia, pero únicamente acudieron 2 establecimientos del sector (una tienda de alimentación y un supermercado). Posteriormente, se envió el cuestionario online a todos los establecimientos de interés ubicados en el municipio y se recibieron 6 respuestas (2 de esas respuestas corresponden a establecimientos ubicados en Zarautz –1 obrador y una empresa de productos cárnicos y comida/platos preparados). Asimismo, durante los meses de diciembre de 2021 y comienzos de enero de 2022, la educadora ambiental de Urola Kostako Udal Elkartea realizó entrevistas presenciales en las visitas realizadas a distintos comercios de alimentación de Zumaia (7 entrevistas). Seguidamente se reflejan los resultados obtenidos gracias a los distintos mecanismos de participación mencionados:


1- ¿Qué hacéis con los productos que están a punto de caducar?

Los establecimientos toman diferentes medidas en función del tipo de producto:

- Descuentos u ofertas (2x1).
- Hay proveedores que se llevan los productos caducados (panaderías, bollos de pan…).
- La carne y el pescado caducado se devuelve a la central de compras.
- Se reparte entre el personal o los clientes de confianza.
- Se desecha como residuo.
- Se aprovechan para otras recetas de consumo inmediato.
- Se dona (Banco alimentos, Caritas, etc.)
- Iniciativa *"Too good to go"*.
- En algún caso se reutiliza como alimento para animales (cliente que tiene granja).

2- ¿Qué cantidad de alimentos y productos de alimentación tiráis al día?

La respuesta sobre la cantidad de alimentos que se desperdicia es muy heterogénea entre los comercios de alimentación participantes, aunque es cierto que los grandes comercios desperdician más productos que los pequeños comercios.



3- ¿Qué alimentos son los que más se desperdician?

La gran mayoría de los alimentos desperdiciados son frutas y verduras (sobre todo fruta), principalmente, en casi todas las tiendas de alimentación participantes. También se citan, pero en menor medida, la bollería, la panadería, los productos empanados y el pescado.

4- ¿Toman alguna medida para no desperdiciar alimentos y productos?

Todos los comercios toman alguna medida para evitar el desperdicio, principalmente las citadas en el punto 1. Además, señalan la importancia de ajustarse a la demanda del día a día para reducir el desecho de excedentes. Uno de los comercios indica que preparan bolsas de precio reducido con elementos a punto de caducar para que la clientela los pueda detectar fácilmente.


5- ¿Ha participado o participa en iniciativas dirigidas a evitar o reducir el desperdicio alimentario?

- Campaña de fruta fea.
- *"Too good to go"*
- Ofertas por caducidad próxima.
- Ajustar los pedidos.
- Buenas costumbres (como puede ser, hacer los pedidos con exactitud para evitar el desperdicio –en algunos casos, se trata de negocios con muchos años de experiencia-).

Un número importante de comercios (6 de los entrevistados) ha respondido que no.

6- ¿Tendrías interés en participar en iniciativas dirigidas a reducir el desperdicio alimentario a nivel comarcal?

La mayoría de los comercios de alimentación estaría interesada en participar en alguna iniciativa para reducir el desperdicio alimentario, mientras que 4 de los establecimientos no tiene ningún interés. 3 de los comercios participantes únicamente desea recibir información (1 de ellos ha respondido que su responsable decidirá si participa o no en posibles iniciativas que pudieran ponerse en marcha a nivel comarcal):



7- Urola Kostako Udal Elkartea está elaborando un diagnóstico sobre la situación del despilfarro alimentario en la comarca de Urola Kosta. ¿Te gustaría recibir información sobre los resultados del diagnóstico y sobre futuras actuaciones que pueden desarrollarse?

Prácticamente el 100% de los comercios de alimentación estaría interesado en recibir los resultados del diagnóstico e información sobre futuras actuaciones a desarrollar. Ha respondido que no únicamente uno de los establecimientos.

OTRO TIPO DE ESTABLECIMIENTOS

Se trata de un hotel (con cocina, pero prácticamente sin uso en la actualidad), una casa rural, una residencia de ancianos/as y una guardería (sin cocina).

Salvo en el caso de la residencia de ancianos (tienen prohibido llevarse a casa la comida sobrante o dejarla para el próximo día), en el resto de los establecimientos suelen:

- Gestionar las sobras como residuo (los depositan en el contenedor de recogida selectiva de biorresiduos).
- Se reparte entre la plantilla del establecimiento
- Se reparte entre la clientela
- Parte se congela para usos futuros y parte se aprovecha para preparar nuevos platos
- Se da a los animales de la casa (casa rural)

En todos los casos (salvo en la residencia de ancianos –desconocen cuánta comida sobra-), sobran menos de 5 kilos a la semana.

En cuanto a los alimentos que sobran, cabe señalar que en la guardería suelen sobran sobre todo manzanas, y en el hotel, bollería.

Los 4 establecimientos han respondido que nunca han participado en iniciativas dirigidas a prevenir el desperdicio (únicamente las buenas prácticas que suelen llevar a cabo por costumbre a la hora de realizar los pedidos y programar las compras) pero que desean recibir información al respecto y que estarían dispuestos a participar en futuros proyectos relacionados con este ámbito.

ENT environment & management
(Serveis de Suport a la Gestió S.L.)
B-62795372
Josep Llanza, 1-7, 2n 3a
08800 Vilanova i la Geltrú
+34 93 893 51 04
info@ent.cat | www.ent.cat

@ENTmediambient
ENTmediambient
ENT Environment & Management
ENT environment & management

ENT Environment and Management dispone de los certificados de los sistemas de gestión de acuerdo con las normas ISO 9001:2015 i ISO 14001:2015. Más información: **AQUÍ**



ARTELATZ INGURUMEN ZERBITZUAK S.L.

Izaskungo aldapa 3, 1. ezk.
20400 TOLOSA - Gipuzkoa

Telf: 943 670 637
www.artelatz.eus



ELIKAGAIEN XAHUKETA PREBENITZEKO EKINTZAK

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

MEMORIA

Urtarrila 2023

1 SARRERA

Elikagaien xahuketa nekazaritzako elikagaien katean bazter utzitako elikagaiak dira, oraindik ere jan daitezkeenak eta egokiak direnak giza kontsumorako. Alabaina, ez zaie erabilera alternatiborik ematen, eta, ondorioz, hondakin gisa suntsitzen dira.



Gaur egungo gizartean arazo larria da elikadura xahuketa, ekoiztutako elikagaien herenak zaborretan amaitzen du kontsumitua izan aurretik eta horrek sekulako ondorioak dauzka. Besteak beste, hainbat eta hainbatek elikadura osasungarri batera aukera ez duten garaian, elikagai kantitate onartezinak zaborretan bukatzen dutelako, eta hori ez ezik, elikagaiak zaborretara botatzean elikagaiak ekoizteko gaur egun gero eta mugatuagoak diren baliabideak ere zaborretan amaitzen dutelako.

Elikagaien xahuketa murriztea elikakateko agente guztiak inplikatzea eskatzen duen erronka kolektiboa da. Hori dela eta, Urola Kostako udalerrietan elikagaien xahuketa prebenitzeko gauzatutako ekintzetan ostalariak, komertzio handi zein txikiak eta herritarrak izan dira hartzaileak. Hain zuzen ere, gaur egun eskura dauden datuak aztertuz gero, elikadura xahuketaren % garrantzitsu baten arduradun direnak.

Gaiaren berritasuna eta konplexutasuna kontuan edukita, egindako ekintza multzoak, Urola Kostako Udal Elkarteari (UKUE) elikadura xahuketaren arloan oinarri bat eskainiko dio. Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten bost udalerrietako ostalaritzan zein supermerkatuetan elikadura xahuketarekiko duten jarreraren, iritziaren eta jokabidearen inguruko informazioaren berri jaso da. Hori ez ezik, bost udalerrietako hainbat herritarrekin elikadura xahuketaren inguruan sentsibilizatzeko tailerrak gauzatu dira. Garatutako ekintza multzoak janari xahuketa zuzenean jorratzen duen lehen entitateetako bat bihurtzen du UKUE eta hurrengo hilabeteetan lege berriak ekarriko dituen erronkei aurre egiteko egoera ezin hobean kokatu du.

2. TENPORALIZAZIOA

Hurrengo taulan agertzen da egindako lanen laburpena eta tenporalizazioa.

LANA	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	URT
Abiapuntua zehaztu								
Eskualdeko informazioa gureganatu								
Udalerrietako herritarrei zuzendutako gida eta errezetarioaren lanketa								
Etxeetan elikagai xahuketa murrizteko tailerrak								
Tailerren prestaketa eta antolaketa								
Tailerren garapena								
Elikadura xahuketa ostalaritzan								
Bisita eta galdetegia								
Mahaingurua								
Dohaintza sistema zirkuituaren diseinua								
Elikadura xahuketa supermerkatuetan								
Bisita eta galdetegia								
Bigarren bisita eta dohaintza indartzea aztertzea								
Elikadura xahuketa saltoki txikietan								
Bisita eta galdetegia								
Memoria eta txostenak								

3 EKINTZEN AZALPENA

3.1 ESKUALDEKO INFORMAZIOA GUREGANATU

2022ko ekainaren hasieran hasi ginen UKUErekin batera elikadura xahuketaren gaia jorratzen. Lehen bilera izan ostean, aurrera jarraitu ahal izateko jorratu behar genituen hurrengo puntuak zehaztu genituen: gaur egun elikadura xahuketaren testuingurua, EAEn elikadura dohaintzaren arauak eta elikadura xahuketari aurre egiteko irtenbideak.



Lehen pausoak eman ahal izateko Donostiako udaleko ingurumen saileko langileekin bildu ginen. Beraiekin bat etorri ginen **"Euskadin elikagaien soberakinak dohaintzan emateko orientazio-gida"** dela gaur egun EAEn elikagaien dohaintzan jarraitu beharreko prozedurak zehazten dituen dokumentua. Horretaz gain, aurten indarrean jartzea espero den "Anteproyecto de ley de prevención de las pérdidas y el desperdicio alimentario" ere aztertu genuen. Ondoren, gaur egun arte EAEn elikadura xahuketan eta dohaintzan egindakoa aztertu zen, baita aurtengo legeak gurean ekar ditzaken aldaketak ere. Horretaz gain, elikaduraren dohaintzan ezinbestekoak diren irabazi asmorik gabeko erakundeekin kontaktua ezarri zen, bereziki, REMAR erakundearekin. Hauekin Urola Kostako udalerrietan egiten duten lanaren inguruan eta lan egiteko moduaren inguruan hitz egin da.

3.2 UDALERRIETAKO HERRITARREI ZUZENDUTAKO GIDA ETA ERREZETARIOA



Lehenik eta behin, elikadura xahuketaren gaiaren inguruko informazio bilaketa egin zen. Gaiaren eta egoeraren irudi gaurkotu eta orokorra eskuratu zenean, hurrengo atalak dituen gida osatu zen: janari xahuketaren definizioa, janari xahuketaren inguruko datuak, janari xahuketak eragiten dituen inpaktuak eta etxebizitzetan janari xahuketa murrizteko aholku multzoa.

Horretaz gain, janari soberakinak aprobetxatzeko errezeta liburuxka ere osatu zen. Horretarako, errezeten inguruko informazioa bilatu zen eta eskualdeko udalerrietako ostalaritza elkarte eta ostalariekin kontaktuan jarri ginen. Lan horren ondorioz, eskualdeko bi ostalarik errezeta liburuxkan parte-hartzea eskuratu zen, eta guztira hamar errezetaz osatutako liburuxka egin genuen. Beste zortzi errezeten kasuan, guk geuk aukeratu eta prestatu ostean, argazkiak atera genizkien errezeta liburuxkan txertatu ahal izateko.

Azkenean, gida osatzen zuen informazioarekin eta hautatutako hamar errezetekin 16 orrialdeko gida osatu genuen. Ondoren, mankomunitatetik horrela eskatuta, gida laburtu egin zen. Amaierako produktua, herritarrekin egindako tailerretan banatutako gida laburrak izan ziren, bertan, QR kodigo bidez, errezeta liburuxka dohainik internetetik jaisteko lasterbidea gehitu zelarik.

3.3 ETXEETAN ELIKAGAIEN XAHUKETA MURRIZTEKO TAILERRAK

Lehenik eta behin, herritarrentzat elikadura xahuketa gutxitzeko gida oinarri hartuta, tailerra gauzatzeko gidoia eta baliabideak sortu genituen. Ondoren, udalerrietako ostalaritza elkarteetara zabaldu zen tailerra egiteko asmoa, baina ostalaritzan tailerra gauzatzeko espazioak topatzeko zailtasun handiak ikusi genituenean, elkarte gastronomikoetara jo genuen. Bide hori baliatuz, eskualdeko bost udalerrietan tailerra egiteko espazioa eta sukaldaria eskuratu zen. Hori ez ezik, AIALA sukaldari eskolan ere eskualdeko tailerra egitea adostu zen. Era horretan, herritarrekin ez ezik, etorkizuneko sukaldariekin ere elikadura xahuketaren gaiarekiko sentsibilizazioa lantzeko aukera eduki genuen. Bide horretatik 6 saio egiteko espazioak lotzea eskuratu zen: Alkar (Aia), Muskuilu Harria (Orio), Galeperra (Zarautz), AIALA sukaldari eskola (Zarautz), Arrantzale zahar (Getaria) eta Txoaskiña (Zumaia).



Tailerrak elkarte gastronomikoetako gertutasunean garatu ziren, guztira 60 pertsona inguruk hartu zutelarik parte. Herritarrek, besteak beste, arazoaren garrantzia, elikagaiak ondo kontserbatzearen garrantzia, iraungitze- eta kontsumo lehenetsiaren datak desberdindu, etiketen informazioa interpretatzea eta hozkailua eta izozkailua egoera egokian edukitzeren beharra landu dituzte. Gai horiek lantzeko, herritarrentzat prestatutako gidak eta tailerrerako espresuki diseinatu eta sortutako materiala erabili zen. Era horretan hurbildutako herritarrek aipatutako gaiak era aktiboan eta parte-hartzailean landu zituzten. Gainera, barazki soberakinak aprobetxatu ahal izateko berenjena beteen errezeta nola egiten den ikusi, ikasi eta tailerraren amaieran, dastatu ere egin ziren. Amaitzeko, partaidetza eskertzeko, gerturatutako herritarren artean kanpainan parte-hartu zuten ostalaritzan 100€-ko hiru bono zozketatu eta amantalak banatu ziren.


3.4 ELIKADURA XAHUKETA OSTALARITZAN

3.4.1 Bisita eta galdetegia

Lehenik eta behin, mankomunitatearekin adostuta, proiekturako interesgarriak izan zitezkeen galderak hautatu eta galdetegia diseinatu zen. Ondoren, mankomunitateak erraztutako ostalarien zerrenda baliatuta, ostalariei banan banan bisita egin, kanpaina eta gaiaren nondik norakoak laburki azaldu eta galdetegia osatu zen.

Udalerrietako ostalaritzan bisiten hainbat txanda egin ostean, **ostalaritzako 159 establezimenduk galdetegia osatzea lortu da**. Egindako galdetegietatik ateratako ondorio nagusiak ondorengo paragrafoetan azalduko dira.


Batetik, ostalarien gehiengo zabalak (% 92,9) jada badaki **zer den janari xahuketa**. Hala ere, **2023. urtean indarrean sartuko den legea**ren inguruan galdetutako ostalarien **% 2,5ak baieztatu dugu legearen nondik norakoak ondo ulertzen dituela**. Ostalarien erdiak telebistan edo irratian zerbait entzun dutela adierazi duten arren, onartze dute ez dakitela legeak zer proposatzen duen eta are gutxiago horrek nola eragin diezaieken, eta beste % 47,5ak berriz, ez duela indarrean sartuko den legearen berririk ere izan. Hori kontuan edukita, ostalarien gehiengo oso zabal batek (% 89,9) adierazi du, legea eta gaia aurrera doan heinean oso lagungarria izango litzatekeela mankomunitatearen partetik informazioa helaraztea.



Horretaz gain, ostalari oro konsziente da janaria xahutzea eurentzat diru-galera iturri garrantzitsua dela. Hori dela eta, **ostalari guztiek adierazi dute nolabait janari xahuketari konponbidea** emateko neurriak hartu dituztela. Ostalarien % 20ak uste du ez duela inolako arazorik janari-xahuketarekin. Talde horretan, batez ere, soilik pintxoekin lan egiten duten ostalariak, gehienbat parrilan lan egiten dutenak eta pasteurizatuta eta hutsean-biltegiratutako errazioekin lan egiten dutenak daude. Bestalde, gehiengoak (% 69,3) janari xahuketa murrizteko pausuak eman dituzten arren, hobetzeko aukera ikusten dute. Amaitzeko, % 10,5ak uste du azkenaldian aurrerapausoak egin dituzten arren, hobetzeko tarte handia dutela.

Ostalaritzan xahututako elikagaien iturri garrantzitsu bat **bezeroek euren platerean uzten dituzten soberakinak** dira. Ostalariek azken hilabeteetan nabaritu dute **platerean gelditutako soberakinak etxera eramateko eskatzea gero eta ohikoa** bihurtzen ari dela gure artean, eta jada, otorduak ematen dituzten **ostalaritzaren % 68,9an zerbitzariak aktiboki eskaintzen du** platereko soberakinak etxera eramatea. Hala ere, aurten bertan janari xahuketa murrizteko **indarrean sartuko den aurreproiektuan biltzen den neurrietako bat, argi eta garbi kartan janari soberakinak etxera eramatea bezeroaren eskubidea dela adieraztea, oraindik ez du inorrek egiten.**


Horretarako, oro har, otorduak ematen dituzten ostalariek **ontzi** desberdinak erabiltzen dituzte. Ostalari batzuek material desberdinetako ontziak erabiltzen dituzten arren, ekonomikoki eskuragarriak direlako eta likidoak hobe eusten dituztenaren argudiopean, **nagusitzen den materiala plastikoa da**. Hala ere, dezente izan dira hasiera batean plastikozko ontziak erabiltzen zituzten arren, ontzi konpostagarrietara igaro



direnak. Hori dela eta, joera pixkanaka plastikozko ontziak alde batera utzi eta ontzi konpostagarrien erabilpena handitzea izango dela uste dugu.

Amaitzeko, etorkizunean irabazi asmorik gabeko erakunde baten bidez elikagai soberakinak **dohaintza zirkuitu** batera bideratzeko aukera plazaratu zitzaien. Betiere, indarrean dauden elikadura segurtasun arauak direla eta, sukaldean prestatutako eta zerbitzatu gabe geldidutako janaria izan beharko litzateke dohaintzan emango litzatekeena. Horrenbestez, soilik pintxoekin lan egiten duten tabernak dohaintza sistematik kanpo gelditukо lirateke.

Otorduak ematen dituzten ostalariei dagokienez, erantzunak denetarikoak izan dira. Batetik, kantitate handi batek uste du ez duela dohaintza sisteman parte hartzeko behar beste elikagai xahutzen. Bestetik, beste batzuek uste dute lan karga bat gehiago izan daitekeela eurentzat eta ziurtasuna eskaini arte elikadura-segurtasunarekin arazoak edukitzeko beldur dira. Hala ere, gehiengoa izan da ideia oso egokia delaren iritzia eman duena eta horren erakusle da galdetutako **ostalarien % 63,7k dohaintza zirkuitua antolatzen hasi ezkero, informazioa jaso nahiko luke**naren datua.



Bisitetan hainbat ostalarik galdetegia osatzen zuten heinean, mankomunitatearentzat zenbait **ohar** bidaltzeko ere aprobetxatu zuten:

- Zaharren Babeslekua: Beirazko edukiontzia hautsita dute eta aldaketa eskatzen dute.
- Bai Bidea jatetxea: errefusa maizago bildu dadin eskatzen dute. Komunean pardela aldatzeko aukera dute eta zaborrak usaina hartzen die.
- Tximista Garagardotegia: Organikoaren txartela egunero erabili ahal izateko aktibatzea eskatzen du.
- Beach taberna: Uraren kontadorea begiratzeko eskubidea ote duen jakitea gustatuko litzaioke. Aurtengo hilabete batean inoiz baina ur gehiago gastatu duela esan diote eta berak ez du ulertzen nola, eta horregatik, kontadorea begiratu nahiko luke.
- Napar Zahar: Beirazko edukiontzia hautsita dute eta aldaketa eskatzen dute.

3.4.2 Mahaingurua

Ostalariei egindako bisitetan, galdetegiarekin batera, udal elkartean antolatutako mahaingurura hurbiltzeko gonbita egin zitzaien. Guztira 11 ostalarik hartu zuten parte azaroaren 30an egindako mahainguruan. Bertan, diapositiba batzuen laguntzaz, hurrengo gaiak landu ziren: elikadura xahuketa zer den, zein arazo eragiten dituen, ostalaritzak ze foku izan ditzaken, 2023. urtean indarrean sartzea aurreikusten den legearen nondik norakoak eta horrek ostalariei nola eragin diezaieken. Guzti horretaz gain, ostalariek gaiaren inguruan dituzten esperientziak, zalantzak eta kezkak plazaratu eta elkarbanatu zituzten.



Mahi inguruak ordu eta erdi inguru iraun zuen eta hasieran giroa hotz xamarra izan zen arren, ostalari guztiak parte hartzen amaitu zuten. Gehiengoaren kezkak lege berriak eurentzat lan gehigarriak ekarriko dituela eta janari soberakinak etxera eramateko ontziak kostu garrantzitsua bilakatu ditekeela izan dira. Euren parte hartzea eskertzeko, sentsibilizazio tailerrean parte hartutako herritarren artean zozketatutako 100€-ko bonoak soilik euren establezimenduetan gastatzeko aukera eta ostalari bakoitzari 100 ontzi konpostagarri eta amantala bat eman genizkien.

3.4.3 Dohaintza sistema zirkuituaren diseinua

Ostalaritzan xahututako elikagaiak dohaintza zirkuitu batera bideratzeko posibilitatea aztertzen hasi ginenean, egoeraren konplexutasunaz ohartu ginen. Izan ere, informazioa zein ereduak topatzen hasi ginen heinean, ohartu ginen estatu mailan ez dagoela izaera eta dimentsio hortako dohaintza sistemarik.

Hutsetik hasteko oinarri faltak genituenez, estatu mailan elikagaien dohaintzan erreferente diren Rexcatering enpresarekin kontaktatu genuen. Eurentzat izaera hontako sistema bat diseinatzea erronka bat den arren, ikastetxeetan duten esperientzia ezin baliagarriago da.

Horrenbestez, Rexcatering-eko langileekin bildu, eskualde zein udalerrien ezaugarriak azaldu eta ostalaritzan sukaldean prestatutako elikagaiak dohaintzan emateko sistema baten proposamen logistiko eta ekonomiko bat egin zuten (5.3 eranskina). Gainera, UKUEra ere hurbildu ziren euren proposamenaren nondik norakoak azaltzeko.

3.5 ELIKADURA XAHUKETA SUPERMERKATUETAN

3.5.1 Bisita eta galdetegia

Lehenik eta behin, supermerkatuetatik eskuratu nahi zen informazioa kontuan edukita galdetegi bat diseinatu zen. Galdetegi horretan xahututako elikagaien tipologia, kantitatea eta kausa jakitea izan da helburu nagusia. Horrekin batera, dohaintzan parte hartzen ote duten jakin, eta horrela ez bada, horretara bultzatu zen.

Elikagaiei dagokienez, oro har, gehien xahutzen den elikagai mota frutak eta barazkiak dira. Horren ostean, okindegiko produktuak dira gehien xahutzen direnak. Jarraian berriz, esnekiak dira aipatuenak.

Fruta eta barazkien kasuan, aipatutako arrazoi nagusia usteltzea izan da. Bestalde, salmentan edukitzeko kalitate irizpideak agertu dira: gehiegi heltzea edo kolpeak izatea.

Ogia berriz, produktua egunero aldatu behar dutenez, gehienetan zaborretara bota ohi dute. Hala ere, badira baserritarrei ogia ematen dieten supermerkatuak ere. Bestalde, supermerkatu txiki batzuk okinekin egiten dute lan, eta horiek, egunero aldatzen die supermerkatuko ogia, aurreko egunean soberakinik gelditu ezkero horiek eramanez. Horrenbestez, supermerkatu horiek ez dute zuzenean ogirik xahutzen.

Esneki marka batzuk (Kaiku, Danone, Mahala…) supermerkatu gehienetan euren produktuak kontsumitzeko lehenetsitako data igaro ostean bildu egiten dituzte, supermerkatuetatik xahutze iturri hori ezabatuz. Bestalde, supermerkatu txikietan langileek lehenetsitako data igarotako esnekiak etxean kontsumitzea ohikoa dela ere ikusi dugu.

Banaketan kaltetutako ontziak dituzten elikagaiei dagokienez, supermerkatuen kasuistika aztertu behar da. BM eta DIA supermerkatuetan produktuak kaltetuta iristen badira supermerkatura, zentralera itzultzen dituzte eta bertatik produktu berriengatik ordezkatzen dizkie. Eroskin berriz, kaltetuta iristen diren ontziak, oro har, ez dituzte zentralera itzultzen, eta horrenbestez, dohaintzan emateko aukera edukitzen dute.

Bestalde, supermerkatu bakoitzaren erantzunak 1. eranskinean bildu dira, konkretuki supermerkatu ororen kasuistika ezagutzea eskura eduki ahal izateko.

3.5.2 Bigarren bisita eta dohaintza indartzea aztertzea

SUPERMERKATUEN ZERRENDA

- BM1: Lege zaharren enparantza, 4 - Zarautz
- BM2: Nafarroa kalea, 37 - Zarautz
- BM3: Ardantzabidea, 2 – Zumaia
- BM4: Balenciaga kalea, 10 - Getaria
- CA: Zigordia kalea, 47 – Zarautz
- CO1: Gipuzkoa kalea, 64 – Zarautz
- CO2: Indamendi kalea, 8 – Zarautz
- CO3: Elkano kalea, 8 – Getaria
- D1: Iturribide kalea, 3 – Orio
- D2: Iturribidea kalea, 1 - Zarautz
- D3: Izustarri kalea, 2-4 – Zumaia
- E1: Ixarra kalea, 7 – Orio
- E2: Eusko Gudari kalea, 13-15 - Orio
- E3: Araba kalea, 2 – Zarautz
- E4: Santa Marina Kalea, 16 - Zarautz
- E5: Alaia auzategia auzoa, 10 – Zumaia
- E6: Plaza de los fueros – Zumaia
- E7: Kale nagusia 14 – Getaria

BM: BM
CA: Carrefour
CO: Coviran
D: DIA
E: Eroski

Urola Kostako udalerrietako supermerkatuak izaera oso desberdinekoak dira eta aniztasun horrek zuzenean eragiten du elikagaien dohaintzan. Zehazki hurrengoak dira elikagaien dohaintzan eragin nagusia duten hiru faktoreak: enpresaren antolakuntza, supermerkatuaren izaera juridikoa eta supermerkatuaren azalera.

Enpresaren antolakuntza dagokienez, besteengatik gehien desberdintzen dena BM da. Izan ere, Urola Kostako udalerrietako BM guztiek antolakuntza eta funtzionamendu oso zentralizatua dute, supermerkatuaren funtzionamenduaren atal nagusiak zentralak erabakitzen duelarik. BM supermerkatuetako zentralak zuzenean Elikagaien Bankuarekin akordioa du, eta udalerrietako supermerkatuek, arrazoi desberdinengatik, elikagaiak zentralera bueltatzen dituztenean bertatik egiten da dohaintza Elikagaien Bankura. Horretaz gain, BM supermerkatuek *Toogoodtogo* aplikazioan parte hartzen dute, elikagaien xahuketa ekiditeko beste bide bat delarik. Hori dela eta, BM enpresekin ez dago dohaintzarako akordio berririk eskuratzeko aukerarik. Egoera horren barne dira BM1, BM2, BM3 eta BM4 supermerkatuak.

Bestalde, supermerkatuaren izaera juridikoa eta azalera nahiko erlazionatuta daude. Batetik, azalera txikia duten supermerkatuek ez dute irabazi asmorik gabeko erakunde batek astero bilketa bat antolatzeko haina elikagai xahutzen. Gainera, langile gutxi batzuen eskuetan egon ohi direnez, galtzear dauden elikagaiak etxera eraman eta beraiek aprobetxatzen dituzte. Hurrengo supermerkatuak sartzen dira talde honetan: CA, CO1, CO2, CO3, E2, E3, eta E7.

Bestetik, oro har, Urola Kostako azalera txikiko supermerkatuak frankiziak dira. Horietaz gain, azalera handiko zenbait supermerkatuk ere frankizia gisa funtzionatzen dute. Frankizia diren supermerkatuetan euren irabaziak saltzen dituzten produktu kopuruarekin dago zuzenean erlazionatuta. Hori dela eta, azken momenturaino saiatzen dira euren produktuak saltzen, esaterako produktuaren iraungitze-data heltzeko 5-6 egun falta direnean deskontuak ezarriz. Horrenbestez, iraungitze-data heltzeko 3-4 egun falta diren produktuak salmentan mantendu beharrean dohaintzan emateak, diru galera dakar supermerkatuarentzat. Azken hori kontuan edukita, euren azaleragatik dohaintzan eman ahal izateko produktuak pilatu ditzaketen arren, diru galera ahalik eta txikienak izateko, ez dute dohaintza akordiorik. Horretaz gain, eskaini zaien arren, ez dute dohaintza akordiorik egin izan nahi. Kasuistika horren barne daude: D1, D2, D3 eta E6.

Amaitzeko, E1, E4 eta E5 supermerkatuen kasuistika dago. Eroski Supermerkatu hauek dohaintzan emateko elikagaia kopurua sortzeko beharrezko azalera dute, eta gainera, ez dute frankizia gisa funtzionatzen. Ez dutenez frankizia gisa funtzionatzen, supermerkatuko enkargatuak diren soldatak ez daude zuzenean salmentekin erlazionatuta, eta gainera, Eroskiko zentraletik presioa dute dohaintza akordioak izateko. Hori kontuan izanda, aipatutako hiru supermerkatuek elikagaiak dohaintzan emateko akordioak dituzte. Hala ere, BM supermerkatuekiko funtzionamendua desberdina da, dohaintza akordioak supermerkatu bakoitzaren eskuetan baitaude.

Aipatutako hiru supermerkatuetatik REMAR irabazi asmorik gabeko erakundea igarotzen da elikagaiak jasotzera. Kasu horietako bakoitzean bilketa astean behin egiten dute, E1 supermerkatuan astelehenetan, E4 supermerkatuan asteazkenetan eta E5 supermerkatuan asteartetan. Lehen bi supermerkatuek astean behin elikagaiak dohaintzan eman arren, bilketa eta bilketa arteko egunetan dohaintzan eman daitezkeen elikagaiak zaborretara botatzen dituzte. Horri konponbidea emateko, REMARekin eta bi supermerkatuekin kontaktuan jarri gara. Bi supermerkatuekin elikagaiak dohaintzan emateko astean beste bilketa bat egitea adostu da. Horrekin batera, REMARi pasa zaio bi supermerkatu horien asmoen berri eta eurak gaur egun dituzten bilketa zirkuituekin ea bat egiten dien eta posible ote duten aztertzen ari dira.

3.6 ELIKADURA XAHUKETA SALTOKI TXIKIETAN

Elikadura xahuketa supermerkatu handi eta ostalaritzan ez ezik, saltoki txikietan ere ematen denez, beharrezkoa da eurengana ere gerturatzea. Hori dela eta, supermerkatuetan informazioa eskuratzeko prestatutako galdera antzekoekin hurbildu ginen saltoki txikietara. Guztira, Urola Kostako Udal Elkartetik bidalitako hamahiru saltoki txikietatik hamaikak osatu dute galdetegia. Galdetegia osatu ez duten bi saltokiak ez dira topatu.

Saltoki txikiak supermerkatuekin alderatuz gero, xahutzen duten elikagai mota antzekoa izan arren, xahututako kantitatea askoz ere txikiagoa da. Hain zuzen ere, xahututako elikagaien **gehiengoa fruta eta barazkiak** dira. Elikagaiak xahutzearen arrazoi nagusia salmentarako itxura txarra hartzea (helduegia, kolpeak…) edo usteltzea izan ohi dira. Bataz beste, xahututako barazki eta frutekin eta egunean zehar garbitutako barazkien atalekin (hosto berdeak…) **organikoaren edukiontziaren erdia** betetzen dute. Beste eratako elikagaien kasuan, oso gainean egon ohi direla diote, eta gutxitan pasatzen zaiela data.

Gehiengoaren ustetan, ideia oso interesgarria eta aberasgarria iruditzen zaie, eta horietatik batzuk, salmentatik helduegia izateagatik banandutako fruta edo barazkia dohaintzan emateko moduan egongo liratekeela uste dute. Hori bai, dohaintzan emateko kantitatea txikia izango litzateke eta azkar aprobetxatu beharrekoa. Horrenbestez, dohaintza oso konkretuak eta maiztasun aldakorrekoak izatea, dohaintza sistema edo zirkuitu bat antolatzea zailtzen du.

Bestalde, aipagarria da, denda txikiak direnez, kasu batzuetan eurak arduratzen direla salmentatik banatzen dituzten elikagaien trataeraz. Hain zuzen ere, hainbat saltoki txikitan salmentarako helduegiak dauden fruta eta barazkiak edota data igaro berri duten produktuak langileen, betiko erosleen edo ekonomikoki justu dauden familien artean banatzen dituztela.

Amaitzeko, saltoki txikien banakako erantzunak ikusgai daude 2. eranskinean.

4 BALORAZIO OROKORRA

Elikadura xahuketaren gaiaren lanketa beharrezkoa zein berritzailea izan da. Proposamenean aurkeztutako gauza anbiziotsuek egoera eta planteamendu berrien aurrean jarri gaitu eta erakunde desberdinetako jendearekin kontaktuan jartzea eraman gaitu.

Ez dago inolako zalantzarik hurrengo urteetan erakundeetatik desberdinetatik janari xahuketaren arazoari erantzuteko saiakerak areagotu egingo dela, esaterako horren adibide da urte honetan Espainiar Estatuan janari xahuketa murrizteko indarrean sartzea espero den legedia.

Gauzatu berri dugun ekintza sortak, UKUE janari xahuketa lantzen duen lehenengo erakundeetako bat bihurtu du, eta hurrengo urteetan sortuko den paradigma berrirako ondo kokatuta egotea ahalbidetuko dio.

Janari xahuketaren sentsibilizazioan eta lanketan emandako lehenengo pausoetan, agian, hasiera batean uste genituen baina zailtasun gehiago topatu ditugun arren, hurrengo ekintzak antolatzeko oinarri sendoa eskaintzen duten ekintza eraginkor eta aberasgarriak gauzatu direla uste dugu. Hori dela eta, oro har, egindako ekintzen balorazio positiboa egiten dugu.

5 ERANSKINAK

5.1 SUPERMERKATUEN GALDETEGIEN ERANTZUNAK

BM

- Helbidea: Lege zaharren enparantza, 4 - Zarautz
- Helbidea: Nafarroa kalea, 37 - Zarautz
- Helbidea: Ardantzabidea, 2 – Zumaia
- Helbidea: Balenciaga kalea, 10 - Getaria

BM supermerkatuen kasua bateratua da. Supermerkatu horietan Elikagaien Bankuak akordioa du zuzenean BM-ko zentralarekin. Hain zuzen ere, Elikagaien Bankua egunero igarotzen da zentraletik aprobetxagarria den elikagai freskoen (fruta eta barazkiak) bilketa egitera. Horretaz gain, astean behin ere igarotzen dira bestelako elikagaien bila.

Bestalde, BM supermerkatuek **Toogoodtogo** aplikazioan parte hartzen dute. Horren bidez, iraungitze-datatik oso gertu dauden produktuekin “loteak” sortzen dituzte eta aplikazioan salgai jartzen dituzte prezio merkean. Era horretan, iraungitzean dauden elikagaiak aprobetxatzea eskuratzen du supermerkatuak eta erosleak berriz, hurrengo egunetan kontsumitzeko produktuak prezio merkeagoan. Horri dagokienez, salbuespena da Getarian kokatutako BMa, ez baitu Toogoodtogo aplikazioan parte hartzen. Izan ere, zerrendako BM txikiena da eta ez zaio galtzear dagoen genero nahikorik pilatzen “loteak” egiteko.

Hori dela eta, supermerkatuan zuzenean sortzen den elikadura xahuketa nahiko txikia da. Izan ere, supermerkatuetatik egunero igarotzen da produktuak zentralera eramaten dituen kamioia. Kamioietan itxura txartzen hasi den barazkiak eta frutak, garraioan kaltetuta iritsi diren produktuak, iraungitze-data igaro zaien produktuak etab. eramaten dira.

Bestalde, Kaiku, Danone, Mahala etab. markek iraungitako esnekiak biltzen dizkiete. Horrenbestez, supermerkatuetan xahutzen den janaria usteldutako frutak, barazkiak eta aurreko eguneko ogia dira batez ere.

EROSKI

1. Helbidea: Ixarra kalea, 7 – Orio
2. Helbidea: Eusko Gudari kalea, 13-15 - Orio
3. Helbidea: Araba kalea, 2 - Zarautz
4. Helbidea: Santa Marina Kalea, 16 - Zarautz
5. Helbidea: Alaia auzategia auzoa, 10 – Zumaia
6. Helbidea: plaza de los fueros – Zumaia
7. Helbidea: Kale nagusia 14 – Getaria

Eroski supermerkatuetan bi kasuistika nagusi banatu daitezke, dimentsio handiko supermerkatuena eta dimentsio txikiko supermerkatuena. Dimentsio handia duten Eroski supermerkatuek, oro har, elikagaien dohaintzarako akordioak dituzte (1., 4. eta 5.). Horietan, elikagaien bilketa astean behin gauzatzen da eta supermerkatuak eskura dituen baliabideen arabera dohaintza desberdina da. Aipatutako supermerkatu guztiek (1., 4. eta 5.) banaketan kaltetutako ontziak dituzten elikagaiak zein iraungitzetik gertu dauden esnekiak dohaintzan ematen dituzten arren, soilik 1. supermerkatuak ematen ditu dohaintzan itxuragatik saldu ezin daitezkeen baina oraindik jangarriak diren fruta eta barazkiak. Hain zuzen ere, salmentatik produktu horiek kendu ostean, dohaintzan egoera egokian ematen direla ziurtatzeko, hozkailuetan mantendu behar dira, eta 4. eta 5. supermerkatuak horretarako instalaziorik ez dutenez, ezin izaten dituzte dohaintzan eman. Azalera handiko supermerkatuen artean salbuespena da 6. Supermerkatua. Hain zuzen ere, frankizia gisa funtzionatzen duenez, ez du inolako dohaintza akordiorik.

Bestalde, aipagarria da 4. supermerkatuan aipatu ziguten kasua, posible baita, dohaintzan elikagaiak ematen dituzten Eroski supermerkatuetan berdina gertatzea. 4 supermerkatuan Elikagaien Bankuak bilketa astean behin soilik egiten duenez, produktu asko zaborretara bota behar izaten dituzte. Azken finean, bilketa larunbatetan egiten denez, dohaintzat astelehenean edo asteartean iraungiko diren produktuak eman ditzakete. Hurrengo egunetan iraungitzear dagoen guztia berriz, zaborretara bota behar izaten dute, zehazki, asteazkenean, ostegunean, ostiralean edo larunbatean bertan iraungitzen dena. **Horren harira, aztertzekoa litzateke, beharrezko luketen supermerkatuetan, astean zehar beste bilketa bat egiteko aukera.**

Dimentsio txikia duten supermerkatuetan berriz, ez dago dohaintza akordiorik. Hala ere, janari xahuketa ekiditeko bestelako irtenbideak erabiltzen dituzte. Esaterako, aurreko eguneko ogia baserritarrei ematea (2), heldu xamar dauden fruta eta barazkiak langileak etxera eramatea (2,3), iraungita dauden esnekiak langileak etxera eramatea (2,3). Horretaz gain, 3. supermerkatuan okinak goizera ekartzen du eguneko ogia eta eramaten ditu aurreko eguneko soberakinak, eta horrenbestez, supermerkatuan ez da ogirik xahutzen.

DIA

- Helbidea: Iturribide kalea, 3 – Orio
- Helbidea: Iturribidea kalea, 1 - Zarautz
- Helbidea: Izustarri kalea, 2-4 – Zumaia

Urola Kostako Dia supermerkatuek ez dute dohaintza akordiorik. Bisitatutako hiru supermerkatuetako gerenteek azpimarratu dute banaketan kaltetutako produktuak edo iraungitakoak zentralak biltzen dizkiela. Horrenbestez, dohaintza zirkuitu batean parte hartu nahi balute zentralarekin hitz egin behako litzatekela. Bestalde, DIAk frankizia gisa funtzionatzen dute, eta horrenbestez, gerenteak edo nagusiak dituzten salmenta kopuruen onurak edo gabeziak jasotzen dituztela. Hori dela eta, azken momentua iritsi arte bertan dituzten produktuak saltzen saiatzen dira. Horretarako, iraungitze-datarako astebete inguru falta denean deskontuak ezartzen dituzte. Esaterako, Orioko Dia supermerkatuko gerenteak dohaintzan emateko prest egongo litzateke produktua iraungitzen den egunean berean edo egun bat lehenago, bestela dirua galdu egiten duela iruditzen zaio eta.

COVIRAN

- Helbidea: Gipuzkoa kalea, 64 – Zarautz
Ikastetxeetan ere hainbat jarduera burutu dira elikagaien xahuketaren inguruan bai ikasleak bai irakasle eta jantokiko langileak sentsibilizatzeko. Jarraian gauzatutako ekintza guztiak garatzen dira.

3.2.1 KARTEL INFORMATIBOEN DISEINUA ETA ITSASTEA

Vermicanek ikastetxeetan elikagaien xahuetaren inguruan sentsibilizatzeko kartel batzuk diseinatu ditu, bai ikasle, bai irakasle eta gurasoen artean xahuketa murrizteko egin beharreko keinu ezberdinak zabaltzeko.

7. Irudia ***DISEINATUTAKO KARTELAK***



Kartelak 11 ikastetxeetan itsatsi behar zirenez, guztira, 33 kartel inprimatu dira, 11 kartel diseinu mota bakoitzeko. Kartel hauek jantokiko dinamikaren egun berean itsatsi dira eskoletan.

8. Irudia ***KARTELETAKO ARGAZKIAK IKASTETXE EZBERDINETAN ITSATSITA***







3.2.2 IKASTETXEEN JANTOKIKO SENTSIBILIZAZIO DINAMIKA

Elikagaien xahuketaren arazoaren dimentsioak ikasleen artean ikusarazteko helburuarekin, Vermicanek Urola Kostako ikastetxe guztietako jangeletan sentsibilizazio dinamika bat burutu du. Eskualdean guztira hamabi ikastetxe izan arren, hamar ikastetxe baino ez da gauzatu jangelako dinamika, Lardizabal Ikastola, Aian, eta Zumaiena, Zumaian, ez dutelako parte hartu izan nahi.

Saioaren iraupena ikastetxe bakoitzaren bazkal orduaren iraupenaren araberakoa izan da. Hala ere, bazkal orduan baino lehenago dena antolatzeko denbora gehiago behar izan da, baita bazkal ordua bukatu eta gero kuantifikazioa era egokian egiteko eta dena batzeko ere.

9. Irudia ***IKASTETXE BAKOITZEKO JANTOKIKO DINAMIKAREN DATA, ORDUTEGIA ETA BESTE DATU BATZUK***

Ikastetxea	Udalerria	Data	Ordutegia
Juan Zaragueta	Orio	24/10/2023	12:30-14:30
Orioko Herri Eskola	Orio	26/10/2023	12:30-14:30
Oikia LHLI	Zumaia	02/11/2023	12:30-13:30
La Salle	Zarautz	13/11/2023	12:30-14:00
Iturzaeta Herri Eskola	Getaria	20/11/2023	12:30-13:15
Orokieta	Zarautz	22/11/2023	14:00-15:00
Zumaia BHI	Zumaia	29/11/2023	12:25-15:00
Antoniano	Zarautz	30/11/2023	13:10-14:50
Salbatore Mitxelena	Zarautz	01/12/2023	12:40-13:30
Lizardi	Zarautz	12/12/2023	14:30-15:00

Dinamikaren funtsa, jangeletan botatzen den janari kantitatea neurtzea izan da. Horretarako **plateretako eta erretiluetako janari soberakinak jaso eta bazkal orduaren bukatzea pisatu dira**. Halaber, ikasleak bazkaltzen zuten bitartean, Vermicaneko hezitzaile bat mahaiez-mahai joan da dinamika zertan datzan eta elikagaien xahuketak dakartzan arazo ezberdinak azalduz.

10. Irudia ***JANTOKIKO DINAMIKAREN ARGAZKIAK***










Egoerak ahalbidetu duenean, elikagaien soberakinen pisaketa ikasleekin batera egin da.

11. Irudia ***ELIKAGAIEN XAHUKETAREN KUANTIFIKAZIOA IKASLEEKIN BATERA***









Dinamikaren pisaketaren emaitzak ikasle kopurua eta menuaren arabera oso aldakorrak direla ikusi da. Izan ere, eskualdeko ikastetxeen xahuketaren egoeraren azterketa egin nahiko balitz, dinamika hau gutxienez aste oso batean zehar egin beharko litzateke ikastetxe bakoitzean.

12. Irudia ***JANTOKIKO DINAMIKAREN EMAITZAK***

Ikastetxea	Pertsona kopurua	Menua	Xahututako vol (L)	Xahututako pisua (kg)	Xahututako kg/pertsona
Juan Zaragueta	171	Sopa, legatza eta jogurta	50	47,2	0,276

Ikastetxea	Pertsona kopurua	Menua	Xahututako vol (L)	Xahututako pisua (kg)	Xahututako kg/pertsona
Orioko Herri Ikastola	92	Dilistak, patata tortilla eta jogurta	45	18,9	0,205
Oikia LHLI	11	Purea, haragi gisatua, jogurta	5	2,4	0,218
La Salle	360	Patatak errioxar erara, hanburgesak tomatearekin eta jogurta	50	29,3	0,081
Iturzaeta Herri Eskola	96	Arroza tomatearekin, legatza letxugarekin eta laranja	30	16,8	0,175
Orokieta	170	Arroza barazkiekin, oilazko izterra letxugarekin, natillak	50	27	0,158
Zumaia BHI	193	Makarroiak tomatearekin, arraina letxugarekin, madaria	45	21,5	0,111
Antoniano	210	Sopa, enpanadillak eta jogurta	20	9,4	0,045
Salbatore Mitxelena	200	Purea, arroza haragiarekin eta sagarra	50	31,2	0,156
Lizardi	42	Dilistak, arroza barazkiekin eta mandarina	30	11	0,263

Guztira, 10 ikastetxe ezberdinetako **1.545 ikasle sentsibilizatu dira** burutu den dinamikarekin. Gainera, jangeletako langileak ere aktiboki parte hartu dute burutu diren ekintzan.

ELIKAk (Nekazaritzarako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa) egindako azterketa batean, Euskadiko etxeetan, urtean batez beste 0,169kg/pertsona xahutzen direla ikusi da (atal jangarria eta ez jangarria kontuan hartuta). Datu hau dinamikan ateratako ondorioekin alderatzen badugu, La Salle, Orokieta, Zumaia BHI, Antoniano eta Salbatore Mitxelena bataz bestekoaren azpitik egongo lirateke. Juan Zaragueta, Orioko Herri Ikastola, Oikia, Iturzaeta Herri Eskola eta Lizardi institutua, aldiz, euskal etxeen bataz bestekoa baino balio handiagoak izan dituzte. Lizardi eta Juan Zaragueta ikastetxeetan xahuketa handia behatu da.

Datu hauen zergatiak anitzak izan daitezke, eragin gehien dauzkaten faktoreak menua eta ikasle kopurua direlarik. Izan ere, janariaren izaeraren arabera, ikasleek egun batzuetan hobeto edo txarrago jaten dute. Jangeletako langileek ere hau konfirmatu dute, orokorrean barazkiak eta arraina dituzten

egunetan gutxiago jaten dutela hain zuzen. Haragia eta janari frijituak dituzten platerak, aldiz, orokorrean nahiko ondo jaten dira eta egun horietan ez da janari asko sobratzen.

Halaber, bazkaltzen duten ikasle kopurua ere faktore garrantzitsua da. Izan ere, aurreikusita dagoen ikasle kopurua askotan ez dator bat errealitatearekin, ikastetxe askotan, batez ere handienetan, sarritan bazkal orduan ikasleak falta direlako.

Antoniano eta Salbatore Mitxelena ikastetxeetan izan ezik, bisitatutako jangela guztietan erretiluetan soberan gelditzen zen janaria zaborrera botatzen dela behatu da. Antonianok AIBAK enpresarekin lan egiten duen eskola bakarra da, eta enpresa honetan soberakinak enpresari bueltatzen zaizkio. Salbatore Mitxelenak, aldiz, sukalde propioa dauka, eta aprobetxatu ditzakeen soberakinak hurrengo eguneko menua egiteko berrerabiltzen ditu. Beste ikastetxe guztiek GAZKA edo AUSOLAN enpresekin lan egin edota sukalde propioa daukate.

Dena den, azterketa era egokian egiteko gutxienez ikastetxe bakoitzean aste batean zehar egunero kuantifikatu beharko litzateke botatzen den janari kantitatea, egunez egun menua, ikasle kopurua, eta beste faktore asko aldatzen baitira. Hala ere, dinamika honen kasuan, helburua ikasleak, irakasleak eta jangelako langileak sentsibilizatzea izan da.

3.2.3 DBHRAKO SENTSIBILIZAZIO TAILERRAK

Eskualdeko eskolen DBH2ko klase guztietan elikagaien xahuketa ezagutu eta murrizteko tailerrak burutu dira.

13. Irudia ***XAHUKETA TAILERREN DATAK ETA ORDUTEGIAK***

Ikastetxea	Udalerria	Tailer kopurua	Data	Ordutegia
Juan Zaragueta	Orio	1	24/10/2023	9:30-10:20
Orioko Herri Eskola	Orio	2	26/10/2023	9:30-11:30
Zumaiena	Zumaia	2	06/11/2023	10:15-12:05
La Salle	Zarautz	2	13/11/2023	10:30-12:30
Zumaia BHI	Zumaia	5	29/11/2023	09:10-14:15
Antoniano	Zarautz	2	30/11/2023	12.10-15:40
Salbatore Mitxelena	Zarautz	3	01/12/2023	9:25-12:40
Lizardi	Zarautz	5	12/12/2023	8:30-14:30

Tailerrak urrian hasi eta abenduan bukatu dira eta 8 ikastetxeetan burutu dira.

14. Irudia ***TAILERREN SAIO BAKOITZAREN IRAUPENA ETA IKASLE KOPURUA***

	Ikastetxea	Ordutegia	Saioaren iraupena	Ikasle kopurua
1	Juan Zaragueta	9:30 - 10:25	55 min	20
2	Orioko Herri Eskola	9:30 - 10:20	50 min	29
3	Orioko Herri Eskola	10:50 - 11:40	50 min	28
4	Zumaiena Ikastetxea	10:15 - 11:10	55min	23
5	Zumaiena Ikastetxea	11:10 - 12:05	55min	22
6	La Salle	10:30 - 11:25	55 min	25
7	La Salle	11:25 - 12:20	55 min	25
8	Zumaia BHI	9:10 - 10:05	55 min	22
9	Zumaia BHI	10:05 - 11:00	55 min	21
10	Zumaia BHI	11:30 - 12:25	55 min	22
11	Zumaia BHI	12:25 -13:20	55 min	21
12	Zumaia BHI	13:20 - 14:15	55 min	22
13	Antoniano	12:10-13:10	1h	21
14	Antoniano	14:40-15:40	1h	23
15	Salbatore Mitxelena	9:25-10:20	55 min	28
16	Salbatore Mitxelena	10:50 - 11:45	55 min	27
17	Salbatore Mitxelena	11:45 - 12:40	55 min	26
18	Lizardi	8:39-9:25	55 min	25
19	Lizardi	9:25-10:20	55 min	22
20	Lizardi	10:35-11:25	50 min	23
21	Lizardi	11:25-12:15	50 min	24
22	Lizardi	12:40-13:35	55 min	23
23	Lizardi	13:35-14:30	55 min	-

Ikastetxea	Ordutegia	Saioaren iraupena	Ikasle kopurua
		GUZTIRA	522

Guztira 23 tailer antolatuta egon arren, azkenean 22 baino ez dira egin. Lizardin prestatuta zegoen azken tailerra irakasgai hautagai batekin kointziditu du, eta ondorioz ezin izan da klaseko ikasle guztiak batu tailerra emateko. Hala ere, DBHko **522 ikasleek jaso dute tailerra**.


15. Irudia ***TAILERRAREN ARGAZKIAK IKASTETXE EZBERDINETAN***















Tailerrean landu dena honako hau izan da:

- Zer da elikagaien xahuketa?

- Euskadi eta Urola Kostako egoera
- Inpaktuak
- Zer egin dezakegu xahuketa gure egunerokotasunean murrizteko?
- Ariketak:
    - Talde txikitan hainbat produktuen ontziak erabilita iraungitze-data eta kontsumo lehenetsiaren data bereiztea.
    - Elikagaiak hozkailuan behar bezala biltegiratzea.
    - Elikagai soberakin ezberdinekin aprobetxamenduko errezetak asmatzea.

3.3 SORTZAILE HANDIEI ZUZENDURIKO EKINTZAK

Elikagaien xahuketaren aldetik eskualdeko sortzaile handien egoera ezagutzeko, elikagai hondakinak sortzen dituzten establezimenduak bisitatu dira. Izan ere, UKUEk adierazitako 60 taberna, jatetxe eta kafetegiak bisitatu dira. Itxita aurkitu direnean, bigarren bisita bat egiten zaie, baina kasu batzuetan antzeko beste establezimendu bat bisitatu behar izan da.

16. Irudia ***BISITATUTAKO ESTABLEZIMENDUEN ZERRENDA***

Herria	Komertzioaren izena	Data	Kontaktatua	Galdetegia bete du?
Aia	Gozategi Enparantza: Kanua Jatetxea	2023-10-04	Ez	-
Aia	Iturriozena Taberna	2023-10-04	Bai	Ez
Aia	Aize Berri Taberna	2023-10-04	Bai	Bai
Getaria	Erretegia: Mayflower	2023-09-27	Bai	Bai
Getaria	Erretegia: Astillero	2023-09-27	Bai	Bai
Getaria	Taberna: Mahasti	2023-09-27	Bai	Bai
Getaria	Taberna: Politena	2023-09-27	Bai	Bai
Getaria	Okindegi-Kafetegia: Izarri	2023-09-27	Bai	Bai
Orio	Jatetxea: Oliden	2023-09-27	Bai	Bai
Orio	Jatetxea: Balea	2023-09-27	Bai	Bai
Orio	Taberna: Bordatxo	2023-09-27	Ez	Ez
Orio	Erretegia: Joxe Mari	2023-09-28	Ez	-
Orio	Taberna: Antilla	2023-09-28	Bai	Bai
Orio	Taberna: Zaharren Babeslekua	2023-09-28	Bai	Ez
Orio	Taberna: Gure Txoko	2023-09-28	Bai	Bai

Herria	Komertzioaren izena	Data	Kontaktatua	Galdetegia bete du?
Orio	Taberna: Errusta	2023-09-28	-	Ez
Orio	Gozotegi-Okindegia: Sayalero	2023-09-28	Bai	Bai
Orio	Kolon Txiki Jatetxea	2023-09-28	Bai	Bai
Orio	Kutixi Kafetegia	2023-09-28	Bai	Bai
Orio	Mirotza Taberna	2023-09-28	Bai	Bai
Zarautz	Sagardotegia: Olatu Gain	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Jatetxea: Karlos Argiñano	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Taberna-Jatetxea: Txiki Polit	2023-09-27	Bai	Ez
Zarautz	Taberna-Jatetxea: Bai-Batzokia	2023-09-27	Ez	-
Zarautz	Taberna: Naparrak	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Isabel	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Txaltxa	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Lukas	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Katixa Surf	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Pagoeta	2023-09-27	Bai	Ez
Zarautz	Taberna: Charly	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Pizzeria: Artea	2023-09-27	Ez	-
Zarautz	Taberna: Itxas Lur	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Kafetegia: Andatza	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Nautico Berri	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Okindegia-Gozotegia: Sayalero	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Gozotegia: Suna	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Okindegia: Trigal	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Okindegia-Kafetegia: Aramendia Amaloi	2023-09-27	Bai	Bai
Zarautz	Jatetxea: Telesforo	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Jatetxea: Otzarreta	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Jatetxea: Kirkilla	2023-10-03	Ez	Ez
Zarautz	Jatetxea: Azpi Enea	2023-10-03	Ez	Ez
Zarautz	Jatetxea: Oishi	2023-10-03	Ez	-

Herria	Komertzioaren izena	Data	Kontaktatua	Galdetegia bete du?
Zarautz	Taberna: Aritzbatalde	2023-10-03	Ez	.
Zarautz	Taberna-Kafetegia: Arralde (Maxi Eroski)	2023-10-03	Bai	Ez
Zarautz	Kebab: Zarautz	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Geltoki	2023-10-03	Ez	-
Zarautz	Taberna: Salbide	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Kafetegia: Rincon del Ritmo	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Euskalduna	2023-10-03	Ez	-
Zarautz	Taberna: Zelaitxo	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Taberna: Arrano	2023-10-03	Ez	-
Zarautz	Ogiberri Okindegia	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Casa Izaro	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Itxaso Taberna	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Napar Berria	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Erretoki Lagunak	2023-10-03	Bai	Bai
Zarautz	Kikara Taberna	2023-10-03	Bai	Bai
Zumaia	Taberna: Ubera Jatetxea	2023-09-27	Bai	Bai
Zumaia	Jatetxea: Aita Mari	2023-09-26	Ez	-
Zumaia	Taberna: Idoia	2023-09-26	Bai	Bai
Zumaia	Taberna: Tximista	2023-09-26	Bai	Bai
Zumaia	Taberna: Narrondo	2023-09-26	Bai	Ez
Zumaia	Okindegia/Gozotegia: Flysch	2023-09-26	Bai	Bai
Zumaia	Taberna: Leize	2023-09-26	Bai	Bai
Zumaia	Taberna: Gure Txokoa	2023-09-27	Bai	Bai
Zumaia	Okindegia-Gozotegia: Ogi Berri	2023-09-27	Bai	Bai
Zumaia	Jatetxea: El txoko de Mikel	2023-09-29	Ez	-
Zumaia	Jatetxea: Basusta	2023-09-29	Ez	-
Zumaia	Marina Berri Jatetxea	2023-09-29	Bai	Bai
Zumaia	Erretegia: Flysch	2023-09-29	Bai	Bai
Zumaia	Kantauri Taberna	2023-09-29	Bai	Bai

Herria	Komertzioaren izena	Data	Kontaktatua	Galdetegia bete du?
Zumaia	Itxaso Taberna	2023-09-29	Bai	Bai
Zumaia	Juaristi Jatetxea	2023-09-29	Bai	Bai
Zumaia	Taberna: Kebab Zumaia	2023-09-29	Ez	-
Zumaia	Taberna: Azkue	2023-09-29	Bai	Bai
Zumaia	Taberna: Atari	2023-09-29	Ez	-
Zumaia	Taberna: Kabi	2023-09-29	Ez	-
Guztira	**79**		**60**	**54**

Guztira 79 establezimendu bisitatu behar izan dira 60 sortzaile handiekin kontaktatu ahal izateko.

Kontaktatu diren establezimendu guztiei, Zero Flyer bat banatu zaie, non eskualdeko sortzaile handien elikagaien xahuketaren datuak eta arazo hau murrizteko burutu daitezkeen neurri ezberdinak agertzen diren.

17. Irudia ***BANATUTAKO ZERO FLYERRA***




Zero Flyerra banatzeko, establezimenduko langileek haien mugikorrarekin QR bat eskaneatu behar izan dute. QRa eskaneatzean, Zero Flyerraren pdf-a zuzenean haien mugikorrean deskargatzen da.

18. Irudia ***ZERO FLYERRAREN QRA.***

60 sortzaile handi horietatik, 6 ez dute galdetegia bete izan nahi, beraz **54 galdetegi bete dira**.

Galdetegiarekin hasteko, establezimendu ezberdinek sortzen dituzten hondakin mota eta bolumenagatik galdetu zaie.



Orokorrean, astean hondakin asko sortzen direla ikusi da, gehien bat beira eta ontzi arinei dagokionez. Galdetegia egin den establezimendu gehienak taberna eta jatetxeak izanda, emaitza hauek espero izatekoak dira, bolumen handia daukatelako, baita ostalaritzan asko ematen direlako ere. Zenbait establezimenduetan materia organiko asko sortzen dela behatu da ere, gehien bat jatetxeetan, taberna eta kafetegiek soberakin organiko gutxi baitituzte.


Egurra eta plastikozko filmaren inguruan galdetu zaie ere, eta oso gutxi sortzen dela ikusi da. Plastikozko filmaren kasuan establezimenduen % 35ak baino ez dute erabiltzen, astean 20L inguru sortzen dutelarik. Egurraren kasuan gutxiago sortzen da; %11ak baino ez du sortzen eta oso kantitate txikietan.

Halaber, hondakinen sorkuntzak urtean zehar aldaketarik pairatzen al duen galdetu da ere, eta gehienek (%72,2) udan hondakin gehiago sortzen direla adierazi dute. %20,4ak, aldiz, urtean zehar hondakinen sorkuntzak aldaketak sufritzen ez dituela adierazi du. Hau erantzun duten establezimendu gehienak Zarautz eta Orioko herrien barnealdean kokatuta zeuden, kostatik urrun, eta hortaz, ez dute turismoaren hainbeste eragina sumatzen. Halaber, establezimenduen %7,4ak urtean hilabete bakarrean, abuztuan gehien bat, hondakin gehiago sortzen direla diote.

Hondakinak kaleko edukiontzietara zein maiztasunarekin botatzen duten ere galdetu da, eta nahiz eta biohondakinak, papera eta kartoia eta errefusa atez-ate jasotzen diren, establezimenduen %92a ontzi arinak eta beira sortzen dituztenez ia egunero erabiltzen dituzte kaleko edukiontziak. Izan ere, askok atez-ateko zerbitzua izan arren, errefusa ere maiz kaleko edukiontzietan botatzen dute.


Bisitaturiko jatetxe, taberna eta kafetegi gehienek (%85,2) haien establezimenduetan elikagaien xahuketa ematen dela diote. Beste establezimendu guztiek, kontaktaturiko %8a, xahuketarik ez dutela diote. Gehienak kafetegiak eta gozotegiak izan dira, kasu gehienetan egunaren bukaeran soberan dituzten pastelak gozogintzarako lantegira bueltatzen dituztelako, eta beraz ez dituzte hondakin gisa kudeatzen.

19. Irudia ***XAHUTZEN DEN ELIKAGAIEN BOLUMENA***




Xahuketa ematen den establezimendu gehienetan, oso xahuketa gutxi ematen da. Tabernen kasuan, gehienetan pintxo gutxi batzuk baino ez dira botatzen eta askok egunaren bukaeran pintxoak prezio erdira edota dohain ematen dituzte zaborrera ez botatzeko. Jatetxeen kasuan, gehienek soberan izan duten janaria hurrengo eguneko menua egiteko aprobetxatzen saiatzen dira, beraz astean ez dute asko xahutzen.

20. Irudia ***XAHUKETA EMATEAREN ARRAZOIAK***



Elikagaien xahuketa ematearen arrazoiengatik galdetu diegunean, %24,1ak elikagaiak galdu egiten direlako edo egoera txarrean daudelako dela adierazi dute. Oso ehuneko baxu batek, elikagaien iraungitze data heldu delako dela esaten dute, baita saltzeko itxura onik ez dutelako ere. Hala ere, establezimendu gehienek (%83,3) elikagaiak alferrik botatzeko arrazoi nagusia janaria saltzen ez dela diote, hau da, eguna bukatzen denean saldu ez den janaria hurrengo egunean saldu ezin denez bota egiten dela. Azken hau pintxoak egiten dituzten taberna askotan gertatzen da.

21. Irudia ***XAHUKETA MURRIZTEKO HARTU DAITEZKEEN NEURRIAK***



Xahuketa murrizteko neurri posibleei buruz galdetu diegunean, %40,7k egoera txarrean dauden elikagaiei bigarren bizitza bat ematea ondo dagoela adierazi dute eta %33,3ak, donazio bideak ezartzea. Oso ehuneko baxuak (%2) arazoa txikitzeko isunak jarri beharko zirela dio.

Elikagaiak alferrik ez galtzeko beste iradokizun interesgarriak ere jaso dira galdetegi honen bidez (establezimenduen %40,7a):

- Eskualde mailan elikagaien soberakinen bilketa eta birbanaketa sistema bat ezartzea

- Jatetxe handietan, mahaikideak aurreikusi ahal izateko, aldez aurreko erreserba sistema bat ezartzea, era horretan egin behar den janari kopurua kalkulatu ahal izateko
- Pintxoak egiten dituzten tabernen kasuan azken momentuko eskaintzak egitea
- "Too Good To Go" bezalako aplikazioak erabiltzea
- Janari soberakinak hurrengo eguneko beste plater batzuk egiteko aprobetxatzea

Azkenik, elikagaien xahuketa prebenitzeko lege berria ezagutzen al duten galdetu zaie, eta bisitatutako establezimenduen %81,5ak ez duela ezagutzen adierazi du. Honen aurrean, Vermicanetik lege honek HOREKA kanalean ekarriko dituen betebehar nagusien berri eman zaie.

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK

- Nahiz eta sare sozial ezberdinen bitartez zabaldu eta kalean kartelak ipini diren, herritarrei zuzendutako **hitzaldi informatiboak** ez dira oso arrakastatsuak izan. Izan ere, antolaturiko hitzaldien %70era ez da inor azaldu eta Aia eta Zumaiaren kasuetan antolaturik zeuden bi hitzaldietan ez da inor agertu. Gainera, beste hiru udalerrietan jendea etorri den arren, guztira oso jende gutxi agertu da (Orion 4 pertsona, Zarautzen 3 eta Getarian pertsona bakarra). Honen arrazoiak anitzak izan daitezke, udal elkartearen eta udal ezberdinen sare sozialak ez jarraitzea edota herri mailan beste ekintza batzuk antolatuta egotea (arraun taldearen batzarra Orion, futbol partida Getarian eta yoga klaseak Aian), besteak beste. Hitzaldiak emateko formatu hau aldatu behar dela ondorioztatzen da hurrengo kanpainetarako.
    - Hitzaldi informatiboetara bertaratu diren herritarrek, haien etxebizitzetan keinu sinpleen bidez elikagaien xahuketa murrizteko neurri ezberdinak ikasi dituzte. Jende gutxi etorri bada ere, azaldu den jendea gaiarekiko inplikazio handia erakutsi du eta etorkizunean Urola Kostan gaiarekin harremandutako ekimenen bat gauzatzen baldin bada, ekimenean parte hartzeko prestutasuna daukatela adierazi dute.
- **Elikagaien xahuketa tailerretan** parte hartu duten 522 ikasleek ez zituzten gaiaren inplikazioak ezagutzen. Ondorioz, tailerrak oso arrakastatsuak izan direla esan dezakegu, beste gauza batzuen artean iraungitze-dataren eta kontsumo lehenetsiaren dataren arteko aldea ikasi eta etxean janaria alferrik ez galtzeko hainbat neurri ezberdin ikasteko aukera izan dutelako.
- Ikastetxe ezberdinetan lortutako **jantokiko dinamikako** xahuketa datuak oso ezberdinak izan dira. Hau faktore ezberdinengatik izan daiteke, garrantzitsuenak menua eta ikasle kopurua direlarik. Hala ere, dinamika honekin janaria alferrik galtzearen arazoa ikusaraztea bilatzen zen eta ikasle eta jantokiko langileen harrera ikusita, lortu egin dela esan daiteke.
    - Ikasleek askotan plateretan janaria uzten dutela behatu da, kasu gehienetan janaria gustukoa ez dutelako. Halaber, batzuetan errazioak handiegiak direla adierazi dute ikasle batzuek.

- Bisitatu diren ia jangela guztietan, zerbitzatu ez den eta erretiluetan soberan gelditu den janaria bazkal orduaren amaieran zaborrera bota egin da. Hau, kasu askotan jantokian ematen den xahuketaren oso ehuneko altua suposatzen du.

> **Sortzaile handien bisitak** egin direnean, zenbait establezimendu ez dute galdetegia bete izan nahi. Hau gehien bat interes falta eta denbora faltagatik izan da.

- Kontaktaturiko establezimenduen %85,2ean elikagaien xahuketa ematen da. Xahuketa ematen den establezimenduen %65,9ek oso xahuketa gutxi dute, astean 20L janari edo gutxiago botatzen delarik. Establezimendu gutxi batzuetan xahuketa gehiago ematen da: %27,6an astean 50L eta %6,4ean astean 120L. Bi kasu hauetan establezimenduak jatetxe handiak ziren, eta beraz, elikagaiak galdu egin direlako edota soberan dauden prestatutako platerak beste janari batzuk prestatzeko berrerabili ezin direlako ematen da.
- Xahuketa murrizteko neurriei buruz galdetu diegunean, kontaktaturiko establezimenduen %40,7k egoera txarrean dauden elikagaiei bigarren bizitza bat ematea egokia ikusten dutela adierazi dute, eta %33,3ak, donazio bideak ezartzea. Establezimenduen %2ak, aldiz, ez dago ados isunak jartzearekin. Halaber, kontaktaturiko establezimenduen artean beste iradokizun batzuk ere eman dira, hala nola eskualde mailan elikagaien soberakinen bilketa eta birbanaketa sistema bat garatzea, prestatu behar den janari kopurua kalkulatu ahal izateko aldez aurreko erreserba sistema bat ezartzea, pintxoak egiten dituzten tabernen kasuan azken momentuko eskaintzak egitea eta janari soberakinak hurrengo eguneko beste plater batzuk egiteko aprobetxatzea.
- Kontaktaturiko establezimenduen %81,5ak ez du ezagutzen tramitazio bidean dagoen elikagaien xahuketa prebenitzeko legea.

5 HOBETZEKO PROPOSAMENAK

> Hitzaldi informatiboak beste ekintza batzuengatik ordezkatzea.

> Hitzaldi informatiboak egin nahi direnean, hauen difusioa egiteko beste bide batzuk erabiltzea. Hurrengorako, adibidez, difusioa elkarte baten bidez egin daiteke, horrela elkarte horren bazkideen artean deialdia zabaltzea errazagoa baita.

> Jantokiko langileek ikasleei jan nahi duten janari kopuruari buruz galdetzea proposatzen da, ikasleen gosearen arabera janari gehiago edo gutxiago zerbitzatzeko.

> Ikastetxeetako jantoki bakoitzean ematen den xahuketa era zehatz batean aztertzea gomendatzen da, horretarako elikagai soberakinen kuantifikazioa gutxienez astez batean zehar eginez. Ondorioz, eskoletan emandako xahuketaren datu errealak lortuko lirateke, eta Zero Zabor hozkailua edota gaiarekin lotutako beste ekimen batzuk martxan jarri zitezkeen.

- Jantokietan erretiluetan soberan gelditzen den janariaren kopurua handia dela ikusi da. Janaria hau zaborretara ez botatzeko, bideak bilatzea gomendatzen da, hala nola, eskolarteko xahuketaren sare bat antolatuz, ikastetxeetan ematen den xahuketa birbideratu ahal izateko.
- Establezimenduek elikagaien xahuketa prebenitzeko legeak ekarriko dituen betebeharrak HOREKA kanalean ezagutarazi daitezen, legearen berrien eta inplikazioen inguruko difusio materialak edota hitzaldiak antolatzea.

ERABILERA BAKARREKO ONTZIEN PREBENTZIOARAKO KANPAINAREN BUKAERAKO MEMORIA

1.0 Bertsioa

2024/02/19

DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA

1 KANPAINAREN HELBURUAK ____ 3
2 KRONOGRAMA ____ 3
3 EGINDAKO LANAK ____ 3
3.1 PRENTSA OHARRAK ____ 3
3.2 JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA ____ 4
3.3 KARTEL INFORMATIBOEN DISEINUA ____ 5
3.4 PUNTU INFORMATIBOAK ____ 6
3.5 BURUTUTAKO JARDUEREN DIFUSIOA ____ 9
4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK ____ 10

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. IRUDIA JARRAITUTAKO KRONOGRAMA 3
2. IRUDIA ERABILERA BAKARREKO ONTZIAK MURRIZTEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUAREN AZALA. HTTPS://ORIO.EUS/ALBISTEAK/UKUEK-INFORMAZIO-PUNTUA-JARRIKO-DU-HERRIAN-HERRITARRAK-KONTZIENTZIATZEKO-ERABILERA-BAKARREKO-ONTZIEZ/4
3. IRUDIA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ITURRIKO URAREN ERABILERA SUSTATZEKO KARTEL INFORMATIBOAREN DISEINUA 5
4. IRUDIA PUNTU INFORMATIBOAREN DATA ETA ORDUTEGIA 6
5. IRUDIA HERRI BAKOITZEAN BURUTUTAKO PUNTU INFORMATIBOEN ARGAZKIAK 7
6. IRUDIA PUNTU INFORMATIBOETAN ERABILITAKO MATERIALA 8

1 KANPAINAREN HELBURUAK

Dokumentu honen bitartez, erabilera bakarreko ontzien erabilera prebenitzeko eta murrizteko sentsibilizazio kanpainan jasotako emaitzak biltzen dira. Kanpaina **urtarrilean hasi eta otsailean bukatu zen**, eskualdeko bost udalerrietan ekintza ezberdinak gauzatu zirelarik.

Kanpaina hau hondakin zehatz baten sorkuntzaren prebentzioan eta murrizketan oinarritu da, hala nola, erabilera bakarreko ontzietan. Zehazki, eskualdeko herritarren gai honen inguruko sentsibilizazio eta kontzientziazioa sustatzea izan du helburu ekimen honek. .

Jarraian, kanpainaren baitan burututako sentsibilizazio ekintza ezberdinak eta hauen emaitzak eta ondorioak adierazten dira.

2 KRONOGRAMA

Kanpainan antolatuta zeuden jarduera ezberdinak burutzeko, honako egutegia jarraitu da.

1. Irudia ***JARRAITUTAKO KRONOGRAMA.***

	Urtarrila		**Otsaila**		
	3	**4**	**1**	**2**	**3**
Koordinazio orokorra					
Difusioa eta komunikazioa					
Azterketa teknikoa					
Jardunbide egokien eskuliburua					
Kartelen diseinua					
Informazio puntuak					
Bukaerako txostena					
Kalitate kontrola					

Dokumentuen prestaketa aurreko urtean egin arren, koordinazio orokorra urtarrilean zehar egin da, baita kaleko ekintzak otsaileko lehenengo bi asteetan ere.

3 EGINDAKO LANAK

Jarraian, kanpainan zehar garatutako ekintza bakoitza deskribatzen da.

3.1 PRENTSA OHARRAK

Kanpainaren hasieran kanpainaren berri emateko prentsa ohar bat prestatu zen. Izan ere, hasierako prentsa oharra otsailaren 5ean bidali zitzaion Udal Elkarteari.

Bukaerako prentsa oharra kanpainaren amaieran helarazi zitzaion UKUEri honek hare sare sozialen bitartez zabaltzeko.

3.2 ITURRIKO ETA BOTILARATUTAKO URAREN KALITATEAREN AZTERKETA

Txorrotako uraren kontsumoa bultzatzeko, iturriko eta botilaratutako uraren arteko alderaketa txosten bat prestatu zuen Vermicanek. Ikerketa honen bidez, bi ura moten kalitate parametroen alderaketa eta ur mota bakoitzak jarraitutako iragazpen, arazketa eta osmosi sistemen azterketa burutu zen.

Txosten honen bitartez, hurrengo helburuak bilatzen ziren:

- Botilaratutako uraren kontsumoaren egoera eta ingurumen inpaktuak ezagutzea.
- Iturriko uraren eta botilaratutako uraren kalitatearen konparaketa egitea.
- Erabilera bakarreko ontzien murrizketa sustatzea, botilaratutako uraren ordez iturriko uraren kontsumoa lehenetsiz.
- Aztarna hidrikoa minimizatzea.
- Plastikozko ur botilak botilaratzean eta garraiatzean sortutako kutsadura murriztea.
- Urola Kostako herritarren eta administrazio publikoaren sentsibilizazioa, formakuntza eta kontzientziazioa handitzea.

Azterketaren ondorioek iturriko uraren kontsumoa botilaratutako uraren kontsumoa bezain edo osasungarriagoa dela ondorioztatu zuten. Halaber, ingurumen arrazoiak aztertzen badira, iturriko uraren aztarna eta inpaktu ekologikoa txikiagoa dela ikusi zen. Era berean, iturriko urak inpaktu ekonomiko txikiagoa aurkezten du botilaratutako urarekin alderatzen bada. Arrazoi hauengatik burututako azterketak iturriko ura botilaratutako ura baino jasangarriagoa dela eta botilaratutako uraren kalitate berdina duela ondorioztatzen zuen.

Behin amaituta, azterketa UKUEri bidali zitzaion, honek administrazioei helarazi eta haren web orrian eskuragarri jarri zezan eskualdeko herritarrek kontsultatu ahal izateko.

3.3 JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA

Eskualdeko erakunde publiko eta herritarren jokabidea funtsezkoa da erabilera bakarreko ontziak murrizteko. Honen ondorioz, bi agente hauei zuzendutako jardunbide egokien eskuliburu bat prestatu zuen Vermicanek. Dokumentu honen bitartez, era grafiko batean bai bulego publikoetan bai herritarren artean erabilera bakarreko ontziak saihesteko eta ontzi mota hauen erabilera zentzudun bat bultzatzeko jarduera ezberdinak biltzen ditu.

2. Irudia ***ERABILERA BAKARREKO ONTZIAK MURRIZTEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUAREN AZALA.***



Behin eskuliburua prest zegoenean, Vermicanek UKUEri bidali zion, honek eskualdeko erakunde publikoen artean zabaltzeko.

3.4 KARTEL INFORMATIBOEN DISEINUA

Vermicanek, iturriko ura botilaratutako uraren ezberdintasunak komunikatzeko kartel bat diseinatu zuen eskualdeko eraikin publikoetan itsasteko. Kartelak iturriko urak dituen abantailak biltzen zituen, bai osasunari dagokionez bai ingurumenari eta ekonomiari dagokionez ere. Honekin, administrazioko langile publikoek iturriko ura lehenestea bilatzen da, ondorioz, botilaratutako urak sortutako hondakin plastikoak saihestuz.

3. Irudia ***ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN ITURRIKO URAREN ERABILERA SUSTATZEKO KARTEL INFORMATIBOAREN DISEINUA***



Kartelen diseinua irailean helarazi zitzaion UKUEri, honek eskualdeko administrazio publikoen artean zabaldu zezan.

3.5 PUNTU INFORMATIBOAK

Bukatzeko, eskualdeko udalerri bakoitzean puntu informatibo bat ezarri zen erabilera bakarreko ontzien inpaktuaren inguruan sentsibilizatzeko helburuarekin. Puntu informatibo bakoitzean, karpa bat ezarri eta hezitzaile bat egon zen. Hezitzaileak gerturatzen ziren pertsonei erabilera bakarreko ontziak zer diren eta hauek prebenitzeko burutu daitezkeen hautabideen eta alternatiben inguruan informatu zuelarik.

Puntu informatibo bakoitza herriko merkatal gune baten inguruan ezarri zen, supermerkatu batetik gertu, sorkuntza eremu garrantzitsuak direla kontsideratzen baita.

Jarraian, puntu informatibo bakoitzaren lekua, data eta ordutegia adierazten da.

4. Irudia ***PUNTU INFORMATIBOREN DATA ETA ORDUTEGIA.***

Herria	Lekua	Data	Ordutegia
Zumaia	EROSKI (Alai auzoa)	2024/02/09	10:00-13:00
Getaria	Udaletxeko plaza	2024/02/09	15:00-18:00
Aia	BM	2024/02/14	10:30-13:30
Zarautz	Udaletxeko plaza, BM supermerkatu parean	2024/02/16	11:00-14:00
Orio	DIA	2024/02/16	15:00-18:00


Nahiz eta Getariako puntu informatiboa udaletxeko plazan jarri nahi izan, azkenean ezin izan zen bertan jarri haize bortitza zebilelako. Ondorioz, karpa udaletxe plaza alboan zegoen aterpe batean kokatu zen.

Puntu informatiboen bidez, jarraian azaltzen diren ekintzak burutu ziren:

- Erabilera bakarreko ontziak zer diren azaltzea eta hauen adibide ezberdinak aurkeztea.
- Erabilera bakarreko ontzien inpaktuaren inguruan informazioa ematea eta ontzi hauek sortu ditzaketen inpaktu ezberdinak aurkeztea.
- Erabilera bakarreko ontziak ez erabiltzeko alternatibak ezagutaraztea eta zabaltzea.
- Hondakinen banaketa eta birziklapena era egokian burutzeko hautabideak ematea.

Jarraian, burututako informazio puntu ezberdinen argazkiak ikus daitezke.

5. Irudia ***HERRI BAKOITZEAN BURUTUTAKO PUNTU INFORMATIBOEN ARGAZKIAK.***






Emandako informazioa errazago ulertzeko, erabilera bakarreko ontzien adibide ezberdinak egon ziren erakusgai mahai gainean, hala nola plastikozko edalontzi eta botilak, zilarrezko papera eta plastikozko poltsak. Era berean, erabilera bakarreko ontziak ez erabiltzeko existitzen diren alternatiba batzuen adibideak ere erakusgai jarri ziren. Azken hauen adibide batzuk ogitartekoak eramateko bilgarri berrerabilgarriak, oihalezko poltsak, botila berrerabilgarriak eta tuperrak dira.

6. Irudia ***PUNTU INFORMATIBOETAN ERABILITAKO MATERIALA: EZKERREKO ARGAZKIAN ERABILERA BAKARREKO ONTZI EZBERDINEN ADIBIDEAK, ESKUMAKO ARGAZKIAK ERABILERA BAKARREKO ONTZIAK EZ ERABILTZEKO ALTERNATIBAK.***








Gainera, edukin grafiko batzuk prestatu ziren erabilera bakarreko ontzi ezberdinen degradazio denbora, baita plastikoen zikloa eta ematen diren inpaktu ezberdinak azaltzeko.

7. Irudia ***ERABILERA BAKARREKO ONTZIEN INPAKTUAK ERAKUSTEKO MATERIALAK.***





Puntu informatiboen bidez **kontaktatutako pertsona kopurua 143 pertsonakoa** izan zen.

8. Irudia ***PUNTU INFORMATIBO BAKOITZEAN KONTAKTATURIKO PERTSONA KOPURUA.***

Udalerria	Kontaktaturiko jende kopurua
Zumaia	27
Getaria	17
Orio	32
Zarautz	24
Aia	43
Guztira	**143 pertsona**

Taulan ikus daitekenez, Aian pertsona gehien kontaktatutako lekua izan zen. Izan ere, puntu informatiboa Lardizabal Herri Eskolatik gertu jarri zen, eta ondorioz, ume asko puntu informatibora hurbildu eta hezitzailearekin hitz egiten egon ziren patio ordua aprobetxatuz. Orion ere antzekoa gertatu zen, puntu informatiboa Orio Herri Ikastola parean kokatuta zegoenez eskola orduak bukatu zirenean ume eta hauen guraso asko hurbildu ziren.

Getariako puntu informatiboan aldiz, jende gutxi gerturatu zen. Honen arrazoia, puntua jartzeko erabili zen kokalekua oso egokia ez zela izan daiteke, aterpe batetan sartuta baitzegoen, baita baldintza meteorologikoak onenak ez zirela ere.

3.6 BURUTUTAKO JARDUEREN DIFUSIOA

Kanpaina honen baitan garatutako dokumentu guztiak administrazio ezberdinen artean zabaltzeko, Vermicanek korreoz bidaltzeko mezu bat prestatu eta UKUEri bidali zion. Mezu honen helburua Udal Elkarteak kartel informatiboak eta jardunbide egokien eskuliburua eskualdeko tokiko administrazioekin partekatzea da, kanpainan zehar garatu diren dokumentu guztiak eskuragarri izan ditzaten.

4 IRADOKIZUNAK ETA ONDORIOAK

- Kanpaina eta bertan sorturiko material zein eginiko ekintzak arrakastatsuak izan direla ondorioztatzen du Vermicanek.
- Ospatutako puntu informatiboak arrakastatsuak izan direla ondorioztatzen da, 130 pertsona baino gehiagorekin kontaktatzea eta sentsibilizatzea lortu baita.
- Gehien bat ikastetxeetatik gertu edota umeak zeuden lekuen inguruan zeuden puntu informatiboak izan dira arrakastatsuagoak. Izan ere, Aian eta Orion beste udalerrietan hurbildu den jendearekin alderatuta, jende gehiago gerturatu da.
- Ez da asko nabaritu goizeko eta arratsaldeko puntu informatiboen arteko aldea kontaktaturiko pertsona kopuruari dagokionez.
- Kontaktaturiko jende gehienak erabilera bakarreko ontzi gutxi erabiltzen dituela edo mota hauetako ontziak ez erabiltzen saiatzen dela dio. Gainera, ontzi hauek sortutako hondakinen kudeaketa egokia burutzeko zein edukiontzietara bota behar diren ezagutzen dute.
- Erabilera bakarreko ontziak ez erabiltzeko aurkeztu ziren alternatibak ezagunak ziren hitz egindako pertsonen artean. Askok alternatiba hauek erabiltzen zituztela aipatu zuten ere.

EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA

UROLA KOSTA
INGURUMENA

STOP
EKITALDI PUBLIKO EZ JASANGARRIAK
EVENTOS PÚBLICOS NO SOSTENIBLES

AURKIBIDEA ÍNDICE

01 **SARRERA** 4
INTRODUCCIÓN

02 **HELBURUAK** 5
OBJETIVOS

03 **EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO ARRAZOIAK** 6
POR QUÉ AMBIENTALIZAR UN EVENTO

04 **NOLA EGIN EKITALDI JASANGARRIAK** 10
CÓMO AMBIENTALIZAR UN EVENTO

05 **JARDUNBIDE EGOKIEN BILDUMA** 12
RECOPILATORIO DE BUENAS PRÁCTICAS

IRUDIAK IMÁGENES

01 **EKITALDI JASANGARRIAK EGITEAREN ONURAK** 9
BENEFICIOS DERIVADOS DE LA AMBIENTALIZACIÓN DE EVENTOS.

02 **EKITALDI BAT EGITEKO PROZESUAREN FASEAK** 10
FASES DEL PROCESO PARA LLEVAR A CABO UN EVENTO

03 **EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN BILDUMA** 13
RECOPILATORIO DE BUENAS PRÁCTICAS PARA LA AMBIENTALIZACIÓN DE EVENTOS.

Dokumentu hau Urola Kostako Udal Elkarteak egin du eta haren jabetzakoa da.
Este documento ha sido elaborado por la Mancomunidad de Urola Kosta y es de su propiedad.



01

SARRERA

Gure gizartean era guztietako ekitaldi eta jaiak antolatzen dira, arlo artistiko edo kultural jakin bat ospatu, agertu edo ezagutarazteko. Ekitaldiak ospatu aurretik eta ospatzen diren bitartean, hainbat jarduera egiten parte hartzen dute pertsona askok. Horrek hainbat inpaktu positibo eta negatibo eragiten ditu, bai komunitatearentzat, bai ospakizunaren ingurunerako.

Gaur egun, gero eta ohikoagoa da ekitaldi bat antolatzerakoan jasangarritasuna kontuan hartzea, bai ingurumenaren gaineko zuzeneko eta zeharkako inpaktuak murrizteko, bai berdintasun eta eredugarritasun printzipioen sustapena areagotzeko.

Testuinguru horretan, ekitaldi bat ingurumenerako jasangarria dela esaten da, baldin eta ekitaldiaren diseinutik bertatik hartzen bada kontuan zer inpaktu eragin ditzakeen ingurumenean, eta efektu positiboak sustatzen eta negatiboak arintzen saiatzen bada, garrantzi berezia emanez gehiegizko ondasun materialen erabilera prebenitzeari, bai eta materialak berrerabiltzeari ere, eta, besterik ezean, sortutako hondakinak birziklatzeari.

Eskuliburu honen helburua da ekitaldien antolamenduan parte hartzen duten eragileei ekitaldi jasangarriek zer onura dakartzaten jakinaraztea, baita ekitaldi bat jasangarria izan dadin zer ekintza egin behar diren zehaztea ere.

INTRODUCCIÓN

En nuestra sociedad, se organizan todo tipo de actos y fiestas con el objetivo de celebrar, representar o dar a conocer un determinado campo artístico o cultural. Antes y durante estos eventos, un gran número de personas desarrollan y comparten distintas actividades, lo que conlleva una serie de impactos, positivos y negativos, tanto para la comunidad, como para el entorno en el que se celebra.

A día de hoy, cada vez es más común introducir la sostenibilidad como un criterio más a tener en cuenta a la hora de organizar un evento, tanto para reducir los impactos directos e indirectos sobre el medio ambiente, como por la oportunidad que representa para fomentar los principios de igualdad y ejemplaridad.

En este contexto, un evento ambientalmente sostenible es aquel que, desde su diseño, contempla el impacto ambiental generado tratando de potenciar los efectos positivos y atenuar los negativos, haciendo especial hincapié en la prevención de un exceso de bienes materiales, así como la reutilización de estos y en última instancia el reciclaje de los residuos generados.

El presente protocolo o manual tiene como objetivo hacer conocer a los diferentes agentes implicados en la organización de eventos en qué se basa la ambientalización de actos, así como cuáles son sus beneficios y qué acciones tomar para celebrar un evento sostenible.



02

HELBURUAK

Jardunbide egokien eskuliburu honen helburuak hauek dira:

- Ekitaldiekin lotutako ingurumen inpaktuak ezagutzea.
- Ekitaldi jasangarri batek dituen onurak ulertzea.
- Zer eremu hobetu daitezkeen identifikatzea.
- Ekitaldien antolakuntzan parte hartzen duten eragileak sentsibilizatzea eta kontzientziatzea.

OBJETIVOS

Los objetivos que persigue este manual de buenas prácticas son los siguientes:

- *Conocer los impactos ambientales asociados a los eventos.*
- *Comprender los beneficios de un acto sostenible.*
- *Identificar las áreas de mejora potencial.*
- *Sensibilizar y concienciar a las partes implicadas en la organización de eventos.*

03



EKITALDI JASANGARRIAK EGITEKO ARRAZOIAK

Ekitaldi baten ingurumen inpaktuak

Ekitaldi baten ingurumen eragina ebaluatzeko orduan, garrantzitsua da ikuspegi holistiko bat izatea. Alegia, ospakizunaren beraren inpaktuez gain, kontuan hartu behar da, era berean, zer inpaktu sortzen diren erabilitako elementu guztien materialen ekoizpenean, garraioan eta bizi-amaieran.

Hona hemen ekitaldi batek izan ditzakeen ingurumen inpaktuak:

- **Berotegi efektuko gasak isurtzea**, bai hornitzaileen eta bai parte hartzaileen joan-etorrietan erregai fosilak kontsumitzearen ondorioz.
- **Energia kontsumitzea** (argiztapen eta soinu ekipamenduak, besteak beste).
- **Ura kontsumitzea** (komunak, garbiketa lanak, etab.).
- **Hondakinak sortzea.**
- **Basa bizitza asaldatzea:** kutsadura akustikoa, gaueko argiztapena, etab.
- Beharrezko baliabideak eskuratzearen ondorioz sortutako beste inpaktu batzuk.

POR QUÉ AMBIENTALIZAR UN EVENTO

Impactos ambientales de un evento

A la hora de evaluar el impacto ambiental de un evento, es importante tomar una perspectiva holística y no solo considerar los impactos de la propia celebración, sino también los impactos derivados de la producción de los materiales, el transporte y fin de vida de cada uno de los elementos utilizados.

A continuación, se exponen los impactos potenciales asociados a un evento:

- *Emisión de **gases de efecto invernadero** asociados al consumo de combustibles fósiles debido al desplazamiento de proveedores y asistentes.*
- ***Consumo energético** (equipos de iluminación y sonido, entre otros).*
- ***Gasto de agua** (uso del baño, tareas de limpieza, etc.).*
- ***Generación de residuos.***
- ***Perturbación de la vida silvestre:** contaminación acústica, iluminación nocturna, etc.*
- *Otros impactos derivados de adquisición de los recursos requeridos.*

Ekitaldiak ingurumenerako jasangarriagoak egitearen onurak

Ekitaldi bat planifikatzean, sustatzean eta ospatzean, erabaki askok baldintzatzen dute prozesuaren emaitza, hainbat irizpideri jarraituz (segurtasuna, irudia, aurrekontua, bezeroen eskaerak eta bertaratutakoen espektatibak). Erabakiak hartzeko prozesu horretan ingurumen irizpideak sartzeak abantailak ditu hainbat mailatan.

Beneficios de la ambientalización de eventos

A la hora de planificar, promocionar y llevar a cabo un evento, existen muchas decisiones que condicionan el resultado del proceso, ajustándose a distintos criterios (seguridad, imagen, presupuesto, requerimiento del cliente y expectativas de los asistentes). La introducción de criterios ambientales en este proceso de toma de decisiones, ofrece ventajas a distintos niveles.



01 EKITALDI JASANGARRIAK EGITEAREN ONURAK
BENEFICIOS DERIVADOS DE LA AMBIENTALIZACIÓN DE EVENTOS.

ONURAK *BENEFICIOS*		
Ingurumen onurak *Beneficios ambientales*	**- Lehengaien, energiaren eta uraren kontsumoa murriztea.** **- Hondakin gutxiago sortzea eta haien bizi amaieraren kudeaketa hobetzea.** **- Airera, uretara eta lurzorura isuri gutxiago egitea.** **- Zarata murriztea.** **- Inguruko biodibertsitatean kalteak gutxitzea.**	*- Reducción del consumo de materias primas, energía y agua.* *- Menor generación de residuos y mejora en la gestión de su fin de vida.* *- Disminución de las emisiones y vertidos al aire, agua y suelo.* *- Reducción del ruido generado.* *- Disminución de la repercusión sobre la biodiversidad de la zona.*
Gizarte onurak *Beneficios sociales*	**- Antolakundeak erakundeen eta herritarren aurrean bere irudi ona indartzea.** **- Parte hartzaileak sentsibilizatzea eta haien ohiturak hobetzea.** **- Erakunde publikoen babesletza eta finantzazioa lortzeko aukera.**	*- Reforzar la buena imagen de la organización ante las instituciones y la ciudadanía.* *- Sensibilización y mejora de hábitos de los asistentes.* *- Posibilidad de acceder a patrocinios y financiación por parte de instituciones públicas.*
Onura ekonomikoak *Beneficios económicos*	**- Energia kontsumoari eta ur kontsumoari lotutako kostuak murriztea.** **- Materialak berrerabiltzearen ondorioz, lehengaien erosketa murriztea.** **- Bertako produktuen erosketa: tokiko ekonomiari laguntzea eta garraio kostuak murriztea.** **- Hondakinen kudeaketako kostuak murriztea, hondakin gutxiago sortzearen ondorioz.**	*- Reducción de costes asociados al consumo energético y consumo de agua.* *- Reducción de costes asociados a la compra de materias primas debido a la reutilización de materiales.* *- Adquisición de productos locales: apoyo a la economía de la zona y reducción de costes en transporte.* *- Reducción de los costes de gestión de residuos debido a la reducción de su producción.*



04



NOLA EGIN EKITALDI JASANGARRIAK

Ekitaldi bat jasangarriagoa egiteko, ekitaldi horren prestakuntzan, antolakuntzan eta ospakizunean zehar egin beharreko jarduera guztiak hartu behar dira kontuan, baita ekitaldia amaitzean egin beharrekoak ere.

CÓMO AMBIENTALIZAR UN EVENTO

La ambientalización de un evento debe abordar cada una de las actividades desarrolladas tanto en el proceso de preparación, organización y celebración de un evento, como en las que se desarrollan tras la realización del mismo.

02 EKITALDI BAT EGITEKO PROZESUAREN FASEAK
FASES DEL PROCESO PARA LLEVAR A CABO UN EVENTO

Diseinua eta plangintza *Diseño y planificación* → **Antolakuntza** *Organización* → **Ospakizuna** *Celebración* → **Desmuntaia eta amaiera** *Desmontaje y cierre*

Era berean, ekitaldia jasangarriagoa egiteko, hiru esparru hauetan lan egin behar da:

- **Ingurumena hobetzeko jarduerak.**
- **Ekitaldiaren ingurumen monitorizazioa.**
- **Komunikazioa eta sentsibilizazioa.**

Oso garrantzitsua da jasangarritasun printzipioak kontuan hartzea bai ekitaldiaren planifikazioan, bai diseinu fasean eta bai antolamendu fasean. Modu horretan, hainbat arlotan hartuko dira erabakiak, eta horrela, ekitaldiaren garapena eta desmuntaia bideratuko dira.

Ekitaldia ospatzen den bitartean, oso garrantzitsua da datuak monitorizatzea eta biltzea. Horren bidez, ekitaldiaren benetako inpaktua kalkulatu ahal izango da gero, eta aplikatutako jardueren eragina ebaluatu eta puntu kritikoak identifikatu. Gainera, ariketa horrek informazio baliotsua emango du ekitaldiaren hurrengo edizioetarako.

Azkenik, ekitaldiaren aurretik eta ekitaldian zehar egindako komunikazioari esker, inplikatutako eragileak informatuta egongo dira eta ezarritako helburuak ezagutuko dituzte. Hori lagungarria izango da, ekitaldiak sor ditzakeen eragin positiboak maximizatzeko eta inpaktu negatiboak minimizatzeko. Halaber, ekitaldian zehar ingurumenari buruzko komunikazio ekintzak egitea oso aukera ona da parte hartzaileak ingurumena zaintzearen garrantziaz sentsibilizatzeko.

